



# ttipi-ttapa



IRURITA ETA URDAZUBI / 33



Marta INDART ELIZONDO

«BERAIEN LEHENGAIK

ERABILTZEN DITUGU

BAINA EZ DIEGU

HONAT ETORTZEN UZTEN;

INJUSTIZIA IKARAGARRIA DA»

Berriki Senegalgo bi ikastetxetan eskolak ematen ibili da doneztebarra. Duela zenbait urte, berriz, Gobernu Kanpoko Erakunde batekin Senegalgo haurrei alfabetatzeko klaseak ematen ibili zen lau udatan. Ezaguna du Senegal, eta hango herritarren balioak goraiatu ditu. / 11

## SINADURAK



ZOKKETA / 68



**Gorka Prieto**  
beratarra goi mailako  
txirrindularien  
nutrizionista / 8



**Aritz Alunda**  
Arraiozko  
alkatearekin herriko  
kontuak hizpide / 48



**Ibai Meoki**  
doneztebarrak  
eskubaloia utziko  
duela iragarri du / 59

BERA

LESAKA

Agenda

2023

MAIATZA  
EKAINA

[www.berakoagenda.eus](http://www.berakoagenda.eus)  
[www.lesaka.eus](http://www.lesaka.eus)

<b>MAIATZA</b> <b>19</b> ORTZIRALEA 19:00 Kidegila arketetan <b>LESAKA</b>	<b>26</b> ORTZIRALEA 17:00 Kultur etxea Antolatzaileak: buruzkoak lema aktiboa eta Beroa kultur etxean <b>BERA</b>	<b>31</b> ASTEASKENA BERA <b>EKAINA</b>
<b>20</b> LARUNBATA Antolatzailea: Lesakako Zerbitzuen Elkartera <b>LESAKA</b>	<b>27</b> LARUNBATA Berriko artistak, sortzaile eta kultur eragileen erakundeak 10:00-14:30 Boleto Plaza - Plaza Zaharra <b>LESAKA</b>	<b>3</b> LARUNBATA BERA <b>LESAKA</b>
<b>21</b> IGANDEA 10:00 Kataloa <b>BERA</b>	<b>28</b> IGANDEA Goizez Barrioak Kultur Etxea Antolatzaileak: Irati eta Txofreina Ikertzaileak janzkoak <b>LESAKA</b>	<b>9</b> ORTZIRALEA <b>LESAKA</b>
<b>22</b> <sup>TTK</sup> <b>26</b> <sup>RA</sup> MUSIKA MUSIKA EMANALDI TXIKIAK Musika eskola <b>BERA</b>	<b>MAIATZAK</b> <b>29</b> EKAINAK <b>4</b> MAIATZAK <b>31</b> EKAINAK <b>2</b>	<b>10</b> LARUNBATA BERA <b>LESAKA</b>
<b>23</b> ASTEARTEA <b>BERA</b>	<b>5</b> EKAINAK <b>11</b> EKAINAK <b>18</b> EKAINAK <b>25</b> EKAINAK <b>LESAKA</b>	<b>10</b> LARUNBATA BERA <b>LESAKA</b>
<b>KONTZERTUA</b> LESAKAKO MUSIKA ESKOLA <b>LESAKA</b>	<b>BASTAN-BIDASOKO</b> BERTSUPAPER LEHIAKETAKO SARI BANAKETA <b>BERA</b>	<b>KONTZERTUA</b> ELIZONDOKO ABESBATZA TTIKI 18:30 Kultur Etxea <b>BERA</b>
<b>DANTZA GARAIKIDEA</b> LED SILHOUETTE "CREEPY CRAWLY" 19:00 Barrioak Kultur Etxea Sarrera: 0€ <a href="http://www.lesaka.eus">www.lesaka.eus</a> <b>LESAKA</b>	<b>MERKATU-AZOKA</b> MERKATU TTIKIA ETA AZOKA KULTURALA <b>LESAKA</b>	<b>KONTZERTUA</b> ENTREXATAK 12:00 Kataloa <b>VII. IBARDINGO</b> IGOERA NAFARROAKO TXAPELKETA Antolatzailea: Zibarko Txerri <b>BERA</b>
<b>KALEAN MUSIKA</b> GANBARA TALDE TTIKIAK Toki italo abertan <b>BERA</b>	<b>BETI-GAZTE</b> ELKARTEAREN ASTEA <b>LESAKA</b>	<b>KONTZERTU</b> DINAMIKOA LESAKAKO SOINULARIAK 19:30 <b>LESAKA</b>
<b>KONTZERTUA</b> ARIMA 10:00 Kataloa <b>BERA</b>	<b>MUGAZ GAIN</b> ANTZERKI JAIALDIA Maiatzak 31 Goizez (Eskola ondotan)   100 Ekainak 1 eta 2 Goizez (Eskola ondotan) 18:00 Ate irekiak LI <b>BERA</b>	<b>BERTAKO</b> EKOLLEEN MERKATUA 10:30-13:30 Berrabiatan DANTZARI TTIKI EGUNA 10:30etik aitzinera Antolatzailea: Gure Txoko <b>LESAKA</b>
<b>MUSIKA</b> MUSIKA EMANALDI TTIKIAK Musika eskola <b>BERA</b>	<b>MUGAZ GAIN</b> ANTZERKI JAIALDIA Maiatzak 31 Goizez (Eskola ondotan)   100 Ekainak 1 eta 2 Goizez (Eskola ondotan) 18:00 Ate irekiak LI <b>BERA</b>	<b>BIZI-CONNECT</b> <b>LESAKA</b>
<b>KONTZERTUA</b> LESAKAKO MUSIKA ESKOLA <b>LESAKA</b>	<b>MUGAZ GAIN</b> ANTZERKI JAIALDIA Maiatzak 31 Goizez (Eskola ondotan)   100 Ekainak 1 eta 2 Goizez (Eskola ondotan) 18:00 Ate irekiak LI <b>BERA</b>	<b>KUKAI DANTZA</b> HNUY ILLA 19:00 Barrioak Kultur Etxea Sarrera: 10€ <a href="http://www.lesaka.eus">www.lesaka.eus</a> <b>LESAKA</b>

## Ostatu - Jatetxea

Zure jatetxe edo ostatuko diseinuarekin **KARTELAK, SEGURTASUN MATERIALAK, MENUAK, KARTAK, MAHAI-OIHALAK, etab. personalizatzen ditugu**

**KULTURKARI**  
Diseinu grafiko | Publizitatea

### SEGURTASUN MATERIALAK

- Segurtasun maskarak, maskarak, pantailak zure irudiarekin personalizatzen ditugu.

### ROLL-UP

- Aprobetxatu roll-upak **MENUA** edo mezuak idatzeko. Personalizatua neurriak aukeratu. Bida eta eramateko errazak.

### KARTELAK

- Aprobetxatu kartelak **MENUA** idatzeko.

### MAHAI-OIHALAK

- PAPEREZKO ERABILERA BAKARREKO MAHAI-OIHALAK. Bezero bakoitzari berea jarri eta bukatzerakoan botatzeko.
- PLASTIKO edo PVCkoak, garbitzeko eta DESINFEKTAZIBERO errazak.

### KAPULATUAK

- Personalizatua A3 neurrikoa. Desinfektazeko erraza.

### PAPEREZKOAK

- Personalizatua | A3 neurrikoa. Paper birzikalgar. Erabilera bakarrekoa.

### PERTSONALIZATUA

- Aprobetxatu mahai-oihalak menua idatzeko. Erabilera bakarrekoa.

### PLASTIKOAK

- Personalizatua A3 neurrikoa. Desinfektazeko erraza.

### PVCkoak

- Personalizatua A3 neurrikoa. Desinfektazeko erraza.

### KARTELAK

- Aprobetxatu kartelak **MENUA** idatzeko.

### GAUZA GEHIAGO

**INFORMAZIO GEHIAGO:**  
 Koskontako bidea, 7-1 - LESAKA - Tel: 948 63 54 58  
[kulturkari@tipi.eus](mailto:kulturkari@tipi.eus) - [www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

2 ttipi-ttapa | 830. zk. | 2023-05-18



## NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

### Unibertsitate onentsuena

Azken uholdeek zubi zaharra eraman zuten, berria egiteko zuhaitzak markatzera joan ginen udal langile eta biok. Erreka-  
ren bi aldetako mendi magalak bata bestetik 10-12 bat metrora  
gelditzen izanen ziren estugunean. Harizti gazte polita zegoen.  
Zuhaitzei banan-banan behin eta berriz begiratu ondoren,  
Joxek bi aukeratu zituen: «*Emaiek sellue bi hauei*», esan zidan.  
Handienak, ordea, pena eman zidan, inguruko tantai hoberena  
baitzen eta haren orde z okerxeagoak proposatzen hasi nintzen.  
Behar zuena huraxe zela ederki  
jakinki, Joxek zakar antzean: «*Ez  
al dok aittu? Emaioi horrei*».  
Markatu egin nuen, eta haritz  
hura motozerraz maisuki bota  
zuen erreka-aren bi aldeak lotuz.  
Lan bikaina. Punta eta adarrak  
moztu, asentatu eta goia berdin-  
duta bigarren haritza bota zuen aurrekoaren ondo-ondoan  
jarriz. «Harrapazak! Hau dok artista», pentsatu nuen! Moztutako  
adarrak neurrian moztu, entengekin josi, eta lau bat ordutan  
urteetan iraun zuen zubi txukun askoa egina zegoen. Noski, Joxe  
ez zen edozein. Munduko unibertsitate onentsuenean ikasita-  
koa zen: basoz inguratutako mendiko baserri xume batean.

**«LAU BAT ORDUZ  
URTEETAN IRAUN  
DUEN ZUBIA EGINA  
ZEGOEN...»**



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

### Barreratik begira

Batzuk zuzenean paso egiten dute; bertze batzuk, hau horrela  
eta hori honela egin beharko litzateke *proposatzen* dute;  
kritikoenek, *ze kristo egin dute, horretarako ordaintzen ditugu  
zergak?* galdetu, ostatuko tertulietan. Horregatik, beraiekin  
ados egon edo ez, lau urterako herriko plazara ateratzen  
diren *torero* horiek txalotu bertzerik ezin dugu egin.

### NABARMENTZEKOAK



**SAIOA  
SAN MIGUEL**  
KIROLARIA




**KATTIN  
MADARIAGA**  
BERTSOLARIA

500 metroko lasterketan Nafarroako errekorra egin du Saioa San Miguel lasterkari doneztebarrak. Minutu bat, 16 segundo eta 63 ehunen behar izan zituen 500 metroak egiteko.

Kattin Madariaga Apaolaza aranztarrak irabazi du aurtengo Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Nafarroakoa irabazita, Euskal Herriko finalean kantatuko du.

### GIBELERA BEGIRA



2013-05-16 · TTIPI-TTAPA · 590 zk.

### Herri ttikien biziraupenaz solasean

1993tik 2013 populazioak izan duen joera ikertu zuten duela 10 urte Gaindegiak eta hainbat zonalde arrisku larrian zeudela ikusi zuten. Ordura bitarteko joera ikusita Ezkurak luze gabe desagertzeko arriskua zuela ondorioztatu zuten, eta epe luzeagoan desagertzeko arriskuan zeuden Urroz eta Arano. «Ezkurak ezaugarri demografiko beldurgarriak ditu. Oinarri horrekin ezin dio zahartze prozesuari gain hartu, eta Arano eta Urrozek bide horretan sartzeko arrisku handia dute», nabarmendu zuten Gaindegiako koordinatzaile Imanol Esnaolak. Bertzetik, Arantzak, Aresok, Beintza-Labaienek, Eratsunek, Goizuetak, Saldia-  
sek eta Zubietak «ezaugarri demografiko kritikoak» zituztela, eta kezkatzeko motibo zirela nabarmendu zuten.



**Argitaratzailea**  
Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

**Zuzendaria**  
Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea  
**Publikitate**  
Amaia Odriozola  
Arantza Agirre  
**Berriemaileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,  
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,  
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,  
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,  
Maitane Maritorea, Arantza  
Iturralde, Arantza Gamio, Jaione  
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea  
Mortalena, Jean Louis Bessonart,  
Ganex Etxeberrigarai, Mailalen  
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier  
Zulaika.

**Fundazioaren Presidentea**  
Paskual Rekalde  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia

**Lege Gordailua**  
NA-1324/85  
**ISSN**  
1578-4673  
**Tirada**  
6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak**  
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko  
udalak, Malerreko Zerbitzuen  
Mankomunitatea.

**2023ko harpidetza sariak**  
Baztan, Urdazubi  
eta Malerreka 45€  
Leitza 36€  
Hego Euskal Herria 50€  
Ipar Euskal Herria, Europa 100€  
Amerika eta Australia 152€





## KOLABORAZIOAK

XABIER MARITORENA ZUBIETA

**Jaungoikoaren izenean, amen**

Haur sortu berriak ginelarik ur bedeinkatua kopetan beheiti bota ziguten. Bederatzi urte genituelarik jaunartzea egin genuen eta hamasei urte genituelarik konfirmazioa egin genuen.

Eta gerotik? Hori dena egin eta gero? Zenbat joaten gara elizara igandero gure fedea berritzera? Fedeak mendiak mugitzen omen ditu baina gutti batzuk mugiaraziko ditu elizara joateko bidea hartzen segitzeko.

Uler dezaket elizak badituela balore positibo batzuk. Ez duzu erailko, ez duzu lapurtuko edo ez dituzu berteen ondasunak desiratuko, bertzeak bertze. Baina ezin daiteke ukatu jaungoikoaren izenean min handia egin dela, bai hemen eta bai munduan zehar.

Frankismo garaian eliza katolikoa erregimenarekin lerrotatu zen, eta horrela egin ez zirenak bertze milaka lagun bezala kasurik hoberenean baztertuak gelditu ziren, bertzeak fusilatuak izan zirelako.

Eliza eskoletan inposatua izan zen. Denok aditu dugu (jakin nahi duenak behintzat) apaiz eta mojen gehiegikeriek ikasle horiengan bizitza osorako marka utzi duten biztanleriaren testigantzen bat; sexualki egindakoez mintzo naiz, bertzeak bertze.

Elizaren izenean mundu mailan gehiegikeriak egin direla bistakoa da. Hautsak harrotu zituen azkenekoa Kanadan agertu zen, non 1831tik 1996ra 150.000 haur indigenei beren familietatik bereizi, beraien kultura eta hizkuntza errotik moztu eta internatuak izan ziren. Dagoeneko zentro

**«INOIZ EZ ZIGUTEN GALDEGIN EA EGIN NAHI GENUEN»**

horietan hil eta bertan lurperatu zituzten ia 5.000 adin ttikikoren gorpuzkiak agertu dira, edo hobeki erranda, hil egin zituzten.

Kristautasuna herrialde txiroetara laguntzera ailegatu izan dela erran genezake, baina betiere interes baten inguruan, Biblia ezagutaraztera eta ikaslaraztera, beren sinesmenak, hizkuntza eta ohiturak bazterraraziz, berarena inposaraziz. Bai Frantzisko Xabierkoa, zu ere helburu horrekin joan zinen, gezurra erratea bekatu da, ez erran kontrakorik.

Horregatik guztiagatik, sarrerako esaldiei bigarren esaldi bat gehitu diet:

-Haur sortu berriak ginelarik ur bedeinkatua kopetan beheiti bota ziguten, aitatxi eta amatxiri errespetuzko keinu gisa, ez bataiatzea gaizki ikusia baitzegoen.

-Bederatzi urte genituelarik jaunartzea egin genuen, opariak egonen zirela erran baitziguten etxean eta nola ukatu opariak?

-Hamasei urte genituelarik konfirmazioa egin genuen, behartuta eta nire borondatearen kontra, ordurako hasia bainintzen nire kasa pentsatzen eta elizaren inguruko errealitateak ezagutzen.

Inoiz ez ziguten galdegin ea egin nahi genuen, gurasoek beraien kristautasuna guretako ere mesedegarri izanen zela erabaki zuten eta guk, isil-isilik, beraiek errandako bidea hartu genuen.



AINTZANE ARIZTEGI BARRENETXE

**Bakea hausteaz**

Zeinen erraza den kontu bat hedatzea, gurean guttienez bai. Uste baino zabalagoak dira gure arteko informazio-sareak. Normalki txutxu-mutxuak izaten dira, eta behin baino gehiagotan, errealitatea distorsionatuz doa belarritik belarrira. Hondar urteetan bizitakoek lehen eskutik solastatzeko moduko bizipenak eman dizkirate; eta erakutsi didate informazio-sare hauek alde positiboak izan arren, aski mingarriak direla negatiboak.

Aipatu ditudan bizipenek badute gauza bat amankomunean, denetan apurto da araua. «Zein arau?» pentsatuko duzue. Inon idatzirik egon gabe hitzez hitz konplitzen duguna, zehazki, badirela zenbait errealitate edo posizio ukiezinak direnak; eta hala egitekotan, zigortua izanen zarela.

Hitz horiek guztiak abstrakzio hutsean gelditu ez daitezen, adibide bat paratuko dut; eta (hemen dena azaldu behar baita) ez, ez zait niri pasa. Imajinatu zure herriko bestetan zaudela. Herrikoak bakarrik zaudeten egun horietako bat dela (egunik onena). Urte osoan justu-justu agurtzen zaituen gizon bat daukazu alboan dantzan, mozkor-mozkor. Betidanik ezagutzen duzu, eta berak zu; eta zure ingurua, eta zuk berea. Urte osoan solas egin ez dizun arren, egoerak zuri zuzentzeko adorea (edo) eman dio. Bestek badute parentesi baten forma batzuetan, eta

**«ESKANDALUA PIZTU DA ETA ZU BIHURTU ZARA ERASOTZAILEA...»**

beraz, zuk ere erantzun diozu. Badirudi erantzute huts horrek zure gorputzarekiko autobide bat ireki diola gizonari, eta bigarren iruzkinari tonua aldatu zaio. Moztuta gelditu zara, zure buruari emana; pentsatzen ea zer egin duzun bertzeak 'berarekin nahi duzula' pentsatu ahal izateko. Baina ez da deus izan, erantzutea bakarrik.

Isilik gelditu zaren arren, bertzeak aitzinera segitzen du. Orain gerritik heldu dizu eta lizunkeriak 130 km/h-ra doaz. Inbaditua sentitzen zara, txikitua, alde egin nahi duzu, baina indarrez helden zaitu, eta zuk ere indarrez erantzun beharko zenuke eskapatzeko; eta ez duzu zalapartarik nahi. Azkenean, nolabait ere lortu duzu. Bestari ordu anitz gelditzen bazaizkio ere, zurea hondatu da, eta etxera zoaz.

Biharamunean, zure lagunekin arratsari errepasso ematerakoan, aipatu diezu tipoarekin gertatutakoa. Eta ulertzen dizute, erraten dizute haiei ere pasatu izan zaizkiela antzekoak herrian bertan. Gertatutakoei hitzak paratu eta problemari aurre egiteko indartu zarete, isiltasuna urratu eta salatzea erabaki. Berriz gertatu ez dadin, egin dutenak eta egin dezaketanak inkrepatzeko.

Egin duzu. Ez zara zu bakarrik izan, baina errudunaren sorgin-ehiza hasi da, eta zuri paratu dizute ixa gorria gainean. Zu izan zara bakea hautsi duena, eta ez bart arratsean gerritik gogor heldu zintuena. Eta dena asmatu egin duzu. Eta bertzearen bertsioa, zer? Eta gizajoa tipoa, ezin izanen da kalera lasai atera. Eta txikikeria hori ez da eraso bat. Eta horrelako mila adierazpen. Eskandalua piztu da, eta konturatu orduko, zu bihurtu zara erasotzailea; bakea faltsua hausteagatik zigortua.

## 11 GALDERA LABUR

AISHA OSKARIZ URSUEGI ELIZONDOKO GAZTEA

# «Erasmusa esperientzia ikaragarria da»

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Elizondoko neska alai eta arrunta.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Musika entzutea eta janariak prestatzea aunitz gustatzen zait, baina batez ere bidaiatzea eta horrekin batera leku eta kultura berriak ezagutzea.

**Zein ikasketa egiten ari zara?**

Gizarte Hezkuntzako hirugarren mailan ikasten ari naiz Donostian.

**Aurten Erasmus programan parte hartu duzu. Norat?**

Txekiar Errepublikara etorri naiz, Olomouchirira, bigarren lauhilekorako.

**Zer izan zen ailegatzean gehien harritu zintuena?**

Erresidentziara sartu bezain fite, bertan bizi diren espainiar

kopuru haundiak harritu ninduen. Gainera, euskaldun nahiko ere bagara.

**Euskal kulturarekiko desberdintasun haundiak ikusi dituzu?**

Bai, ez du zerikusirik. Hemengo jendeak argi utzi digu ez dituztela kanpotarrak maite; bertze hizkuntza bat aditzean aurpegi txarra erakusten digute. Gainera, ordutegiak eta txanpona ere desberdinak dira.

**Eta klaseetan?**

Klasean ere alde handia nabaritu dugu. Erasmuseko ikasleak ez gaituzte bertako ikasleekin nahasten, eta jende guttiko klaseak izaten dira, bortz-hamar pertsonakoak. Gainera, klaseak motzagoak izaten dira eta zenbait ikasgaietan bi klase egun daude bakarrik lauhileko guzian.



**Txekiaz gain, bertze herririk eza-gutzeko aukera izan duzu?**

Bai, egia erran kokapen arras ona dugu hemen eta hainbat leku ikusteko aukera eman digu: Austria, Polonia, Hungaria, Turkia, Kroazia eta laster Jordania.

**Nolako esperientzia izaten ari da?**

Ikaragarria, edozeini gomentatuko niokena. Hemen sortzen diren harremanak arras indartsuak dira, egun guziaz elkarrekin pasatzen baitugu. Esperientzia akitzeak eta he-

mengo jendeaz urruntzeak pena handia ematen dit, baina gogo handia dut etxera bueltatzeko eta familia eta lagunak ikusteko.

**Zure asmoak epe motzera?**

Momentuz, udan lan egitea eta ikasketak akitzea. Gainera, hizkuntzaren baten titulua atera eta boluntariotza bat egin nahiko nuke.

**Eta epe luzera?**

Gizarte hezitzaile gisa lana aurkitzea eta bidaiatzen segitzea gustatuko litzaidake.

1951tik  
**Casa Cambra**  
 Ientzeria-etxea  
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak  
 Mantelak  
 Kuxinak  
 Edredoi nordikoak  
 Ohe estalkiak  
 Maindireak  
 Toailak  
 Edredoi-azal nordikoak

**Bilduma berria**



## IRAKURLEAK MINTZO

### 'Sorionekuak'

**ANE ESLAVA, REYES ILINTXETA, HAIZEA LIZARBE ETA IBAI SUESKUN**  
SORIONEKUAK HERRI DINAMIKAKO TALDE SUSTATZAILAREN IZENEAN

Sorionekuak [euskararen aldeko dinamika herritarra] urtarrilean aurkeztu genuenetik, hazten eta zabaltzen joan den egitasmoa izan da honakoa; hilabete hauetan, beste hainbat eta hainbat herritarrek ere lekukoa hartu dute, denok baikara *sorionekuak*. Euskararen aldeko alea jarri dute hamarnaka eta hamarnaka herritarrek, Nafarroa osoko lagunek, haien herri eta zonaldeetan. Argazki herritarrak antolatu, materiala saldu, koreografia prestatu, kanta egin, dantzak, txangoak, aurkezpenak eta abar luze bat.

Manifestuan esaten dugun bezala, guk ez dugu euskara kezkarakin lotu nahi. Telebisita piztu eta konturatu gabe geure burua euskaraz gozatzaren harrapatu nahi dugu. Ez dugu ahaleginarekin bakarrik lotu nahi. Erosketak egitera joan eta kezkarik, beldurrik eta lotsarik gabe euskaraz mintzatu nahi dugu parekoarekin. Euskaraz blaituta bizi nahi dugu, akaso, euskarari buruz gehiegi hitz egin gabe. Zorioneko izan nahi dugu, 2023ko *sorionekuak*, etorkizunari segida eman nahi diogulako.

Horregatik ekainaren 10a egun berezia izanen da. Iruñean, Nafarroaren bihotzean, euskararen etorkizunari festa giroan ongietorri erraldoia emanen diogu. Egun horretan euskararen aldeko taupada indartsua sentitzea nahi dugu Nafarroaren erdi-erdian. Irulegiko eskuaren aurkikuntzak zerbait erakutsi badigu, hori izan da: Nafarroa da euskararen lurraldea. Euskara ez da inondik heldu, hemen zen eta izanen da. Aurkeztu genuen abestian esaten den bezala, «Ez al da arraroa zorionik gabe Nafarroa?». Euskara historia luzea duen hizkuntza da, baina, batez ere, etorkizun oparoa edukiko duena.

Eta horretarako, Nafarroa osoko herritar, herri, eskualde eta eragileei dei egiten diegu haien herrietako jai, ohitura, ekimen eta kultur egitasmoak egun horretan Iruñera ekar ditzaten: herriko zapia, txaranga, mozorro, jantzi bereizgarri, kultur talde, aldarri edo dena delakoa. Bihur dezagun Iruñea euskararen aldeko koloretako eztanda, ospakizun erraldoia, festen festa.

Norabide horretan, Nafarroa osoko hainbat herritarren atxikimendua jaso du manifestuak eta ekainaren 10erako deiak azken asteetan.

Egun osoko egitaraua izanen du ekainaren 10ak, goizetik hasi eta arratsaldean

eginen dugun herri mobilizazioa. Azken hau Antoniutti parketik abiatuko da 17:30ean. Mobilizazioan euskararen alde pauso bat aurrera eman nahi dugu: gurekin batera urrats hori egiteko prest zaudeten eragile sozial eta politiko orori deia egiten dizuegu, dinamikarekin bat egin dezazuen eta euskararen aldeko bidea batera egin dezagun. Hori da *Esku bat* abestiaren funtsa, euskararen aldeko bidea elkarrekin egiteko deia. Eta bide horrek behar duen ezinbesteko soinua banda, melodia. Gure

eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu euskararen alde pauso bat aurrera eman zuten partehartzaile guztiei. *Sorionekuak* gu!

### Zuzenketa

#### TTIPI-TTAPAKO ERREDAKZIOA

Azken TTIPI-TTAPA aldizkariko denborapasetan, hitz gezidunetan akats bat agertu zen. Argazkian ageri dena Naroa Elizalde Etxekolonea da. Zubietarra da, ez iturendarra. Barkatu eragozpenak, eta bereziki Naroari eskatu nahi diogu barkamena.

## GOITI ETA BEHEITI



UTZITAKOIA

## Emakumeen baratzean txikizioak



Duela aste batzuk txikizioak egin zituzten Arantzako Emakumearen Memoriaren Baratzean. Isilaraziak izan diren emakumeen ahotsei tokia egiteko sortu zuten eta tristea da gero halakoak ikustea...

### IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

# Zaindu maite duzun hori...

## Zein da zuzena?

\* Izartxoaren dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

## Eta erdiak ala t'erdi?

Euskaltzaindiak arautu duenez, egokia da apostrofoa erabiltzea agur t'erdi esapidea adierazteko. Baina ordukin ez da apostroforik erabiltzen, ezta bertelako esapide hauetan ere: lau eta erdiko txapelketa, kilo eta erdiko patata, kilometro eta erdi ibili...

Beraz:

- \*Hiru t'erdiak dira > Hiru **eta erdiak** dira
- \*Jaun-andreok, agur eta erdi > Jaun-andreok, **agur t'erdi!**

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

## Kalko ustelak

### \*Arropa ongi gelditzen zaizu? Ez!

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Zalantza-dantza lanean bildutako adibide bat ekarri dugu aldi honetan Euskararen Txokora: **\*Arropa ongi gelditu**. Gaztelaniaren kalkoa da.

- \*Atorra hori **hagitz ongi gelditzen zaizu**.
- > Atorra horrek **hagitz ongi/ederki ematen** dizu.


Gaztelanizko quedar bien esapideak hainbat adiera ditu euskaraz eta halaxe bilduak ditu Elhuyar hiztegiak:

- Liburuaren azala ongi gelditu da.
- Norbaitekin ongi gelditu nahi baduzu, botila ardoa eraman.
- Gorri ilun honek ederki ematen du.

## Bitxikeriak

Ekaitz Santaziliak sare sozialetan zintzilikatu duen Etxalarko aspaldiko testu hau bitxia iruditu zaigu. 1798koa da.

**Ea deszifratzen duzun!**



## «Bizikletan elikadura entrenamendua bezain garrantzitsua da»

**GORKA PRIETO BELLVER** UAE TEAM EMIRATES TXIRRINDULARITZA TALDEKO NUTRIZIONISTA

Laugarren denboraldia du Gorka Prietok UAE Emirates txirrindulari taldean nutrizionista gisa. Elikadura etengabe aldatzen den zientzia dela dio, eta ezinbertzekoa dela egunean egotea

### **A. LARRETxea** BERA

Nutrizio ikasketak egiten hasi orduko zeukan garbi Gorka Prietok kirolariekin lanean ari nahi zuela. Hasieran kontsultan denetariko kirolariak artatzen zituen arren, azken urteetan erabat murgilduta dago txirrindularitzan. Laugarren denboraldia du aurtengoa UAE Teams txirrindularitza taldeko nutrizionista gisa eta «hagitz kontent» dago. Urteko lasterketa garrantzitsuenetako baten atarian, Italiako Giroa hasteko egun gutti falta zirela elkartu da TTIPI-TTAPArekin bere sorterrian, Beran. Bertan da egun hauetan lanean.

### **Nondik heldu zaizu nutrizioaren inguruko interesa?**

Batxilergoa bukatzen ez nekien zer egin, eta matematikan, fisikan, kimikan... ona nintzenez ingeniarietza ikasten hasi nintzen. Hiru hilabete iraun nituen bertan eta utzi nuen. Aldi berean, nire lehengusina nutrizioa ikasten hasi zen Iruñean. Berak erakutsitakoa gustatu zitzaidan, ni ere hori ikasten hasi nintzen eta gustatu zitzaidan. Garai hartan, gainera, dieta egiten hasi nintzen, eta gustuko nuen egiten ari nintzena.

### **Hasieratik zenuen argi kirolariekin lan egin nahi zenuela?**

Bai. Nire familian beti izan dira kirolariak, bizikletan ibiltzen dira nire osaba guztiak, baita aita eta aitaxi ere. Betidanik gustatu izan zait kirola.

### **Eta argi zenuen txirrindulariekin lan egin nahi zenuela?**

Ez, hasieran mota guztietako kirolariekin egiten nuen lan. Baina azkenean zortez, edo hala etorri delako, txirrindulariekin bukatu dut eta hori da gehien gustatzen zaidana.

### **Euskadi-Murias taldean hasi zinen. Nola iritsi zinen bertara?**

Xabier Murielen bitartez sartu nintzen, eta bi urtez ibili nintzen. Azken urtean erran ziguten hurrengo urtean taldeak ez zuela segituko, eta hor zortea izan nuen Josean Fernandez *Matxin* taldeko manager eta kirol zuzendariaren bitartez UAEn sartzeko. Elkarrizketa batzuk egin, nire pentsamendua eta nire lan egiteko modua azaldu eta lanerako hartu ninduten.

### **Salto handia izan da Euskadi Muriasetik gaur egun mundu mailako talde onenatariko batera pasatzea?**

Bai. Euskadi Murias talde txiki bat zen, ez zeukan aurrekontu haundirik. Eta orain ikusten da UAEn bertze maila bat dagoela. Gainera gaur egun, munduko ziklistarik onena, Tadej Pogacar dago gure taldean.

### **Zein da nutrizionista baten lana horrelako talde batean?**

Nutrizioarekin zerikusia dudana dena egiten dut: protokoloa

zehaztu, orduko zenbat jan behar duten, eguneroko entrenamenduaren arabera eta lasterketan jan beharrekoa... Lan aunitz egiten dut taldeko sukaldariekin, eta horren arabera zehazten diot txirrindulariari zenbat jan otorduetan.

### **Eta zein da zure metodologia?**

Plataforma bat dugu lanerako. Bertan entrenatzaileek entrenamenduak sartzen dizkiete txirrindulariei, eta horren arabera zehazten dut nik bakoitzak zer jan behar duen, daukagun helburuaren arabera. Batzuek pisuagaldu behar dute, bertzeek irabazi, mantendu... Horren arabera planifikatzen zaizkie eta bidaltzen zaizkie dieta diferenteak eguneroko.

### **Orduan eguneroko elkarlana izan duzue mediku, prestatzaile, fisioterapeuta eta gainerako taldekideekin, ezta?**

Bai. Prestatzaileekin gehien bat, eta baita txirrindulariekin ere. Laguntzaileekin ere ibiltzen gara, txirrindularien lasterketako bidaietan zer paratu behar duten errateko: lasterketaren hasieran bizikletan zer janari sartu, gelak zer puntutan paratu...

### **Zein da nutrizionista bezala zure lanaren helburua?**

Txirrindularien errendimendua eta errekupeazioa ahalik eta onena izatea.

### **Eta nolako da txirrindulariekin egunerokoan duzun harremana?**

Ez naiz egunero egoten. Aunitz solastatzen naiz beraiekin jakiteko nola dauden, pisua nola duten, nola sentitzen diren, janariarekin nola dabilzan... Kontaktu zuzena izaten dut. Batzuekin egunero egoten naiz goizean eta arratsaldean, eta bertzeekin astero, bertze batzuekin hamar egunetik behin... Nortasunaren eta beharren arabera aldatzen da harremana. Baina hori da egin behar dena elikadura plana ahal bezain luzaz betetzeko.

### **Zorrotza izatea egokitzen zaizu?**

Zorrotza izan behar denean bai. Tourra prestatzen adibidez, nahikoa zorrotza izaten naiz, baina denboraldi hasieran, azaroan edo abenduan ez dago kontrol hori, oraindik denbora aunitz gelditzen delako. Denboraldiko unearen arabera aldatzen da hori.

### **Egun hauetan ari dira jokatzeko Italiako Giroa. Nolako da, adibidez, Giroko etapa bateko txirrindulari baten egun osoko menua?**

Lehendik planifikatzen den zerbait da etapa bakoitzaren profilararen arabera. Entrenatzailearekin aitzinetik suposatzen dugu txirrindulari bakoitzak zenbat energia beharko duen etaparako, etapan gas-tatuko dituen watten arabera. Mendiko etapa batean, adibidez, zehaztua dugu, zenbat karbohidrato hartu behar dituen txirrindulari batek eta berak aukera aunitz izaten ditu hartzeko, baina zehazten den kopurua hartu behar du. Berdin du ogia izan edo porridgea, baina zehaztutako kopurua hartu behar du. Etapan ere berdin. Etaparen profilararen arabera duen potentziaren arabera erraten diogu zenbat karbohidrato hartu behar dituen orduko. Eta behin etapa bukatuta beraiekin solastatzen dut, izaten ahal delako aurreikusitakoa ez gastatzea faktore au-

«**HELBURUEN ARABERA PLANIFIKATZEN DIRA DIETAK**»

«**KONTAKTU ZUZENA IZATEN DUT TALDEKO TXIRRINDULARIEKIN**»



nitzengatik: ezin izan duelako jan, hotza duelako eta ez duelako jateko gogorik... Ikusten dugu zenbat jan duen etapan eta gero etapa ondorengorako ditugun errekupeartzeko jakiak jaten dituzte. Afarirako, etapan egindako watten arabera doitzen zaio afaria.

#### **Eta nolakoa da adibidez zure lan egun bat Italiako Giroan?**

Lehenengo sukaldariarekin egoten naiz zer prestatu duen ikusteko. Berarekin prestatzen ditut gauzak, eta gosarian txirrindulariekin egoten naiz, eta egin beharrekoa erran, eta betetzen duten ikusten dut. Gero, beraien errekupeazio jakiak prestatzen ditut, sukaldariak prestatutakoak hartu eta autobusean uzten ditugu gerorako. Lasterketa aitzinetik zerbait jateko prestatzen diegu, eta bakoitzari berea ematen diegu. Etapa hasi aitzinetik badaki bakoitzak zer jan behar duen, eta rolaren arabera, bakoitzak egin beharrekoa zehazten dugu. Eguraldiaren arabera ere prestatzen dugu zer jan, ez baita gauza bera 30 gradutan egon edo euria egin.

#### **Eta lasterketa hastean?**

Autoarekin joaten naiz txirrindulariei bidioiak eta jatekoak ematera zuzendariak zehaztutako puntuetara. Hori egitean, autobusera joan eta sukaldariak prestatutako janari guztia ateratzen dugu. Bertan, txirrindulari bakoitzarekin egoten naiz zenbat jan duen ikusteko, eta horren arabera kalkulatu dut afarian zenbat jan behar duen.

#### **Txirrindulariek izanen dute dietaren barrenean plazer txikiak hartzeko aukera, ezta?**

Bai, beti dago horretarako tartea. Lasterketa bat bukatzen denean beti izaten dute zerbait berezia jateko. Dena ez da milimetroan neurtzen eta pisatzen, beren egunak dituzte nahi dutena egiteko. Tourrean gaudenean ere izaten dugu egunen batean pizza edo hanburgesa. Hori egiten ahal da baina osagai onekin, dena ez da beti izango arroza eta pasta. Gure



UAE Team Emirates taldean hagitx gustura dago Gorka Prieto nutrizionista. TTPI-TTAPA

elikadura ez da aspergarria. Zortez sukaldari hagitx onak daude, eta errezeta aunitz ditugu: kinoa, pasta mota aunitz, saltsa pila bat... Janari hagitx ona eta dastagarria egin daiteke. Duela 10-15 urte hori izaten zen, pasta eta arroz zuria bakarrik, baina aldatu da. **Horrek laguntzen du denbora ohitura onak mantentzen?**

Bai. Nahi duguna da dietarekiko atxikidura izatea. Guk ere badugu pasta eta arroz zuria batzuei hori gustatzen zaielako, baina aukera aunitz izaten dira.

#### **Nola kudeatzen duzue horrelako lasterketa luzeetan txirrindulariek txakalaldirik ez izatea?**

Gaur egun ez dira gertatzen txakalaldiak, dena pentsatua

dagoelako. Hori ez da gertatzen, puntu pila dituztelako bidoiekin, gelek... Hagitx arraroa da horrelako zerbait izatea gaur egun dena milimetroara neurtua dagoelako: entrenamendua, nutrizioa, taktika, aerodinamika... Aerodinamika hagitx hagitx garrantzitsua da, materiala ere bai.

#### **Punta puntan dabilzan txirrindulariak dituzue taldean. Nutrizioa bada beren errendimendu onaren arrazoietakoa bat?**

Bai, zati bat da. Auto bati gasolina ematea bezalakoa da, hori gabe ez baita ibiltzen. Pogacar munduko onena da, bera salbuespen bat da, baina hagitx garrantzitsua da zenbat jaten duten, eta zer janari jaten duten errendimendurako.

#### **Elikadurak goi mailako ziklismoan zenbateko garrantzia duela erranen zenuke?**

Gero eta gehiago. Talde bakoitzak dauka nutrizionista bat, eta kasu batzuetan baita bi edo hiru ere, eta hagitx figura garrantzitsua da. Entrenamendua bezain garrantzitsua da.

#### **Eta noiztik ematen zaio hainbertzeko garrantzia?**

Nik uste dut azkeneko bortz urteetan izan dela boom hori nutrizioa eta kirolaren artean. Orain, futbolari guztiek edo talde guztiek daukate nutrizionista, ziklismoan ere bai, nik uste kirol guztietara ailegatzen ari dela.

#### **Zer ikertu badago oraindik?**

Bai, beti ari dira ikerketa berriak egiten, eta beti moldatzen dugu

→ metodologia ikerketen arabera. Zientzia bat da eta dena aitzineratzen ari da.

**Kirolean ere ezagunak dira elikadura portaeraren nahasmenduak. Nola kudeatu daiteke hori?**

Guk zortez ez daukagu inolako arazorik horrekin. Garrantzia handia ematen diogu pisuari, eta zorionez guk ez dugu ziklistarik inolako arazorik duenik. Bertze kirolean, gimnasia eta adibidez ohikoagoa izaten ahal da.

**Goi mailako ziklismoaz gain, berzte mailatan elikadurari garrantzia handiegia ematen zaio?**

Bai. Orain jubeniletan hasita hasten dira entrenatzaileekin, nutrizionistekin... Dena aurreratzen ari da azken urteetan. Ez dakit ona edo txarra den denek nutrizionistak izatea. Dena dago neurtua potentzio-metroekin. Nire ustez sobera goiz da denarekin hasteko, baina, gaur egun denek daukate.

**Gero eta lehenago hasten dira?**

Bai. Nik uste horren ondorioz ikusten ditugula gero eta txirindularitzako izar gazteagoak. Pogacarrekin, adibidez, lehenengo tourra 21 urte zituela irabazi zuen. Eta nik uste dut horrek ere eragina daukala. Lehen ziklismo profesionalera 23-25 urterekin pasatzen ziren aunitzetan, eta gaur egun adin hori profesional hasteko zaharra dela ematen du, aunitz 17-18 urterekin pasatzen direlako.

**Beran zaudela egin dugu elkarriketa, baina ez zara beti hemen egoten. Urtean zenbat egun ematen dituzu etxetik kanpora?**

100 eta 140 egun artean ematen ditut kanpoan, eta gustatzen zait. Kanpoan nagoenean, nire taldea familia bat bezalakoa da, giro hagitz ona dugu, eta lanera gustura joaten naiz taldea ere hagitz ona delako.

**Punta puntan dabilzan txirindulariekin aritzen zara lanean. Presio handia sentitzen duzu?**

Ez, presioa ez da. Lasterketa batera joaten zarenean bada-kizu munduko lasterkeririk onena zure taldean dagoela, eta estres puntu bat bai badu-



UAE Teams taldeko nutrizionista izateaz gain, doktoretza ere egiten ari da.

zu emaitza ona lortu nahi duzulako.

**Kanpotik zuen figuran gero eta arreta gehiago paratzen dela iruditzen zaizu?**

Azkeneko urteetan gero eta talde gehiagok nutrizionista dutenez, eta elikadurari garrantzia gehiago ematen zaionez geroz eta gehiago ateratzen da prentsan, bai.

**Doktoretza egiten ari zara EHUn.**

Bai, baina taldean egonda ez dut denbora aunitzik. Ikerketak egin ditut zer faktore fisiologiko aldatzen diren nutrizio mota diferenteen arabera ziklistetan, eta hori gero lanerako erabili dezaket. Ikerketa betidanik gustatu izan zait, baina, orain zoritxarrez ez dut denbora aunitz egiteko. Zientzia bat da nutrizioa eta ezin zara geratu duela 10 urte ikasitakoa egiten. Dena aldatzen da, eta horregatik izan behar duzu ikerketa profila ere. Beti birziklatzen aritu behar gara.

**Taldean garrantzia ematen diozue horri, ezta?**

**«100 ETA 140 EGUN ARTEAN EMATEN DITUT URTERO ETXETIK KANPO»**

Bai. Gure errendimendu arduraduna Iñigo San Millan da, munduko ikerlari onenetako bat. Zortea dugu arduradun denak daudelako ikerketan sartuta.

**Ikerketa horien ondorioak aplikatzen dituzue?**

Nik uste ondorioak epe luzera ikusten direla, baina egunero koan aplikatu ditzakegula batek eta bertzeak egindako ikerketak. Bakoitzak dauka bere metodologia, baina denak gaudela ikerketan sartuak.

**Badira lau urte UAEn hasi zinela. Egindako lanaren zer balorazio egiten duzu?**

Hagitz hagitz ona. Hasieran kostatzen zaizu taldean sartzea, aldaketa txikiak egiten dituzu, baina aurten jada hiru urte pasata, hau laugarrena da, ikusten duzu zure lan metodologia barneratua dagoela ziklista guztietan eta baita taldean ere. Zortea daukat nire taldean hagitz barneratua dagoela, eta nire taldeko arduradun guztiek estimu eta kontu

**«TALDEAN ESTIMU ETA KONTU HAUNDIAN DUTE NIRE LANA»**

haundian daukatela egiten dudana. Niretzat hagitz baliagarria da. Egiten dudana lanean sinisten dute.

**Hasieran errezero gehiago zuten?**

Ez, errezerorik ez, baina berria izanda ezin duzu dena urte batean aldatu, pixkanaka aldatuz joaten zara. Orain hagitz barneratua dute denek eta txirindulari guztiek betetzen dituzte nire pautak. Berriak etortzen direnean lanean nola egiten dugu erakutsi eta denek metodologia segitzen dute. Erraza da, denek barneratua dutelako.

**Eta zein dira zure asmoak etorkizunean?**

Ez diot etorkizunari begiratzen. Taldean hagitz kontent nago, dagoen talderik onena da dagoen jendearengatik, giroarengatik eta txirindulariengatik. Non ikusten dudana nire burua? Ba leku berdinean. Ez dut pentsatu ere egin. Noizbait doktoretza bukatu nahiko nuke, hori bai.

**Nutrizioan hasi zinenean gaur egun UAEn egonen zinela pentsatzen zenuen?**

Ez. Horrela suertatu da, eta zortea izan dut, baina nik uste dut egindako lanagatik ere badela. Lanari ordu aunitz eskaintzen dizkiot. Ez da ordu-tegi bat duen lana, beti eskuragarri egon behar duzu. Txirindulari batek goizeko zazpietan deituko dizu, bertzeak gaueko hamaiketan... Eta ez dago astebururik, lasterketak larunbatetan eta igandetan izaten direlako. Baina niri hori ez zait kostatzen.

**Lasterketetan presente ez zauden egunetan ere tokatzen zaizu lan egitea?**

Bai, lehendik prest uzten dut, baina ez zait leku denetara joatea tokatzea. Ezinezkoa da. 100 eta 140 egun bitarte egiten ditut lasterketan, gehienak etapa bat baino gehiago dituzten lasterketak dira: Italiako Giroa, Frantziako Tourra eta Espainiako Vuelta, Euskal Herriko Itzulia, Kataluniako Itzulia... Urtearen arabera aldatzen da egutegia.



Marta Indart Elizondo Doneztebeko Mendaurre Institutuko irakaslea da. TTPI-TTAPA

## «Senegaldarren balioak izugarriak dira eta aunitz dute emateko»

**MARTA INDART ELIZONDO** SENEGALEN IBILI DEN DONEZTEBARRA

Duela urte batzuk Senegalgo haurrei alfabetatzeko klaseak ematen aritu zen Indart. Lau urte eman zituen halaxe. Aurtan, berriz, hango bi ikastetxetan ibili da. Senegaldarren balioak nabarmendu ditu

**G. PIKABEA** DONEZTEBE

«Azala zuria edo beltza izan, denak pertsonak gara». Denaren gainera horixe izan da Marta Indart Elizondo doneztebarrak nabarmendu nahi izan duena. Ofizios Mendaurre Institutuko frantses-irakaslea da, baina hortik aparte, lotura berezia du Senegalekin. Lagun batekin egindako bidaiak ireki zion atea, eta ondoko lau udatan haurrak alfabetatzen aritu zen Gobernu Kanpoko Erakunde batekin Senegalen. Aurtan, berriz bueltatu da *Teranga* edo jendea eskuzabaltasunez hartzeko duen gaitasunagatik ezaguna den herrialdera. Senegalgo bi ikastetxetan eskolak ematen ibili da eta Mendaurre

Institutuan ere gaia lantzen aritu dira. Esperientzia aberasgarria izan dela aitortu du; eta senegaldarren balioak gorai patu ditu. Orain, hasitako bideari segida ematea izanen da erronka.

**Aspaldiko harremana duzu Senegalekin. Zerk erakarrita joan zinen lehenbiziko aldiz?**

Barrenetik atera den zerbait izan da. Bertze herrialde bat izaten ahal zen, baina hemen senegaldar batzuk ezagutu genituen eta Senegal izan zen. 2009an edo 2010ean joan nintzen lehenbiziko aldiz, hemen bizi zen senegaldar baten etxera. Baina ordurako garbi nuen Afrikan, kasu honetan, Senegalen, lan egin nahi nuela. La-

gun horren emaztearen anaiak Village Pilote Gobernu Kanpoko Erakundearekin lan egiten zuen eta berarekin harremanetan jarri eta hurrengo udan berriz bueltatu nintzen. Lau urtez, udan, Gobernu Kanpoko Erakunde horrekin aritu nintzen.

**Haurrak alfabetatzeko eskolak ematen aritu zinen...**

Bai. Gobernu Kanpoko Erakunde horrek karrikako hau-

**«BERAIEN ABERASTASUNA HAN UTZIKO BAGENU...»**

rrekin lan egiten du, eta ni joaten nintzenean hango irakasleak oporrak hartu eta nik segitzen nuen lanean. Beti nerabeekin egin izan dut lan, eta harat joan aitzinetik ttikiei alfabetatzen erakusteko pixka bat ikasten aritu nintzen. Otorduak eta gaua pasatu, dena aterpe batean egiten zuten, eta helburua gero beraien familiengana bueltatzea zen.

**Zer moduzko esperientzia izan zen?**

Hagitx aberasgarria, nahiz eta beraien ez zidaten ulertzen eta nik ere ez beraien, ez baitakite frantsesez. Azken batean, hango irakaslearen lanarekin segitzea zen helburua, eta horretan saiatu nintzen. Laguntza ematea baino gehiago partekatuta egin genuela erranen nuke, nik ere beraien aunitz ikasi bainuen. Segur aski izan dudana esperientzia hemen islatu izanen da gerora, ni ere aldatzen joan baina bizipen horiekin. **Zer eragin izan dute zuegan Senegalgo egonaldiak?**

Nola bizi diren ikusita, hainbat balio eman dizkirate. Orainaldia bizi dute, ez dute bertze aukerarik. Etorkizunean ez dutela pentsatzen erraten dugu, baina nola pentsatuko dute? Orainean bizi dira, eta horrekin aitzinera egin eta tokatzen zaiona onartzen dute. Aunitzetan zein guttirik zein zoriontsu bizi diren erraten dugu, baina ez da egia. Askigustura aldatuko lukete egoera, baina baldintzak ez dira batere errazak.

**Village Pilote erakundearekin lau udatan ibili ondotik, aurtan berriz Senegalekin duzun loturari segida eman diozu...**

Bai, lauzpabortz urtez joan gabe egon naiz eta aurtan berriz han izan naiz. Banuen aspalditik nire irakasle lanarekin lotuta zerbait egiteko gogoia, eta aurtan tokatu da. Bi hilabetetarako soldatarik gabeko baimena eskatu nuen eta hilabete batez bidaiatzen eta hango dantzak, erritmoa eta perkusioa ikasten, eta bertze hilabete batez bi institututan ibili nintzen; Barkedji lizeoan Ibra Sow gazte- →

→ lania-irakaslearekin lanean, eta Debi-Tiguette kolegioan Amadoy Thiam gaztelania- eta frantses-irakaslearekin.

**Zertan aritu zinen?**

Ikastetxeetan klaseak eman nituen eta eskolatik kanpo hainbat tailer egin genituen; Batean zein bertzean hagitz gai interesgarriak atera ziren. Debi Tiguette kolegioan, adibidez, ezkontza goiztiarraren inguruan aritu ginen. Eta horren harira inportantea iruditzen zait zenbaterainoko kontzientzia duten erratea, ez dute halakorik nahi. Barkedjin, berriz, lizeoan ez dute urik, ez edateko, ezta komunean ere, eta hori larria da. Berriki suprefetari ura eskatuz martxa baketsua egin dute. Egutero 43 gradutik goiti dituzte, eta 200 edo 300 metrotara dauden etxeetara joan behar dute ura eske. Irakasleek kontatu didatenez, 110.000 bat euroko aurrekontua duten lanak egin beharko lituzkete eskolara ura bidertzeko. Diru aunitz da.

**Nola bizi dira?**

Hilabete batez irakasleekin bizi izan nintzen eta horixe kontatzen ahal dizut. Bertatik bertara ikusita badakit baldintza hagitz gogorretan bizi direla. Jatekorik ez zaizu faltako, hagitz



Marta Indart Barkedjiko bere barrideekin. Peul etniakoak dira.

barneratua baitute dutena partekatzea, baina Barkedjin, izugarrizko beroa dute, martxoan hasi eta zortzi hilabetez 43 gradutik goiti izaten dituzte eta arratsetan ez du freskatzen. Nik

logelan ezin izaten nuen lorik egin eta terrazara joan behar izaten nuen. Baldintza horietan bizitzea gogorra da. Gainera, ni epe baterako joan nintzen, banekien bueltan etorriko nintze-

la, baina beraien egunerokoa hori da eta gaizki pasatzen dute. **Joan aitzinetik Mendaur institutu-ko ikasleekin ere gaia landu zenuen...**

Bai, joan aitzinetik DBHko lehenbiziko eta bigarren mailako ikasleekin gaia lantzen aritu ginen. Itziar Paternain Valencia ikastetxean dagoen bertze frantses-irakaslea, orduan praktikak egiten ari zen Naroa Telletxea Mindegia ikasle ohia eta hirurok landu genuen. Hain zuzen, Naroa izan zen Senegalen nintzela nire ordezkapena egin zuen irakaslea. Helburua lotzen gaituenaz erden ohartzea da. Denak pertsonak gara, eta hori da oinarria eta nire helburua. Hortik abiatuta komiki bat egin genuen gure egunerokoa egiten dugunaren berri emanez eta hori Senegalera eraman nuen. Hangoen egunerokotasunarekin konparatuz, badira desberdintasunak, baina baita bat datozen ezaugarriak ere. Malerrekako herriak aurkezteko proiektua ere egin genuen, hemengo dantzak, errezetak... Ni Senegalen nintzela, inauteriei lotutako antzerki bat ere egin zuten hemengo ikasleek. **Kulturartekotasunaren inguruan sentsibilizatzeko eta arrazakeriaren kontrako prebentzioa lantzeko**

**«Aberasgarria izan da sozialki eta pedagogikoki partekatu duguna»**

**IBRA SOW** SENEGALGO BARKEDJI LIZEOKO IRAKASLEA

«Hagitz hartu-eman aberasgarria izan da, bai pedagogikoki partekatu duguna, baita sozialki egin duguna ere. Proiektu honek segida izatea nahi genuke, eta aukera izanez gero, instituzioen bidez formalizatzea; ikasleek gozatuko lukete. Akaso noizbait Doneztebeko ikasleak Senegalera etor daitezke gu bisitatzera, eta nola lan egiten dugun eta nola bizi garen ikus dezakete. Eta gauza bera egin dezakete hemengoek Doneztebera joanez. Hagitz esperientzia aberasgarria izanen litzateke»



**«Lankidetzaz lantzea gustatuko litzateke»**

**AMADOU THIAM** SENEGALGO DEBI-TIGUETTE KOLEGIOKO IRAKASLEA

«Martaren egonaldia hagitz garrantzitsua izan da guretako, alde batetik, gure ikastetxera etorri den lehenbiziko Europako herritarra izan delako, eta bertetik, lanerako bertzelako metodoak ezagutzeko aukera eman digulako. Hagitz kontent gelditu ginen berak emandako tailerrekin, eta bertzeak bertze, hemen delikatua den gai bat landu genuen: behartutako ezkontza goiztiarra. Aldi berean, ikasleek duten talentua praktikan paratu genuen. Eskerrik asko, Marta, eta espero dugu lankidetzaz lantzea».



### Nafarroako Gobernuaren programan ere parte hartu duzue...

Bai, musikak duen potentziala probestuz, arrazakeriaren kontra prebentzioa lantzea da programaren helburua. Horren harira, Txus San Vicente Doneztebeko institutura etorri zen. Senegalera joatekoa nintzela aipatu nion eta hango eta hemengo ikasleen artean kanta bat egitea interesgarria iruditu zitzaion. Hori bai, Senegalgo ikasleekin hasita, oinarria beraiek eginda. Horretan aritu nintzen Senegalgo gaztetxeekin. Eta Mendaur institutuko ikasleek gauza bera egin dute. Bildutako material guztia Txusi bidali diogu eta hori lotzeko maiatzean edo ekainean bilduko gara berarekin.

### Bizimodu hobe baten bila Senegalgo herritar aunitzek uzten du sorterria. Sumatu duzu halakorik?

Bai, eta eskubide osoa dute. Nik ez dut inolako trabarik izan Senegalera joateko, nire pasaportearen erakutsi, nire hegaldia ordaindu eta arazorik gabe bidaiatu dut. Beraiek, ordea, ez dute halako erraztasunik. Bisa behar dute, bisa gobernuak ematen dute, eta hori lortzen ez dutenez, alde egiten dute, dakigun edo ez dakigun baldintzetan. Batzuetan bidaia horrek urteak irauten ditu, basamortua edo itsasoa zeharkatzea lortzen badute, noski. Eta zenbat hil diren Bidasoan...

### Nola ikusten dute Europa?

«Zer gauza on dituzue?», galdetzen nien hango ikasleei eta dena Europan dagoela erantzuten zidaten. Gauza pila dituztela erraten nien, baina jakitun nintzen egoera pribilegiatu batetik ari nintzela. Batez ere helduek argi dute ez dutela deus, dutena guk hartzen dugulako. Duten aberastasuna ez zaie ailegatzten.

### Eta hemengo ikasleek badute egoera horren berri?

Gaia aunitz lantzen dugu, eta etortzeko eskubidea dutela nabarmentzen diet. Hahatay Gobernu Kanpoko Erakundeko Mamadou Diak bi liburu argitaratu ditu. Horietako ba-



Indart Senegalgo ikasleekin.



Indart Senegalgo lagunekin.



Senegalgo ikasleak Mendaur institutuko ikasleei gutunak idazten.

ten aurkezpenean izan nintzen Iruñean, eta oroitzen naiz, hasieran Senegalgo herritarrak han gelditzearen aldekoa zela. Azken egonaldi honetan berarekin egoteko aukera izan dut eta dagoeneko iritziz aldatu du. Garbi du etorri nahi duenak horretarako eskubide osoa duela eta gainera baldintzan duinetan egin behar duela bidaia. Beraien aberastasuna han utziko bagenu, bertzelakoa izanen litzateke egoera. Injus-

tizia ikaragarria da; beraien lehengaiak erabiltzen ditugu eta ez diegu honat etortzen uzten.

### Gai horren harira kontzientziazteko behar handia ikusten duzu?

Bai, denongan. Sentsibilizazioa landu behar dugu, azal kolorea da diferentia duten bakarra eta ez diegu mesfidantzaz begiratu behar. Ni han zuri bakarra nintzen eta ez naiz sentitu mesfidantza horrekin. Denak pertsonak gara eta haiek

izugarriko balioak dituzte, aunitz dute emateko.

### Zer ekarriko zenuke handik honat?

Haien balioak. Han ez da inor bakarrik geldituko, beti talde baten parte sentituko da. Ikaragarriko balioak dituzte: umiltasuna, eskuzabaltasuna, errespetua eta bereziki jende helduari dioten errespetua, elkar zaintzeko duten gaitasuna, familiaren balioa, poza umorea, naturaltasuna... Eta gertatzen dena onartzeko duten gaitasuna ere nabarmenduko nuke. Horrek ez du erran nahi etsia hartu dutenik; ez, dutenarekin aitzinera egiteko duten indarra da. Horrez gain, artea aipatuko nuke. Artista aunitz daude, egurra lantzen dutenak, oihala lantzen dutenak, musikariak... Eta gauzak konpondu eta dena martxan paratzeko abilitate handia dute. Senegal *teranga* herrialdea izenez ezaguna da, eta *terangak* abegitsua erran nahi du, hospitalitatea.

### Baduzu bueltatzeko asmorik?

Gustatuko litzaidake. Baina momentuan arnasa hartzeko eta proiektu honi segida nola eman pentsatzeko denbora behar dut. Elkarlan honekin segitu nahi dut, baina ez dakit nola. Orain Txusekin hasi dugun tailer hori akitu nahi dugu, material horri forma eman, eta ondotik, ikusiko dugu. Badituzte kontu batzuk buruan eta kontzientziazioa beharrezkoa ikusten dut, baina ekintzetara pasatu nahi dut. Gauza aunitz dituzte, baina baita beharrak ere. Barkedjin, adibidez, ikasgela bakoitzean irakasle bakarrekin 70 bat ikasle daude, ez dute nahiko ikasgela, eta uraren arazoa ere hor dute. Horie aterabidea bilatzeko zer egiten ahal duan pentsatzen ari naiz. Zein mezu luzatuko zenuke? Norbait proiektu honetan parte hartzeko prest badago, modu batera edo bertzera bere ekarpena egin nahi badu, nirekin harremanetan jar dadila. Ez gaude denak egoera berean, eta egin dezagun zerbait, ekintzetara pasa gaitzen. Guk ere badugu erantzukizuna.

## 'Berako Oihua'-rako lanak bidaltzeko epea ireki dute

Ekainaren 9an bukatuko da lanak bidaltzeko epea, eta ahal dela formatu digitalean bidaltzeko eskatu dute

### A. LARRETxea

Berako bestetako programa-ekin batera, *Berako Oihua* aldizkaria kaleratu du Berako Udalak azken urteetan bezala. Eta aldizkarian publikatzeko artikulua bidaltzeko epea ere ireki dute. Ekainaren 9a izanen da lanak bidaltzeko azken eguna eta euskaraz zein gaztelaniaz bidaltzen ahal dira, nahiz eta euskarazkoek lehentasuna izanen duten. Lanak gehienez ere DIN A4 formatuko bi orrialdeko luzera izaten ahal du eta irudi edo argazki lagunduak joaten ahal dira. Jorrazten diren gaiak herriarekin erlazionatuak izan behar dute.

Gainera, ez dute onartuko pertsona edo talderen bat mindu edo iraindu dezakeen testurik, eta kasu horretan Berako Udalaketa Kultur Batzordeak testu horiek baztertzeko esku-

men osoa izanen du. Bi horiek ez dute zertan bat etorri behar aldizkarian argitaratutako iriziek.

Lanak bidaltzeko azken eguna ekainaren 9a, ortziralea izanen da eta [kultura@bera.eus](mailto:kultura@bera.eus) helbidera bidali behar dira, edota bertzela Kultur Etxera eramanez. Bigarren kasu horretan ahal dela formatu digitalean eramateko eskatu dute.

Testuarekin batera egilearen izen-abizenak eta nortasun agiria bidali beharko dira nahi-taez. Hauekin batera goitizena paratu ahal dira, baina, betiere izen-deiturak paratuz gero. Elkarrekin edota erakunde baten izenean idazten denean, horien zena paratuko da baina beti erakunde horren izenean norbanako batek sinatu beharko du.

## HAUTESKUNDEAK



EH BILDU  
**Aitor ELEXPURU EGAÑA**

2. Ines Matxiarena Aldalur. 3. Patxi Castillo Graziarena. 4. Lupe Mendigutxia Etxebeste. 5. Jose Esteban Agirre Zubieta. 6. Adela Arlegi Goienetxe. 7. Patxi Larretxea Lazkano. 8. Estitxu Pinatxo Olaziregi. 9. Angel Ponbar Sainz. 10. Maider Iantzi Goienetxe. 11. Kattalin Ezkerra Sobrino.



GEROA BAI  
**Jose Miguel GORRIA VICUÑA**

2. Manuel Castilforte Diaz. 3. Santiago Alzuguren Matxikote. 4. Maria Asuncion Rozas Errandonea. 5. Ines Elizondo Apeztegia. 6. Carlos Perez Marchal. 7. Carlos Martiarena Cordoba. 8. Maider Gorría Vicuña. 9. Marira Pilar Retege Ferrero. 10. Luciano Erkizia Azkue. 11. Ana Isabel Etxabari Arana.



HERRIRAKO  
**Jose Antonio OIARTZABAL IRIBAS**

2. Andoni Andueza Intxaurren. 3. Rakek Quiroga Tapia. 4. German Castillo Lazkanotegi. 5. Eva Martinez Gil. 6. Ekaitz Etxeberria Telletxea. 7. Ayda Jimenez Aviles. 8. Markel OIartzabal Elgorriaga. 9. Beatriz Franco Mugika. 10. Sonia Elgorriaga Martiarena. 11. Arantxa Altzugarai Barrios.



PP  
**Alberto GIL ZUBELDIA**

2. M<sup>a</sup> Del Carmen Sordo Noriega. 3. Jorge Gonzalez Fernandez-Valderrama. 4. M<sup>a</sup> Concepcion Perez Del Castillo. 5. Manuel Nogales Sanz. 6. Rosa Paniagua Gartzia. 7. Jose Luis Olivares Conde. 8. M<sup>a</sup> Luisa Rodriguez Fuertes. 9. Aurelio Izquierdo Lopez. 10. Francisco Nieto Gartzia. 11. Amaya Landin Diaz De Corcuera

**LABEZAR**  
Astelehenerdik ortziraleara: 07:15etik aitzinera  
Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera  
948 631 076 • BERA



UPN  
**Josu IGOA IPARRAGIRRE**

2. Ricardo Lopez Perez. 3. Francisco Jabier Trigo Oubiña. 4. Estrella Rios Lopez. 5. Eva Osos Oskoz. 6. M<sup>a</sup> Eva Gascon Zuazu. 7. Jose Carlos Pastor Gregorio. 8. Begoña Del Villar Torrent. 9. Rafael Abad Callejas. 10. M<sup>a</sup> Rosario Rodriguez Ezkerro. 11. Myriam Noemi Gavilanez Velasco

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE  
Eramateko janaria  
astelehenerdik ortziraleara  
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

**JAIONE - GOKOTEGIA**  
Etxean egindako produktuak  
948 630 786 • Alzate, 21 • BERA

**PRIM, c.b.**  
Fisioterapia Zentroa  
K-STRETCH  
Etorri eta probatu debalde!  
San Esteban, 17 • T./F. 948 625 206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN  
Centro Prim regina tolosaechebare

**Jauzena**  
Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak  
Denda, 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jaurenabera@gmail.com  
Eguzki-panelen instalazioa eta dirulaguntzen gestioa

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
948 630 763 • Alzate, 17 • BERA

# Mendi Itzuliaren XV. edizioa eginen dute maiatzaren 21ean

Parte hartzaileek bi ibilbide izanen dituzte aukeran, 26 kilometrokoa edo 22koa

## A. LARRETXEKA

Agerra Mendi Taldeak antolatuta, Berako Mendi Itzuliaren XV. edizioa eginen dute maiatzaren 21ean, igandean. Parte hartzaileek bi ibilbide izanen dituzte aukeran: luzea eta motza.

Bi ibilbideak Agerra Mendi Taldearen egoitzatik aterako dira. Luzeak 26 kilometroko luzera eta 1.600 metroko desnibela du eta mendizaleek Manttale, Ibardin, Intzola, Iasolako Benta, Larhun, Lizuniaga, Idoiako lepoa eta Larretagaina mendiak igo behar dituzte, itzulia berriz ere hasitako lekuan bukatzeko.

Ibilbilde motza egiten dutenek, aldiz, 22 kilometro egin beharko dituzte oinez, 1.200 metroko desnibela osatuz. Ibilbide luzeak bezala, lehenengo Manttale, Ibardin, In-

tzola eta Iasolako Bentara arteko bidea egin beharko dute, baina Larhunera igo beharrean, Maletera jaitsiko dira. Bertatik Idoiako lepora eta Larretagainara igota, elkartean bukatuko dute ibilbidea.

## Izena emateko bi modu

Inskripzioa aitzinetik zein egunean bertan egiten ahalko da. Aitzinetik egin nahi dutenek, [inscripciones.nafarmendi.org](http://inscripciones.nafarmendi.org) helbidearen bidez egin beharko dute, eta egunean berean egin nahi dutenek 06:30ak eta 07:30ak bitartean. Federatuek 13 euro ordaindu beharko dituzte eta federatu gabeek, aldiz, 15 euro.

Irteera 07:30ean izanen da elkartearen egoitzatik, eta ibilbidea bukatutakoan parte hartzaileentzako jatekoa izanen da.



ARANTZA AGIRRE

## Azienda Feria eta Merkatua egin dituzte


Bi azoka izan dira azken egunetan herrian: apirilaren 29an herriko ganaduzaleek antolatuta Azienda Feria egin zuten. Maiatzaren 7an, aldiz, Barraskilo Gazte Taldeak eta Kiribil eskulangileak antolatuta, lehenengoz Merkaskilo merkatua egin zuten. Bi azoketan jende aunitz ibili zen.

## Musika izanen da protagonista asteburuan

Asteburuan musikak hartuko ditu karrikak. Larunbatean, Bera Kantarikoak aterako dira karrikara. Hitzordua 19:00etan paratu dute Illekuetan. Igandean, Katakua ostatuan Arima talde bizkaitarraren kontzertua izanen da 18:00etan. Sarraera debalde izanen da.

## Guztiok taldearen aldeko txapelketa solidarioa

Zelaieta futbol txapelketa solidarioa eginen dute maiatzaren 20an Matzadan. Infantil mailako Osasuna, Real Sociedad, Alaves eta Baztan Bidasoko selekzio bat ariko dira. Lortuko den diru guztia Bortzietako Guztiok elkartearen alde izanen da.



Mota guztietako tatuajeak egiten ditugu.  
Piercingak aurpegian eta gorputzean. Baita dilatazioak ere.  
Mikropigmentazioa:

- Bekainak egunero bikain eramateko era ona.
- Begietako eye-linerra egunerokoan denbora tarte horiek aurrezteko aukera.
- Ezpainak denborarekin galdutako bizitasuna berriz lortzeko teknika ederra.



Itzea, 1 - BERA - 671 32 55 76

# Bi milioi baino gehiago jaso ditu udalak lanak egiteko

Kanttonberrin ur sarea berritu eta zoladura aldatuko dute, eta lamotenean hasi eta Altzaterako zeharbidea berrituko dute

## TTIPI-TTAPA

Udalak hainbat obra aurkeztu zituen Nafarroako Gobernuako 2023-2025 Tokiko Inbertsioen Planerako dirulaguntzen deialdira. Laguntza batzuen ebazpenak kaleratu dituzte eta bi proiektu diruz lagunduko dituzte, eta bertze bat erreserban gelditu da, dirulaguntza jasozeko aukera handiarekin.

Ur sarea berritzea eta zoladura jartzeari dagokionez, Kanttonberri auzoko proiektua onartu dute. 1.264.884,82 euroko aurrekontua du inbertsio horrek. Illekueta auzoko inbertsioa erreserban gelditu da, baina, lehenbiziko postuan, beraz, diruz laguntzeko aukera anitzekin. 1.046.640,09 euroko kostua izanen du lan honek.

Zeharbideak zolatu eta urbanizatzeko obren atalean,

Iamotenetik (Eztegara pasealekuan) hasi eta Altzateko plazara arteko zeharbidea berritzea diruz laguntzea onartu dute. Irisgarritasuna ziurtatzeko, espaloiak berrituko dituzte eta ur, argi eta telekomunikazio sareak ere berrituko dituzte. Denera, 1.154.346,12 euroko inbertsioa aurreikusi dute.

Kanttonberri auzoko eta Altzateko zeharbideko lanak 2024-2025 urteetan egingen lirateke, eta Illekuetakoa, diruz lagunduz gero, 2027 urterako beranduenez bukatua egon beharko litzateke.

Udalak jakinarazi duenez, «nahiz eta lan hauek dirulaguntza handia izan, ez dituzte kostuak %100ean finantzatzen, beraz udalak ahalegin ekonomiko berezi bat egin beharko du, inbertsio hauek egiteko, kostu handikoak direlako».

## Berako Gazte Eguna egingen dute maiatzaren 27an

### A. LARRETXE

Azken aldizkarian aurreratu bezala, Barraskilo Gazte Taldeak maiatzaren 27rako gazte eguna antolatu du. Goizean hasi eta gauera bitarteko egitaraua izanen dute. Parte hartzaileei mahoizko galtzekin eta kamiseta zuriarekin joateko deia egin diete.

Besta 10:00etan hasiko da txupinazoarekin. Ondotik, 10:30ean, taldeka herri kirolak egingen dituzte. Kirolen ondotik, poteoa egingen dute Uraldea karrikan 12:00etan hasi eta 13:30ak bitartean. Ondotik,

14:00etan bazkaria izanen dute. Bazkarirako aitzinetik txartelak erosi beharko dira, eta horiek Errekalden eta Katakun paratuko dituzte eskuragai.

Bazkariaren ondotik, 17:00etan gazte jokoak egingen dituzte, eta 19:00etan hasita Gotxelektrotzarangak alaituko ditu karrikak. Eguna bukatzeko, 23:00etan Burutik taldearen kontzertua izanen da.

Goizeko poteoa eta arratsaldeko elektrotzaranga kenduta, gainerako ekintzak Toki Ona institutuko estalpean izanen dira.



Euskaltzaleen Topaguneak antolatutako azoka. ARANTZA AGIRRE

## Borborraldiaren akabaila besta egin dute herrian

### A. LARRETXE

Apirilaren 19an hasi eta maiatzaren 6an bukatu zen Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduaren Borborraldia ekimena. Goizean, urteko batzarra egin zuten Beralandetan. Orain arte egindakoaz eta etorkizuneko asmoez solastatu ondotik, Euskaltzaleen Topa-

guneak antolatutako Bidasoko euskararen eta kulturaren azokan parte hartu zuten. Azokan euskarazko 15 proiektu berritzaile aurkeztu zituzten, eta tartean Bor-borrek ere proiektua aurkeztu zuten. Musika, bertsolariak eta jan edatekoa ere izan zituzten azokan.



Herriko Etxean modu iraunkorrean egonen da erakusketa. UTZITAKOA

## Asier Gogortzaren Berako borden argazkiak Herriko Etxean paratu dituzte

### TTIPI-TTAPA

Asier Gogortza argazkilariak egindako herriko borden bilduma ikusgai dago dagoeneko Herriko Etxeko eskaileratant. Herri-lurretan dauden 55 borda ageri dira erakusketan eta mapa batean bilduta daude borda guzuen izen eta kokalekuak ere. Artzaintzak izan

duen gainbehera dela eta, borda horietako aunitz eroriak daude gaur egun, baina hala ere argazkilariak borda horien arrastoak ere bildu nahi izan ditu argazkitan. Sasiak hartuak edo erdi-desagertuak dauden borda horiek, hain zuzen, zapi zuri baten azpian babestuta ageri dira erakusketan.



# BIOTERRA



Ospatu gurekin Bioterraren  
hogeigarren edizioa,

ekainaren 2tik 4ra Ficoban

Urte berezia da Bioterrarentzat, produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren Euskadiko Azokarentzat. Bioterra osasun bikainarekin iritsi da ospakizun honetara. 19 urte hauetan azokan parte hartu duten 190.000 pertsona inguruk eta 2.200 enpresa erakusketari baino gehiagok hori adierazten dute.

Urte hauetan Bioterrak bere helburuak lortu ditu eta Estatuko iparraldeko eta Frantziako hegoaldeko erreferentziako azoka ekologikoa bihurtu da. Bioterra ezinbesteko hitzordua da, eta ingurumena errespetatzen duten produktuekin eta zerbitzuekin konprometitutako pertsonen eta enpresen komunitatea sortu du, egunez egun hazten ari dena.

**Bioterra esperientzia: erakusmahaiak, hitzaldiak, tailerrak, Bioterraza, Yoga day**

Bioterra 2023 ekainaren 2tik 4ra izango da Ficoban eta, enpresa erakusketari ugariz gain, jarduera eta hitzaldi eskaintza zabala izango du, planetaren iraunkortasunaren alde lan egin nahi duten bisitariarentzat.



Carlos Taibo irakasle eta egilea; Climabar, Belen Hinojar eta Carmen Huidobro bultzatzaileak; Fernando Valladares doktorea eta Marta Marcé nutrizionista dira **hitzaldi programako** izen nabarmenetako batzuk.

Bioeraikuntzari, eraginkortasun energetikoari, etxebizitza kolaboratiboei, barne giro osasuntsuei eta ekonomia zirkularrari buruzko dibulgazio hitzaldiak izango dira nagusi **Eraikiz Gunean**; kosmetika, zero hondakinak, emakumeen osasun naturala eta edertasun naturala, berriz, **Biobeauty - Zero Zabor** eremuan kokatuko dira.

Kefir beganoa, ashwagandha eta kurkuma hartzituta buruzko tailer bat, ogitarteko % 100 osasungarriak prestatzeko beste bat edo basa loreetatik hartzitutako limonada bat daude **Sukaldean** espazioko showcooking eta dastatze gastronomikoen proposamenen artean.

Programa familia osoari zuzendutako **tailerrekin** eta **Yoga Day** enblematikoaren gorputza eta burua entrenatzeko saioekin osatzen da. Bisitariak indarrak berritu ahal izango dituzte **Bioterrazan**, Ekolurrako produktu ekologikoen sorten **zozketetan** zortea probatu eta giroa alaituko duten **DJ**ak entzunez erlaxatu.

Eta ahalik eta jende gehienak Bioterra esperientziaz gozatzeko aukera izan dezan, **sarrera eta aparkalekua doakoak** dira.

[www.bioterra.org](http://www.bioterra.org)



## Zerbitzu Elkartearen Eguna larunbatean ospatuko dute

Komertzioak karrikara aterako dira egun osoan eta goizean txistulariak eta erraldoi eta buruhandiak ibiliko dira

### AITOR AROTZENA

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak, udalaren eta Nafarroako Gobernaren laguntzarekin, Elkartearen Eguna antolatu du lehen aldiz maiatzaren 20rako. Larunbatean 10:00etatik 19:00etara Lesakako Zerbitzuen Elkarteako komertzioak karrikara aterako dira eta eskulangileak ere izanen dira. 10:00etan txupinazoa botako dute eta, ordu berean, txistularien karrikabuelta abiatuko da. 11:30ean erraldoi eta buruhandiek txanda izanen da. Egun horretan egiten diren

erosketekin pintxoak debalde izanen dela elkartearen sartu berri diren lau ostatueta: Arrano, Koskilla, Zantzona eta jubilatuen ostatua.

Hain zuzen, ostatu horiekin eta elkartearen sartu berri diren bertze bi zerbitzuekin batera, Lesakako Zerbitzuen Elkarteak gaur egun 33 bazkide dituela aipatu digu Ainhoa Ordoki elkartearen presidentea. Berekin batera, Naiara Alberro, Iñaki Portu, Maite Marin, Ruth Vazquez eta Asier Etxepeteleku dira elkartearen batzordea osatzen dutenak.

## Xulufriren auto-zaintza saskia loar Oteizarentzat

Xulufriak Lesakako Sare Feministak antolatutako Xulubest egunean auto-zaintza saskia zozketatu zuten, baina ez zen saridunik agertu. Bigarren txandan loar Oteizari egokitu zaio (059 zenbakia).



## HAUTESKUNDEAK



EH BILDU  
Ladis  
SATRUSTEGI  
ALTZUGARAI




GEROA BAI  
Jose Luis  
ETXEGARAI  
ANDUEZA

2. Argiñe Ordoki Urkixo. 3. Gabriel Txoperena Altzugarai. 4. Uxue Royo Pozueta. 5. Eneko Fernandez Maritxalar. 6. Izaskun Rodriguez Maritxalar. 7. Pello Astiz Elberdin. 8. Rakel Deskarga Oiartzabal. 9. Lide Igoa Fontan. 10. Ibon Txoperena Elosegi. 11. Miren Etxepeteleku San Julian.

2. Ione Fagoaga Etxarte. 3. Jose Mari Portu Otxoteko. 4. Maria Victoria Gortari Aldabe. 5. Imanol Goienetxe Maritxalar. 6. Esteban Irazoki Irazoki. 7. Antonio Hidalgo Hidalgo. 8. Carlos Ubiria Portu. 9. Jon Ugutz Ormaetxea Berroeta. 10. Jesus Mari Castro Almandoz. 11. Esteban Etxebeste Apeztegia

## Eñaut Arburua bikain Gipuzkoako atletismo txapelketan

Irungo Bidasoa Atletico taldean ari den Eñaut Arburua Portugarri bigarren postua eskuratu zuen Gipuzkoako atletismo txapelketan, 220 metro hesidunetako infantil mailako finalean, apirilaren 29an Donostian. 30 segundo eta 27 zentesima behar izan zituen.



Eñaut Arburua ezkerrean.

## Sanferminetako kartel eta azal lehiaketara lanak aurkezteko azken egunak

Sanferminetako kartela eta programaren azala eta gibe-leko azala aukeratzeko lehiaketak deitu ditu udalak, herrian sortu edota bertan bizi direnentzat. Lanak udal bulegoetan aurkezteko epea ortzirale honetan, maiatzaren 19ko 13:00etan bukatuko da, lehia-

keta hauetan ohikoa den sistema erabiliz. Kartel nahiz azal lehiaketako irabazleek 250 euroko saria hartuko dute eta gibe-leko aldeko lehiaketakoak (6-12 urtekoek zuzendua), eskolako materiala erosteko 100 euroko txartela. Herri bozketak erabakiko ditu irabazleak.

**Euskal Kantu afaria**  
BANKAKO MENDITARRAK

**Maiatzak 27 Larunbata, 20:30ean**  
OLA SAGARDOTEGIARI (IRUN)  
(+34) 943 623 130

Sagardotegi menua 45€  
+ kafea eta kopa

**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

Bidaurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irun ☎ 943 63 45 36

**Ainhoa Altzuguren Mitxelena**

Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

# Legarbaratzetik Ziobiraino espaloia egingen dute

Albistur karrikako zati horretan ur-hodiak aldatu eta Alkaiagan saneamendu lanak egiteko dirulaguntza izanen du udalak

## AITOR AROTZENA

Toki Inbertsio Planetan jasoko dituen dirulaguntzei esker, Albistur karrikan eta Alkaiaga auzoan inbertsioak egingen ditu hurrengo urtean Lesaka-ko udalak.

Alde batetik, Albistur karrikan zolaberritze lanak, saneamendu, euri uren eta ur hodian aldaketak eta urbanizazio lanak egingen dituzte, Legarbaratzetik Ziobiraino. Lan hauei esker, oinarritzaile diren zerbitzuak berri eta hauei hobekuntzak txertatuko dituzte.

Horretaz gain, mugikortasunaren ikuspegitik, Legarbaratzetik Ziobiraino espaloia aterako da. Mugikortasun planean identifikatutako beharri erantzunez, hobekuntza honi esker, Albistur karrika hasierako bizilagunek herri erdigunera modu seguruan ailegatzeko oinezko bide bat izanen dute azkenean. Lan hauek guttienez % 70 batean diruz lagunduko ditu Nafarroako Gobernuak.

Toki Inbertsio Planeko dirulaguntzari esker, Alkaiaga

auzoan saneamendu azpiegitura ere egingen da bi faseetan. Auzoko zati handienak ez zuen horrelakorik eta lan hauei esker, ur zikinak modu egokian bilduko dira. Lan hau ere Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko du, % 85 batean.

## Abelzaintza azpiegiturak

Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta abelzaintza azpiegituran hainbat inbertsio egingen ditu udalak. Guztira ia 60.000 euroko kostua izanen dute eta Nafarroako Gobernuak 18.700 euroekin lagunduko du.

Bi korrale egingen dira, berri bat Igaraburuko lepoan eta gaur egun Xokibin dagoen korralea berri eta egokituko da.

Bertzetik, Banartan kanadiar pasabide bat paratuko dute, animaliak herri aldera jaitsi ez daitezela. Animaliak bertan ez trabatzeko prestatua egonen da pasabidea.

Azkenik Itxaszelaietako bidean kilometro bat egokituko da, zola leunduz eta kuneta eta ubideak garbituz.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Txikizioak egin dituzte Irain eskolan

Apirila eta maiatza lotu dituen asteburuaren ondotik Irain eskolara bueltatu eta ezusteko haundiarekin topo egin zuten. Instalazioetan txikizioak egin zituzten: teilak hautsi, pertsianari su eman, zakarontziak hustu, loreak hautsi, kristalezko botilak xehetu... Gas hartuneak ere ukituak zeuden. Penagarri!

## Led Silhouetteren 'Creepy Crawly' larunbatean

Nafarroako Antzoki Sareak antolatutako Sendaberri proiektuaren barne, Martxel Rodriguez Etxabide herritarra zuzendari duen Led Silhouettere dantza konpainiak *Creepy Crawly* dantza emanaldia eskainiko du maiatzaren 20an, larunbatean 19:00etan Harriondoa kultur etxean. Sarrearak dagoeneko salgai daude udalaren webgunean. Emanaldi honen aitzinetik, maiatzaren 19an, ortziralean 18:00etan Musika Eskolako ikasleek kontzertua emanen dute Harriondoa.

## Ikasketa bukaerako beka Nerea Ordokik eskuratu du

Lesaka ikergai duten ikasketa bukaerako proiektuak egiteko beka eman du bigarren aldiz udalak. 2022-2023 ikasturterako Nerea Ordoki Etxepetelkuk eraman du 500 euroko dirulaguntza, *Garai berriei erantzuneko dion herria* lana aurkezteko. Haur Hezkuntzako gradua egiten ari da Ordoki eta «kanpoko espazio motak aztertu eta bertan egiten diren jolasak oinarri hartuta, herri-gintzatik sortutako/loritutako materialen bitartez kanpo espazioak berreraikitzea» du helburu bere lanak.

### Herencias y Gestión



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pentsioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO 948 59 67 11 - 610 40 18 36  
[www.herenciasygestion.com](http://www.herenciasygestion.com) • [herenciasgestion@gmail.com](mailto:herenciasgestion@gmail.com)

## Gasna Feriaren 30. edizioa ospatuko dute ekainaren 4an

Urteurren borobilaren harira, Altxata elkarteak ekaineko lehen asteburu osorako egitarau oparoa prestatu du

### IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarren, ekainaren 3ko ardi zakur lehiaketarekin emanen diote hasiera aurten hogeita hamargarren edizioa ospatuko duen gasna feriaren asteburuari. Ondotik, *Artiletik harira*, artile garbia kardatu eta haria egiteko prozesuaren tailerra izanen da frontoian. Zuzeneko musikarekin emanen zaio akabera egunari, Juan Mari Beltran laukotearekin.

Urtero bezala, ekainaren 4an Altxata elkarteak antolatutako gasna eta artisau feria izanen da. XXX. Altxata gasna lehia-

keta ere egingen da. Bortziriak, Malerreka, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, edo Leitzaldeko gasnagileek 10:00etatik 11:00etara aurkezten ahalko dituzte gasnak frontoian. Ardi latxaren esne gordinarekin egindako gasnak izan behar dute, gutxienez 60 egunez onduak. Egile bakoitzak gasna bakarra aurkez dezake eta 15 euro ordainduko zaizkio. Ohiko sariak izanen dira gasna onenentzat. Egitaraua borobiltzeko, eguerdian herri bazkaria izanen da Bankako kantarietxeko girotua.

### Aitor Danboriena pilota memoriala abiatu da

Maiatzaren 13an hasi da Aitor Danboriena memoriala eta abuztuaren 5eko asteburuan finalerdiak jokatu arte, astebururo joanen dira pilota partidak jokatzeko. Hamabigarren edizioa izanen da aurtengoa eta bederatzi bikotek hartuko dute parte.

### 'Bihotz, bi hots, bi txotx' emanaldia hilaren 26an

Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuak LGTBI+ gaien inguruan antolatutako egitarauaren barrenean, Garazi San Martinek *bihotz, bi hots, bi txotx!* bakarriketa interpretatuko du maiatzaren 26an, ortzirean 19:00etan Pello Apezetxea kultur etxean.

## HAUTESKUNDEAK



EH BILDU  
Patxiku  
IRISARRI  
ELIZAGOIEN



HERRI TALDEA  
Xabier  
ETXARTE  
MIKELESTORENA

2. Ainara Arangibel Reinaldos. 3. Andrea Gouraud Altzugarai. 4. Xabier Iturria Arburua. 5. Jone Bizente Maia. 6. Iñaki Danboriena Ulazia. 7. Iraitz Arruabarrena Lekuona

2. Leire Olagarai Goienetxe. 3. Xabier Leiza Martikorena. 4. Garazi Remon Ibarra. 5. Mikel Goienetxe Pikabea. 6. Garbiñe Maia Mikelestorena. 7. Miguel Mari Irigoien Sanzberro



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Etxalarko V. Mendi itzulia arrakastatsua

400 mendizalek parte hartu zuten maiatzaren 6an V. Mendi Itzulian. Horietatik 177k ibilbide laburra (24,2 km) eta 223k luzea (28,2 km) aukeratu zuten. Altxatak eskerrak eman nahi dizkie laguntzen aritu ziren 80-90 boluntarioei eta, okerrik ezean, 2025ean izanen da seigarren edizioa.

BIDASOENA, S.L.  
BILTEGIA: 948 630 102  
SAKELAKOA: 633 480 563  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

744 484 361  
ttipi-ttapa

USOA  
Nekazari kooperatiba  
T. 948 635 214 M. 605 631 244  
ETXALAR

EDARIAK  
MANUEL TABERNA S.L.  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11  
tabernabera@gmail.com  
www.tabernaedariak.eus



**EGINGO  
DUGU.**

# Maite duzun Nafarroa

 *Geldiezinak!*

**Euskara sustatu  
eta errespetatu.**

---

*Hizkuntzaren  
normalizazioa  
bultzatu.*

Bozkatu

**ehbildu**

# IGANTZI

## Ekainaren 10ean irekiko dute igerilekua

Hiru hilabetez egonen da irekia, buruilaren 10era arte eta hori kudeatzeko lanen kontratuaren esleipena egin du udalak

### ANA ETA ITZIAR

Eguraldiaren aldetik udaberrri-uda giroa nabaritzen hasiak garen honetan herria ere presatzen ari da eta Udalak igerilekuko udako kudeaketaren lanen kontratuaren esleipena plazaratu du. Lan hau egin nahi duenak proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 3tik 16ra irekia zuen. Egin beharreko lanak berriz hurrengoak izanen dira: Igerilekuko komunak eta aldagelak garbitzea, eta lehiatila eta ostatuaren kudeaketa. Igerilekua hiru hilabetez, ekainaren

10etik buruilaren 10era arte, idekita egotea aurreikusita dago eta 1.500 euroko (BEZA barne) dirulaguntza paratuko du udalak.

### Berrizaundik herrigunera fibra sartzeko

Nabaritu izanen duzuen bezala, Berrizaun auzotik Igantziko herrigunerako bidean obretan daude. Zuntza sartzeko kableak sartzeko hasiak dira, eta oraindik komertzializatuko ez bada ere, espero dezagun agudo konektatzeko aukera izatea.

## 17.182 euroko inbertsioa Ittur-Xar berritzeko

2021eko abenduko euriteetan kaltetua suertatu zen Ittur-Xar berritzeko 17.182,40 euroko inbertsioa egin da. Udalak, Espainiako Gobernutik %59,30 ordaintzeko dirulaguntza lortu du. Bigaitze lanak Javier Bidaurrek eta Iñaki Agestak egin dituzte.



Ittur-xar berritua. ANA ETA ITZIAR

## Herriko abesbatzako abeslariak Toledon izan dira

Herriko abesbatza isilik da azken aldiak, baina oraingoan, bertze talde bati (Elizondoko abesbatza) laguntzeko Giltzari abesbatzako kide diren zazpi igantziar Toledora kantatzera joan ziren apirilaren 29an. Novés herrian eman zuten emanaldia.

## HAUTESKUNDEAK



HERRI TALDEA  
Juan Carlos  
UNANUA  
NAVARRO

2. Edurne Huitzi Eratsun. 3. Manuel Telletxea Iparragirre. 4. Roberto Txoperena Iturbide. 5. Irati Alkorta Garzia. 6. Aitor Alonso Esteban. 7. Amaia Iguzkiagirre Iturbide.



UTZITAKOAK

## Gasze Euskaltzaleen Topaketa

Borboraldiak antolatutako egutegiaren barnean, Gasze Euskaltzaleen Topaketa egin zuten apirilaren 29an Igantzin. Arratsaldean frontoian elkarretaratzea egin zen Nafarroa osoan euskara ofiziala izan dadin aldarrikatuz. Ilunabarrean Baratzondon afari musikatuarekin borobildu zuten eguna.

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
zubiondojatetxea.com

**BIDASOA**  
GURPILAK - GASOLINEROKAK  
100% BERTZA

609 446 693 - 948 625 663  
mbidasoa@gmail.com

**GASOLIOA ETXERA**  
eramanen dugu

Gurgil eskeintze bereziki:  
24h-ko asistentziak erregidoretan  
1AT aurreko zerbitzu dohainik  
Gasolindegiek 24h irekita

Zela zuzen bidaltzeko zuzeneko erregidoretan bidaltzeko

Alkaga Industrialdia  
Ziabi Kalea 6  
31770 Lesaka (Nafarroa)

Nesin-Eskiroz Industrialdia  
Y Kalea 10  
31110 Noain (Nafarroa)

**F. LANCHAS**

Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzaillea jartzea  
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

**MARITX**

• INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK

• BOLETIN INDUSTRIA  
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

Legia, 23 - BERA

# Berriztagarrien obra lizentziak etetea erabaki du udalak

Lur ez urbanizagarrian berriztagarrien plantak arautu ahal izateko obra lizentziak eten ditu udalak

## NEREA ALZURI

Arantzako lur ez urbanizagarrian energia berriztagarrien plantak paratzeko obra lizentziak etetea erabaki du udalak. Apirilaren 27an egindako osoko bilkuran hartu zuen obra lizentziak eteteko erabakia, herriko hirigintza antolamenduan aldaketa aztertu eta egiten den bitartean.

Gisa honetara, «lur ez urbanizagarrian energia berriztagarrien plantak paratzeko araudi egokia» egin nahi du udalak. Etete hori hirigintza antolamendua aldatzeko har-

tu beharreko denboran izanen da indarrean, hau da, gehienez ere urte batez.

## Herri batzarra larunbatean

Madrilgo Zelena Renovable SL enpresak Arantzako lurretan zentral eolikoa egin nahi duela jakin orduko hainbat herritar bildu ziren. Gaiarekin kezkatuta, Arantza Bizirik taldea osatu zuten eta dagoeneko hainbat batzar egin dituzte. Larunbat honetan eginen dute hurrengo, 12:00etan plazan. Gaiaren interesa dutenei agertzeko deia egin diete.



Eskolako hamar gurasok parte hartu zuten gurasoen gogoeta saioan.

# Euskararen inguruan hausnartzeko balio izan du Borborraldiak

## N. ALZURI

Apirilaren 19tik maiatzaren 6ra Borborraldia, Euskararen udaberria, izan da Bortzirietan, Bor-Bor taldeak antolatuta. Herritarrek ere parte hartu dute hainbat ekimenetan. Apirilaren 28an *Euskara lan-tokietan piztu* erakusketa ibiltaria izan zen plazan eta egun

berean gurasoak sentiberatzeko gogoeta-saioa egin zuten Ekaitza Elkartean, euskararekiko jarrera aktiboa izatearen garrantzia landuz.

Bertzalde, hizkuntza ohituratan eragin eta euskara etxekotzearen garrantzia ikusarazteko hainbat altzari paratu zituzten plazan.



Kattin Madariaga Apaolaza zapela soinean. JULEN ZELAIETA

# Kattin Madariaga Apaolaza Nafarroako Eskolartekoan txapeldun

## N. ALZURI

Kattin Madariaga Apaolazak irabazi du 37. Nafarroako Eskolarteko txapelketa. Maiatzaren 5ean Iruñean jokatu zuten eta sei bertsolari gaztek parte hartu zuten. Saio borobila egin zuten Kattinek eta berak lortu zuten punturik gehien. Saioa Alkaiza Nafarroako txapeldunak

jauntzi zion zapela. 8-9 urterekin eman zituen lehenbiziko pausoak bertsotan eskolan eta ondotik, bere anaia Ekairen arrimuan bertso eskolan segitu zuen. 14 urte bertzerik ez ditu eta hainbat sari lortu ditu dagoeneko. Gustura ari da eta ibilbide emankorra opa diogu. Zorionak eta zorte on!

# Mutxikoak dantzatzeko aukera maiatzaren 27an

Joan den urtean bezala, aurten ere mutxikoak dantzatzeko hitzordua izanen da herrian: maiatzaren 27an, larunbata, 18:00etan izanen da. Eguraldi ona eginez gero, plazan izanen dira dantzariak eta musikariak; eta bertzela, frontoian eginen dute saioa.

# Udal hauteskundeetan zerrendarik ez

Maiatzaren 28an egitekoak diren udal hauteskundeetan ez da zerrendarik aurkeztu Arantzán. Hala, gaur egun herriko etxean ari den udal taldeak bertze sei hilabetez segitu beharko du lanean. Orduan bigarren deialdia eginen dute.

Lu's Ibarra

Zurekin DISEINUAK

SUKALDEAK, LURRAK, ARMAIRUAK, ATEAK, TEILATUAK, EGUR LANAK...

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA GURE DENDA BERRIAN!

Kanttenberri, 3 BERA | Tef: 722 52 14 71

## Bigarren urtez Osasunaren Eguna antolatu dute

Maiatzaren 27an biltzen den dirua Anadi eta Adano elkarteetara bidatuko da oraingoan

### MAIDER PETRIRENA

Joan den urteko arrakasta errepikatzeko ilusioz, Osasunaren Eguna antolatu dute bigarren aldiz. Ekitaldiz betetako eguna prestatu dute maiatzaren 27rako. Bildutako dirua Anadi eta Adano elkartei emanen diete. Egitarau oparoa izanen du maiatzaren hondarreko larunbatak.

- 10:00etan martxa solidarioa. Herriari buelta musikariek.
- 11:00etan mural margotzea Iciar Mikelperizenarekin.
- 11:00etatik 13:00etara puzgarriak frontoi gibelean.
- 11:00etan hitzaldia plazan Adanoko kideekin.
- 12:15ean hitzaldia plazan Anadiko kideekin.
- 14:00etan bazkari solidarioa elizako aterpean. Txartelak Fonda ostatuan eta Marisol janari dendan salgai. Bakoitzak



lazko Osasunaren Eguna.

bere platera, basoa eta mahai tresnak eraman beharko ditu.

- Ondotik bingoa eta zozketa.
- 18:00etan zumba.
- 19:00etan bingoa plazan.
- 20:00etan kamiseten enkantea. Lau lote zozketatuko dituzte.
- 20:00etan taloak plazan.
- 20:30ean mexikarrak Chuchin Ibañez eta Jesus Tapiz musikariek.
- 22:00etatik 03:00etara J&J DJa.



LEIRE SANZBERRO

## Artzain 'amerikanoen' bilkura

Aurten ere Ameriketako ibilitako sunbildarrek beraien egun ederra ospatu zuten, aurten apirilaren 29an. Denak elkartu, *highball-a* hartu eta Bustitz ostatuan bazkari eder bat egin zuten. Urtero bezala, Joxe Mari Arretxea *Itxegik* lur azpian bi ogi egin zituen eta ederki jan zituzten.

## Ander Larraburu txirrindulariak irabazi Atarrabian

Maitzaren 1ean Atarrabian eskolarteko lasterketa izan zen. Hainbat kategorietako txirrindulariek parte hartu zuten eta horien artean aipatzekoa Ermitagaña txirrindulari taldeko Ander Larraburu Hernandorena herritarrak lortutako lehen postua.

## HAUTESKUNDEAK



EH BILDU  
Amets  
INDA  
GORRIARAN

2. Florentino Gelbentzu Almandoz. 3. Marga Erdozain Azpilikueta. 4. Josune Agirre Maritorea. 5. Ane Petrirena Insausti. 6. Jose Francisco Errandonea Zubieta. 7. Irune Agirre Maritorea.



UTZITAKOA

## Koldo Herrera bizkorrena Iruritan

Iruritako III. Mendi Duatloian, binaka, bigarren izan ziren Koldo Herrera eta Iñigo Arrieta eta hirugarren Ekaitz eta Eneit Bertiz anaiak. Horretaz gainera, argazkian ageri denez, Koldo Herrerak bizkiletako zatia bizkorren egiteagatik Sukaldecoren maillota lortu zuen.



Carnes Sein Haragiak, S.L.  
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA  
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Sunbilla - Tel: 948 450 862





EMAN BOTOA



**GEROABAI**

LA NAVARRA DE TODOS/AS  
GUZTION NAFARROA

Zure botoarekin posible da

**UXUE  
PRESIDENTA**

*Aurrera!*

## Hamalau ahari aurkeztu dituzte Udaberriko Ferian

Ahari lehiaketaz gain, hainbat azienda ikusteko eta eskulangileen produktuak erosteko aukera izan zen

### TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Udaberriko feria 15. aldiz ospatu zen maiatzaren 5ean. Hamar artzainek 14 ahari aurkeztu zituzten lehiaketara, iaz baino bi buru gehiago. Ahari mutur beltzen artean, Donamariako Zabalteneko Joxe Mari Indak aurkeztutakoarentzat izan zen 120 euroko lehen saria, 70 euroko bigarren saria Donamariako Porotxeneko Jose Miguel Lasagaren ahariarendako izan da eta hirugarren saria, 50 euro, Zubietako Azkateko bordako Juan Carlos Mindegiarentzat.

Mutur gorrien atalean bederatziz buru aurkeztu ziren eta diru-kopuru bera izan dute saritzat hiru lehenbizikoek. Lehenbiziko saria Iturengo Zubialdeko Isidro Bazterrikak aurkeztutako ahariarentzat izan da, bigarren saria Ezkurrako Etxeneko Jose Luis Mariez-kurrenak eskuratu du eta hirugarrena Zubietako Etxeneko Mikel Mendiburuk.

Lehiaketaz gain, Martin anaiek eta Mikel Mendiburuk behiak eta zaldiak aurkeztu zituzten, eta 10 eskulangilek beren produktuak paratu zituzten.



14 ahari aurkeztu zituzten ahari lehiaketara. ALICIA DEL CASTILLO



Eskulangileen produktuak ere izan ziren. ALICIA DEL CASTILLO

### Osasunaren futbol campusa uztailaren 24tik 28ra

Uztailaren 24tik 28ra 4 eta 12 urte bitarteko haurrentzako futbol campusa izanen da herrian Osasunaren eskutik. 08:45ean hasi eta 14:00ak arte elkartuto dira. Izena ematea ekainaren 16a bitartean egin beharko da [fundacionosasuna.com](http://fundacionosasuna.com) helbidean.

### HAUTESKUNDEAK



EH BILDU  
Arantxa  
ARREGI  
ALBERRO

2. Juan Telletxea Urroz. 3. Maider Ilarregi Belarra. 4. Fernando Gallego Galindo (Indep.). 5. Santiago Belarra Telletxea. 6. Iasone Fresneda Etxeberria. 7. Nerea Zazpe Braña. 8. Aritz Meoki Etxebeste (Indep.). 9. Leire Ortuoste Gartzia.



PP  
Jose Maria  
MUNILLA  
ESPARZA

2. Juana M<sup>a</sup> Moreno Linares. 3. Eugenio Nasarre Goikoetxea. 4. Vicenta Senso Caballero. 5. Angustias Fernandez-Manjon Fernandez. 6. Carlos Marcos Martin Iglesias. 7. M<sup>a</sup> Teresa Gartzia Mungia. 8. Maria Alvarez Gartzia. 9. Juan Jose Sanz Vitorio.



UPN  
Serafin  
LOPEZ  
FLOREZ

2. Idoia Agirre Oteiza. 3. Iñaki Iriarte Lopez. 4. Marina Inbuluzketa Gascon. 5. Jaione Pejenaute Ibañez. 6. Milena Vasquez Orjuela. 7. Francisco Javier Atienza Martinez. 8. Pedro Fabo Naturana. 9. Pablo Jose Urraca Raulera.

**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 Bera.  
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 50 65

**ANELAN**  
LAN BERTIKALAK

948 031 174  
info@anelan.pro

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.  
Egiten ditugun lanak:  
Fabrikan konponketak,  
segurtasun-sistemen  
instalazioak, telatuen eta  
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

**MARMOLES SOULE**  
www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK  
PANTEOIAK  
HILERRIAK  
ZAHARBERRITZEAK  
GARBIKETAK  
HARRI ZIZELKATZEA

**LIDERA**  
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

Iturrunubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (NA)  
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzclinika.es  
@liderahortzclinika



Ikastetxe eta erakundeetako ordezkariak aurkezpen jendetsuan. UTZITAKOA

## Iratzetik papera sortzeko proiektua aurkeztu dute

Egitasmo berritzailean lanean aritu dira Lanbide Heziketako ikasleak eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenak

### TTIPI-TTAPA SUNBILLA

Bi urteko lanaren ondotik, *Iratzetik paperera* proiektuak bere emaitza aurkeztu zuen apirilaren 27an Sunbillako udaletxean. Malerreka Common Zerbitzuak mikro-kooperatiba da egitasmoaren sustatzaileetako bat, baita Errenteriako Don Bosco eta Iruñeko Salestarren ikastetxeak, Gasteizko Conexiones Improbables, Tolosako Paper Eskola, Tecnalia, Cederna eta bertze hainbat erakunde ere. Proiektu horren helburu nagusia papera eskuz fabrikatzeari buruzko ezagutza sortu eta transmititzea izan da, bai gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak bai lanbide-heziketa zikloetako ikasleak ekintzailetzara eta lan-munduan sartzera bultzatzeko tresna gisa.

Amets Inda Sunbillako alkatea kontent zegoen lortutako emaitzarekin: «Sunbilda-rrontzat ohore bat da hau bezalako proiektu berritzailetan parte hartzea. Aldi berean, honelako ekimenen bidez gure mendiak zainduagoak ere ikusi nahi genituzke».

Proiektuaren koordinatzaile izan den Errenteriako Don Bosco ikastetxeko Mentxu Aiertzaren erranetan, berriz, «Iratzetik Paperera proiektuak ezagutzaren sorkuntza eta elkarbanatzea sustatu du bi urteotan». Papera artisauro moduan nola egin duten ere azaldu zuen, «Malerrekatik iratzea ekartzen zigutenean, iratze-pasta bat egiten genuen, balio ez duen zurtonia baztertuta. Pasta horretatik zelulosa lortzen da, hori prentsatu eta hedatzen da, paperezko orriak lortu arte».

**Bazterkeria arriskua saihestu** Malerreka Common Zerbitzuak mikro-kooperatibako Isabel Elizaldekaipatu zuenez, «lehen helburua papera artisauro moduan egiten duen tailer bat egitea izan da, horrela bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizartean eta lan munduan sartzeko. Proiektuan sartu ginen, ez genuelako zerbitzua bakarrik eskaini nahi, berrikuntza sozialera salto egin nahi genuen eta bertze eragileekin elkarlanean, tokiko arazoei irtenbidea eman».



TESTUA ETA ARGAZKIA: NEREA MEOKI

## Liburuaren Eguna Legasako eskolan

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira bi idazleren bisita izan zuten Legasako eskolan. Dani Martirena herritarrak *Hankaz gora du amak* mundua liburuak kontatu zien LHko ikasle handienei eta Ane Labaka Mayoz idazle eta bertsolariak *Totototo* ipuina kontatu zien ttikienei.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

## Lehen jaunartzea Ezkurran

Hiru neska-mutikok egin dute lehen jaunartzea maiatzaren 6an elizan: Maddi Elizalde Telletxea, Ekain Telletxea Telletxea eta Oihan Telletxea Urroz. Cecilia Baldarekin jaso dute prestakuntza eta familiek eskertu diote egindako lana. Gaztetxoek senide eta lagunekin ospatu zuten egun berezia.

## Elgorriagako bainuetxean LABeko hautagaia kanporatu dutela salatu dute

### TTIPI-TTAPA ELGORRIAGA

LAB sindikatuak «gogor» salatu du Elgorriagako bainuetxeko hauteskunde zerrenda aurkeztu eta bi egunera, hautagaitzan lehendabiziko zihonan langilea kanporatu egin dela enpresak. Elgorriagako bainuetxeko hauteskunde sindi-

kalak egiteko aurreabisua sartu zuen LAB sindikatuak eta aurkeztuko zuen zerrendaren berri eman zion enpresako zuzendaritzari. Sindikatuak salatu duenez, hori egin ondotik «enpresaren jarrera hagitz erasokorra izan da eta erabaki larriak hartu ditu».

## Nafarroako Bertso Eskolen Eguna igandean herrian

Goizean joaldunak ezagutu ondotik, ginkana izanen dute, bazkaria, bideo lehiaketa eta bertso saioa

### ARKAITZ MINDEGIA

Ikasturte amaierarekin batera etorri ohi da Nafarroako gazteen Bertso Eskolen Eguna. Aurtengoak ere badu data dagoeneko: maiatzaren 21ean ospatuko da, Iturenen. Nafarroako Bertso Eskolen sareko 9 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzenduriko jarduera da Bertso Eskolen Eguna.

Igande goizean Iturengo joaldunak ezagutzeko eta haiekin solastatzeko aukera izanen dute gazteek. Ondotik ginkana bat egingen dute herrian eta behin akituta denek elkarrekin bazkalduko dute. Arratsaldean, *Gure ahots bideo motz* bideo lehiaketaren baitan sortutako bideoak ikusiko dituzte eta sari banaketa egingen da. Azkenik, ikasleen arteko bertso saioarekin borobilduko dute eguna.

### Eolikoekin kezka

Martxo bukaeratik herritarren artean nahiko kezka sortu duen gaia da eolikoena. Elicio enpresak eskualdeko udal batzuetan lur batzuen inguruan galdegin du eta honen aurrean herrian eta eskualdean mugimendua hasi da. Zubietan egindako ibileraren ondotik, Iturengo herriko etxeko ganbaran egin zuten bilera maiatzaren lehen igandean. 60 bat lagun elkartu ziren.

### Udalaren Plan Orokorra

Herriko etxeko ganbaran aurkeztu zuten udal plan orokorra Chocarro eta Urmeneta arkitektoek. Herritarrekikusgai dute udaletxean astelehenetik ortzirralera, 11:30etik 14:00etara. Alegazioak aurkezteko azken eguna maiatzaren 28a da .



MAIDER PETRIRENA

### Adoseko neskak Ezkioko txapelketan

Martxoan abiatu zen Ezkio-Itsasoko nesken lehen pilota txapelketako finalera sailkatu ziren Ados elkarteko pilotari gazteak. Irati Altzu iturendarrak eta Iraide Iriarte sunbildarrak irabazi zieten maiatzaren 5eko azken partida ikusgarrian Iturengo Janitz Irigoien eta Dunixe Alberrori.

### Isidro Bazterrikaren aharia saritua Doneztebeko ferian

Doneztebeko Udaberriko Ferian Malerrekako ahari lehiaketa ere egin zuten maiatzaren 5ean. Matur gorrien atalean aurkeztutako bederatziaharien artean onena Ameztioko Zubialdeko Isidro Bazterrikak aurkeztutakoa izan zen onena eta 120 euro etxeratu zituen.

### HAUTESKUNDEAK



EH BILDU  
Jabier  
BEREAU  
MIKELARENA

2. Jose Mari Alzuri Bertiz. 3. Ainhoa Bereau Altzu. 4. Maria Larretxea Etxeberria. 5. Arkaitz Mindegia Baleztena. 6. Miren Ilarregi Belarra. 7. Pedro Francisco Mindegia Elizalde.



UTZITAKOA

### Andres Iñigo Iturengo arotzari buruz

Erramun Joakin Sunbil arotzaren bizitzaren inguruko artikulua argitaratu du Andres Iñigok *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkarian. Ikerketaren berri emanez eta eta kantuaren nondik norakoak azalduz bideoa egin du Malerrekako Euskara Zerbitzuak.



UTZITAKOA

### Egoitz Gorosterrazu III. Aixita Sariketan

Maiatzaren 6an Irurtzunen jokatu zen III. Aixita bertso sariketa. Sei bertsolari gazteen artean Egoitz Gorosterrazuk parte hartu zuen. Amaia Iturriotz izan zen txapeldun, Sarai Roblesekin buruz burukoa jokatu ondotik. Halere, eskaini zuten saioarekin eta giroarekin gustura itzuli zen etxera.



Etxebeste eta Etxekolonea (ezkerrean) txapelketako lehen jardunaldian. ADOS

## Pilota eta bertsoa uztartuko dituen larunbata dator

Adosen Udaberriko bertso-pilota txapelketako jardunaldia eta bertso-afaria izanen dira hilaren 20an

### FERMIN ETXEKOLONEA

Ados pilota enpresak antolatutako Bertso-pilota udaberri torneoaren partida bat Zubietan jokatu da maiatzaren 20an. Lehiaketari Altsasun hasiera eman zioten eta final handia Beasainen jokatu dute ekainaren 2an. Bitartean plazaz plaza dabilta pilotariak. Txapelketa honetan lau taldek parte hartzen dute, talde bakoitzean hiru pilotari eta botilero bat (bertsolaria). Liga fasean denak denek kontra ari dira eta ligan puntu gehien eskuratzen dituzten bi taldeak elkarren kontra arituko dira

final handian. Zubietan *Bitxiloreak* (Etxebeste, Etxekolonea herritarra eta Ruiz de Infante, Nerea Elustondo bertsolariarekin) eta *Kukuprakak* (Iturriaga, Agirre eta Orbegozo, Aitor Sarriegi bertsolariarekin) izanen dira aurrez aurre, 18:00etan hasita.

### Bertso-afaria

Ondotik bertso afaria izanen da, Aitor Sarriegi eta Maialen Akizu bertsolariarekin. Txartelak Santxo okindegian eta herriko ostatuan salgai daude. Txartela hartzeko azkeneko eguna maiatzaren 19a izanen da.

## Proiektu eolikoaren inguruko solasaldiak herritarren ikusmina piztu zuen

### F. ETXEKOLONEA

Eskualdean hainbat proiektu eolikoren berri izan ondotik, gaiaren inguruko informazioa biltzeko Eolikoaren aurrean zer? izenburupean solasaldia egin zuten apirilaren 28an. Sustrai Erakuntza fundazioko kideek eta Lesakako Endara Bizirik plataformakoek hartu zuten hitza eta ikusmina piztu zuen, hainbat herritako jendea bildu baitzen.

Sustrai Erakuntzako kideek egungo energiari buruzko hainbat azalpen eman zituzten eta Endarako kideek beraien



Jende ugari izan zen solasaldian.

esperientzia elkarbanatu zuten, besteak beste, eolikoek sortuko luketen kaltea nabarmenduz. Gaiari buruzko informazio gehiago bilduta, ekimenari segida emateko asmoa dute.



UXOIA ELIZALDE

## Jaunartzea eta maiatzeko aingeruak

Maiatzeko lehen asteburuan lehen jaunartzea egin zuten herriko hiru neskek, Noa Bendoirok, Elaia Santestebanek eta Intza Iribarrenek. Maiatzeko lehenengo igandea izanik, hilabete osoko igandetan lore eskaintzak egiten ari diren aingeruak izan zituzten lagun.

**Miguelena SUKALDEAK**

- Etxetresnak
- Pareta-armairuak
- Sukaide eta bainugelako altzariak

☎ 948 450 925 ☎ 624 47 57 25

Amezti zeharkarrika, 1 • DONEZTEBE

[www.electrodomesticosmiguelena.com](http://www.electrodomesticosmiguelena.com)

## Hauteskundetako mahaiaren osaketa zehaztua

Herriko etxerako zerrendarik gabe, udal hauteskunderik ez da izanen, baina Nafarroako Parlamenturako ere bozkatu behar denez, hauteskunde-mahaia osatu da. Joxean Elizalde izanen da presidente eta Izaskun Zubialde eta Yolanda Salanueva bokalok.

# MALERREKA-BERTIZARANA

## Eratsunen, Urrozen eta Zubietan ez da talderik aurkeztu

Narbarteko kontzejuan ere ez da hautagairik aurkeztu maiatzaren 28ra begira

### TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 28an udal hauteskunderik gabe geldituko dira Eratsunen, Urrozen eta Zubietan, eta gauza bera gertatuko da Narbarteko kontzejuan ere, duela lau urte bezala, aldi honetan ere ez baita inor aurkeztu.

Malerrekako eta Bertizaranako gainerako herrietan, ordea, udal ordezkariak aukeratzeko bozakeginen dituzte. Bertizaranan eta Donamarian jakina da zein izanen den alkate, zerrenda bakarra aurkeztu baita: Donamarian azken agintaldian alkate izan den Natalia Rekarte Oteizak segituko du karguan, eta Bertizaranan gaur egun alkatea den eta lehen ere izan den Andres Etxenike Iriartek. Beintza-Labaienen bi talde aurkeztu dituzte, eta Elgorriagan, Ezkurran, Oizen eta Saldiasen bana, baina zerrendak irekiak direnez, botoak hautagai bakoitzaren dako izaten dira, eta hortaz, oraindik ezin da jakin zein izanen den alkate.

Udal eta parlamentuko hauteskunderen gain, kontzejuetan ere hauteskunde eguna izanen

da maiatzaren 28a. Legasan lau laguneko taldea osatu dute eta Oieregin hautagai bakarra aurkeztu da: Jose Nosellas Zabalegi.

### Gibelera begira

2015eko hauteskundeetan herri guztiek aurkeztu zituzten hautagaitzak. Duela lau urte, berriz, hauteskunderen lehenbiziko deialdian, Iturenen, Oizen, Elgorriagan, Eratsunen, Ezkurran eta Urrozen ez zen udala osatzeko zerrendarik aurkeztu. Hala, sei hilabete beranduago, 2019ko azaroan, berriz hauteskundeak egin behar izan zituzten eta orduan hautatu zituzten alkateak: Iturenen Jabier Bereau Mikelarenak hartu zuen alkate kargua; Eratsunen Iñaki Estanga Mitxelena, Ezkurran Jaione Zabalo Juantorenak, Elgorriagan Ane Otxandorena Juanenak, Oizen Ugutz Zelaieta Fernandezek eta Urrozen Josu Zozaia Ubiriak. Legasan ere bigarren deialdi horretan aukeratu zuten kontzejuko ordezkaria, Jesus Mari Etxart Ansalas izan da geroztik alkate.

## BEINTZA-LABAIEN

### HERRIA BIZIRIK

1. Mikel Albisu Gomez. 2. Pablo Elizondo Matxinena. 3. Mikel Grajirena Oteiza. 4. Txomin Karrikiri Telletxea. 5. Alejandro Mindegia Otxandorena.

### HERRIARENGATIK

1. Jon Telletxea Juanenea. 2. Jesus Juan Bertiz Goñi. 3. Jose Antonio Mingegia Saldias. 4. Lazaro Jabier Eratsun Etxeberria. 5. Yolanda Urroz Saldias.

## BERTIZARANA



BERTIZARANAKO TALDEA  
**Andres ETXENIKE IRIARTE**

2. Jose Antonio Sarratea Rekarte. 3. Xabier Agerre Danboriena. 4. Jose Antonio Jauregi Juantorena. 5. Iker Trantxe Larnaga. 6. Blas Mari Andresena Etxeberria. 7. Roman Agerre Lizarreta

## DONAMARIA



HERRIARENGATIK  
**Natalia REKARTE OTEIZA**

2. Naiara Aizpuru Sagaseta. 3. Francisco Javier Lizasoain Ariztia. 4. Miren Arregi Mindegia. 5. Jon Leatxe Oskoz. 6. Carlos Ezkurra Leonet. 7. Idoia Arregi Azpiroz.

## ELGORRIAGA

### INDEPENDENTEAK

1. Eva Martin Ibarra. 2. Francisco Javier Ibarra Ibarra. 3. Jaione Iri-sarri Goienetxe. 4. Itziar Martin Ibarra. 5. Iñaki Arrieta Idiakez.

## EZKURRA

### IDOIA

1. Jaione Zabalo Juantorena. 2. Pedro Mari Zestau Juantorena. 3. Jose Mari Gogorza Jauregi. 4. Bautista Mariezkurrena Mariezkurrena. 5. Ana Maria Otxandorena Telletxea.

## OIZ

### OIZKO ALKARTASUNA

1. Rakek Ariztegi Ariztia. 2. Fidel Ariztegi Anso. 3. Jaime Urroz Telletxea. 4. Miguel Ziganda Larraburu.

## SALDIAS

### TANTADI

1. Iñigo Zubeldia Telletxea. 2. Zorion Ezkurra Baleztena. 3. Iban Urrutia Eskudero. 4. Eneko Mitxeo Ezkurra. 5. Markel Lizasoain Baleztena.

## LEGASAKO KONTZEJUA

### LEGASAKO HERRIA

1. Jesus Etxart Ansalas. 2. Aintzane Martirena Hernandezena. 3. Miren Koro Ibarra Santxotena. 4. Aritz Astibia Perurena.

## OIEREGIKO KONTZEJUA

### INDEPENDENTEAK

1. Jose Nosellas Zabalegi.



**endanea**  
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10  
[www.endanea.com](http://www.endanea.com)

Online denda

## PRESTATU UDA!

Udan zure kanpoko tokiez gozatzeko behar duzun guztia eskaintzen dizugu. Zatoz!

- Sasoko lore eta landareak.
- Lorezaintzarako osagarriak.
- Baratzetako landareak.
- Altzariak eta barbakoak.





Erakustaldiko partaideetako batzuk. UTZITAKOA

## Soinketa eta herri kirol eguna egin dute Donezteben

Goizean kirol erakustaldia eta ondotik otordua izan zuten eta 110 lagun bildu ziren

### TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Apirilaren 27an egin zuten bazkideek hain gustuko izaten duten soinketa eta herri kirol-eguna.

Goizean Ezkurra frontoian elkartu ziren eta bertan soinketa erakustaldian egin zuten. Patxi Txokarro irakaslearen ikasleek yoga erakustaldia egin zuten, Ana Tovarrek luza-keta erakustaldia egin zuten, Rebeca akademiako ikasleek dantza saioa eta Berako talde batek ere beraien erakustaldia egin zuen. Ondotik, Cañamares anaiak aizkora eta herri kirolak egin zituzten.



Herri kirol erakustaldia. UTZITAKOA

Bukatzeko, Santamaria jatetxean oparo bazkaldu zuten eta dantzaldia izan zuten Jose Angelekin. Denera 110 lagun elkartu ziren Donezteben eguna pasatzeko.

## Maiatzaren 25ean egingen dute Dantxarinean euskal kantuen eguna

### TTIPI-TTAPA

Azken aldizkarian aipatu bezala, maiatzaren 25ean egingen dute Dantxarinean kantuzaharren eguna. Izena emateko epea dagoeneko itxia da eta 230 lagun inguru elkartuko dira. 12:00etan elkartuko dira, eta bazkaldu aitzinetik berta-

ko komertzioak bisitatzeko aukera izanen dute. Ondotik, 13:00etan egingen dute otordua Otsondo jatetxean eta Joxe Angelek girotuko du.

Iazko kantuen liburua dutenei etxetik eramateko eskatu die elkarteak eta bertzeei bertan emanen diete.



UTZITAKOA

## Mari Jose Telletxearentzat saria

Mari Jose Telletxea izan da elkarteko zozketaren azken sariduna! Zorionak! Saria emanda, hurrengo galderaren ordua da orain. Hauxe da asmatu beharko duten galdera: **Nola zuen izena TTIPI-TTAPA aldizkariarekin batera banatzen zen eranskin horiak?**

## Aldaketa izan da Aralarko irteerako jatetxean

### TTIPI-TTAPA

Uztailaren 26an urteroko irteera egingen dute Aralarrera. Bazkarirako Jatetxea aldatu behar izan dute, eta Gorraizko Gazteluan bazkalduko dute azkenean. Aldaketa dela eta, egunaren prezioa ere aldatu egin da eta egun osoko irteerak 60 euroko prezioa izanen du. Ondorengo menua izanen dute bazkaltzeko: Itsaski krema; baserriko arrautza Ultzamako onddoekin eta patata trufatuaren aparrarekin; arkume errea, eta torrada karamelizatua baileys eta oreo galleten izozkia-



Aralarrera joanen dira. UTZITAKOA

rekin. Horrekin batera, edaria, kafea edo infusioa eta kopa sartuko da prezioan.

Izena ematea ekainaren 19an, 20an eta 21ean egin beharko da eta ordainketa uztailean.

## Bazkideak Benidormen izan dira

Maiatzaren 2tik 11ra bitartean elkarteko hainbat bazkide Benidormen izan dira oporretan. Argazkian ikusten den bezala, ederki ibili dira Mediterraneo aldean. Hurrengo bidaia Norvegiara egingen dute.



## Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzutan **dituzun abantailak**



### «Konponketak eginda ekainaren 3an irekiko dugu tren»

JENOFA ZUBIRI  
LARHUNGO TRENA - SARA

1924an egin zuen Larhongo trenak lehen igoera. Geroztik, «trena ez da batere aldatu, egurrezko estruktura bera da eta horrela mantentzea nahi dugu. Hiru tren gehitu zituzten, baina denak berdinak dira». Duela bi urte «trenbide guziko errailak eta kremailerak aldatzeko lanak hasi zituzten. Negu honetan usaian baino lehenago itxi genuen lanak bukatzeko». Ekainaren 3an irekiko dute tren, azaroaren 5era arte. «Heldu den urtean denboraldi normala berrartuko dugu eta mendeurrena ospatzeko programazio berezia izanen da». Urtean 350.000 pertsona inguru ibiltzen dira trenean, eta ez da guttiagorako; «xarma haundiko tren baina, autentikoa. Bidaia ordu erdiz egiten da eta paisaia ederraz gozatzen da, pottokak, ardiak... eguraldi onarekin biziki polita da».



### «Parkeko erregea, pendulua da, ez baita inon horrelakorik»

MATTARI ALZUARTE GAZTELU  
EKZ - BAZTAN / BERTIZARANA

Martxoaren 25ean ireki zuen BKZk denboraldia. Ekainera arte, «eskoletara bideratutako programak ditugu aste tartzet, bisitari guztien artean 300-500 jarduera inguru egiten dira egunero. Asteburuetan taldeak, klubak, elkarteak... etortzen dira». Ekainetik aitzinera «udalekuekin hasiko gara egunero. 50 lagun egonen gara lanean, jende aunitz etortzen baita». Izan ere, urtean 25.000 jarduera egiten dira Baztango parkean. «Ttikienek Bertizko zuhaitzen ibilbidea gustuko dute, gaztetxoek megatirolina eta ur parkea nahiago dute eta helduen artean pendulua da erregea, ez baita bertze inon horrelakorik». Azkenik, «udalarekin elkarrizketa ireki dugu Baztango proiektuaren haunditzeaz aritzeko. Parkearen eskaintza zabaldu, instalazioak hobetu eta urte osoan lana sortu nahi dugu».



### «Udako berrikuntza haurrendako kirol jolasak izanen dira»

MARIA PLAZA AZKARATE  
GILTXAURDI - ELIZONDO

Sasoiaren arabera eskaintza bereziak dituzte Giltxaurdi kiroldegian. «Urritik maiatzera neguko denboraldia dugu; alde batetik igeriketa ikastaroak eta bertetik salako kurtsoak». Ekainaren 16tik irailaren 15era arte, berriz, udako denboraldia izanen da: «uztallean eta abuztuan igeriketa kurtsoak ditugu, eta guttieneko taldeak ateratzen badira, lehorreko ikastaroak ere». Eta noski, igerilekuari estalkia kenduko diote: «eguraldi onarekin jende aunitz etortzen da, eta igerilariendako kale bat libre uzten dugu». Aurtengo berrikuntza «6-11 urteko haurrendako kirol jolasak ikastaroa da; uztaileko eta abuztuko lehenbiziko asteetan izanen da, goizez, 6-11 urte bitarteko haurrendako. Kirol eta jolasak eginen dituzte futbol zelaietan, pilotalekuan, igerilekuan...».



### «Bertako edariak banatzen saiatzen gara»

MANOLO TABERNA IRAZOKI  
TABERNA EDARIAK - BERA

Familia negozioa da Manuel Taberna Edariak, Manolo Tabernaren aitak 1949an hartu zuena: «okindegibatean aritzen zen, eta okinak balio zuela ikusi zuenean edariak saltzeko negozioa hasi zuten biek. Denda ttiki bat zuten eta gehien bat ardoa banatzen zuten». Manuelek hartu zuen altaren lanbidea, «pabiloi haundi batera mugitu ginen eta Beratik aterata ingurura saltzen hasi ginen». Gaur egun, Nafarroako iparraldean aritzen dira eta seme-alabak hartu dute Manoloren lekukoa. «Mota guztietako edariak» saltzen dituzte; «ardoa, zerbeza, esnea, likoreak... inguruko dendak eta jatetxeak hornitzen ditugu». Marka aunitzekin egiten dute lan, «baina saiatzen gara bertako produktuak banatzen».





# URDAZUBIKO BESTAK 2023

**Faustino ETXABE tailerrak**

Autoen konponketa

☎ 948 599 038  
ZUGARRAMURDI

*"Besta on  
batzuk pasa!"*

**ETXELEKUA** *eragi pasoa bestak!*  
ARDI LATXAREN GASNA

**7ak MUNDUAN**

SALMENTA ZUZENA EGUNERO  
Zugarramurdiako kometera  
948 599 169 - Urdazubi  
[www.etxelekua.com](http://www.etxelekua.com)



**JOXEMI  
BENGOTXEA**  
Zurgindegia

TEILATUAK | FATXADAK  
ESKAILERAK | ZOLAK  
EGURREZKO ESTRUKTURAK  
LEIHOAK | ATEAK | ALTZARIAK

Tel.: 660 501 584  
Etxelekua | URDAZUBI  
[joxemibengotxea@yahoo.es](mailto:joxemibengotxea@yahoo.es) | [canterasaskape@gmail.com](mailto:canterasaskape@gmail.com)

## Egitaraua

### Maiatzak 17, asteazkena

20:00etan txupinazioa eta ezkila-jotzea plazan aperitif tiki batekin.

21:30ean herri afaria Montxo Erretegian herriko trikitilariek alaitua.

### Maiatzak 18, ortzeguna

11:00etan meza nagusia.

12:00etan ezkila-jotzea.

Ondotik aperitifa txistulari eta dantzariekin.

16:30ean haurren jokoak.

21:30ean paella jatea plazan.

Ondotik Holako Deluxe taldearekin dantzaldia.

### Maiatzak 19, ortziralea

10:30ean haurrendako Conquis Challenge.

14:00etan Ugarana emakume elkarteko bazkaria. Gazta bazkaria plazan.

16:30ean haurren pilota partidak.

18:30ean txokolatada.

20:00etan sagardotegi mugikorra eta pintxoak.

Ondotik kontzertuak: Herritarrak, Xabaltx, Elektropikala, Kamuts eta DJ Ganix.



**URDAZUBIKO UDALA**



**Urdazubiko Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue  
urdazubiar eta  
bisitari guztiei !**





### ZUBIONDOA

OSTATUA  
AUTOZERBITZUA  
OROIGARRIAK

*Ongi pasa bestak!*

(0034) 948 599 041  
**DANTXARINEA**

## Bazteretxea

JANARIDENDA

benta

Tel: 948 599048

Ongi pasa bestak!!

**URDAZUBI**



IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN  
HORMIGOI ESTANPATUA  
ZOLADURAK

## KURRINKA CONSTRUCCIONES, S.L.

Barrio Lantak, s/n - 30711 URDAX (Navarra)  
Tel. (0034)609 878 162 (Antonio) - e-mail: antonio@kurrinka.com  
Tel. (0034)600 438 438 (Angel) - e-mail: kurrinka@kurrinka.com  
[www.kurrinka.com](http://www.kurrinka.com)



### Maiatzak 20, larunbata

14:30ean zikiro jatea Elubxa txarangak alaitua.

Ondotik kalejira herriko karriketan barrena.

16:30ean hauren jokoak.

21:00etan zingar jatea eta Chuchin Ibañez mariatxi taldearekin dantzaldia.

22:30ean kontzertua: Janus Lester+ Kilimak.

Ondotik DJ Pintxo.

### Maiatzak 21, igandea

17:30ean pilota partida:

Xala eta Pascual VS.

Mikel Goñi eta Azanza

Ondotik dantzaldia plazan Hauspolairekin eta pintxo eta freskagarriak.

20:30ean boletoen zozketa.



## ARRETXE ESTANKOA

ZIGARRO PURUEN CAVA



ongi pasa bestak



**DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | [estancoarrechea@yahoo.es](mailto:estancoarrechea@yahoo.es)**

# BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



**Karta bikaina eta menuak prezio  
desberdinetan kalitatezko produktuekin.**

*IKUSI  
KARTAK  
HEMEN*



[ventabiok.com](http://ventabiok.com)

Oihana Jatetxea +34 848 478 882  
Lapitxuri Jatetxea +34 948 599 093  
Otxondo Jatetxea +34 848 478 879

**BIOK** ✨  
JATETXEAK

**IRIARTEA  
BENTA**

Autzoerbitzua · Ostakua · Larua...

DANTXARINEA · Urdazubi · T. 948 599 049 · ventariarte@hotmail.es

**Pinturas**  
Iñaki Alzuyet  
margoak

Tel: (0034) 659 862 417  
31711 URDAZUBI (No)

ONGI PASA BESTAKI

**FATXADAK,  
BARNEALDEAK  
eta  
PLADURRA**

pinturasalzuyet@gmail.com

**Mikelen Borda**  
BENTA - JATETXEA

ONGI PASA BESTAKI

**GURE BASERRIKO ARATXE HARAGIA SALTZEN DUGU**

Dantxarinea - URDAZUBI  
T. 948 599 045 | www.mikelenborda.com

**CONSTRUCCIONES  
A. BENGOTXEA**

- Etxebizitzak egin
- Zahar-berritze lanak
- Saneamendu-lanak
- Obra publikoak
- Zeramika denda

**ONGI PASA BESTAKI**  
URDAZUBI  
Tel. 948 599 484 | www.carrelagesbengotxea.com

## «Bortz egunez herri giroa nagusitzen da, eta urte osoan ikusi ez dugunekin besta egin dezakegu»

**LORENA AROZARENA GALARREGUI**  
Urdazubiko gaztea

«21 urteko Urdazubiko neska gazte eta alaia» da Lorena Arozarena, hainbat zaletasun dituena: lagunekin planak egitea, lekuak ezagutzea, muxikoak dantzatzea... eta besta; «lagunekin azken momentuan inprobisatutako bestak ditut gogokoenak».

Herriko gazte taldean dago, «baina ez antolakuntzan: taldean 16 urterekin sartzen gara eta antolakuntza urtero aldatzen dugu». Antolakuntza taldea osatzen duten bortz gazteak ihauteriaz eta besten egitarauaz arduratzen dira, hala ere, «gainerako gazteen laguntza ere beharrezkoa da».

**Bestetarako gogotsu**  
Bestazalea da Arozarena: «etxerako bidea ahanzten dudala erraten dute». Urdazubiko bestetarako gogotsu dago, izan ere, «bortz egunez herri giroa nagusitzen da, eta urte osoan ikusten ez dugun jendearekin besta egiteko aukera izaten dugu».

Tiki-ttikitatik izan du gustuko besta giroa: «haur jokoak eta ortzegunean aperitifaren momentuan dantzatzea dira nire lehenbiziko oroitzenak. Gazteetan sartu nintzenez, aldiz, paella zerbitzatzea eta zikiro eguneko besta».

Gaur egun, ordea, egun guziak ditu gogoko, «denek baitute zerbait aipatzeko». Hala ere, «bat aukeratzekotan, zikiro jatearen eguna dut gustukoena. Herriko jende aunitz elkartzen gara eta bazkaritik hasitako besta izaten da». Gainera, «pandemiaz geroztik ez dut herriko bestak ospatzeko aukerarik izan, eta aurten inoiz baino gogotsuago nago!».



'Zer falta dute Urdazubiko bestek?' da urtero gazteen artean planteatzen duten galdera; «segur aski bada zer gehitu, baina zaila da hori jakitea eta denen gustukoa izatea».

**«Zikiro jatea dut gogokoena, herritar aunitz elkartzen gara eta bazkaritik hasten da besta»**

Honez gain, jende kopuruan ere aldaketa nabaritu dela dio Arozarenak: «lehenago Iparraldetik jende dezente etortzen zela erraten dute, baina azken urteetan herriko giroa nagusitzen da besta egunetan». Hala ere, «herrietako lehenbiziko bestak dira, eta jendeak gogo haundiarekin hartzen ditu. Gainera, egitarau zabala dugu, haur, gazte eta helduentzat moldatzen dena».

Azkenik, «inguruko herrietako jendea Urdazubiko bestetara etortzera animatu nahi dut!».

Ongi pasa  
bestak!

  
JATETXEA • ERRETEGIA

Tradizioa, historia eta gastronomia

[asadormontxo.com](http://asadormontxo.com)



Axular karrika, 12  
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)  
+34 848 85 00 21  
[info@asadormontxo.com](mailto:info@asadormontxo.com)

# ONGI PASA BESTAK!

**KUPELA** SAGARDOTEGIA



MENUA  
TXULETA,  
SAGARDO  
ETA ARDOA

**34<sup>€</sup>**

**LANDIBAR** JATETXEA



MENUA

**10,99<sup>€</sup>**  
TIK

**LUGARANA** JATETXEA



BUFFETA

**19,90<sup>€</sup>**

Egin zure erreserba gure jatetxeetan eta gozatu gure menuetaz  
[www.venta-peio.com/fr/peio-restaurants/](http://www.venta-peio.com/fr/peio-restaurants/)

**VENTA PEIO**  
Zure erosketa-gune hobereak  
Euskal Herriko bihotzean

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE \*Abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a izan ezik

LANDIBAR CENTER: Barrio Dantxarinea s/n, 31711 URDAX Ext: 662 | ☎ +34 948 625 130 (es) | ☎ +33 972 104 020 (fr) | [www.venta-peio.com](http://www.venta-peio.com)

ONGI PASA  
BESTAK!



ORDUTEGI TABALA  
FAMILIEN BEHARRETARA  
EGOKITZEN GARA  
URTE OSOAN IREKIA

Gure titikien garapena bermatzen dugu,  
bakoitzaren eritima errespetatuz,  
inguru seguru eta goxo bat eskainiz.

Juan Aguirre, 1 | URDAZUBI | T. (0034) 693 76 49 49

*indianabaita*  
ostatua  
barostatua apartamentos rurales  
Pasatu ongi. Salbatoreak!

PINTXOAK,  
BOKATAK ETA  
ERRAZIOAK

948 599 021  
URDAZUBI



✦ IRIGOIENEA ✦

ongi pasa bestak!!

948 599 267 • URDAZUBI

www.irigoiena.com • reservas@irigoiena.com

ongi pasa  
bestak!

Patxi Jaurena

ZURGIN LANAK OROKORREAN  
MENUISIER - CHARPENTIER

628 550 490 - URDAZUBI(Na)  
ursunea@gmail.com



SANTIAGO VILLARES S.L.

Ongi pasa bestak!



LUZERNA-PENSU ETA FORRAJEAREN  
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA

LASTOA  
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777  
T. (0034) 948 59 91 34  
Fax. 948 59 91 56

info@santiagovillares.com  
www.santiagovillares.com

## «Bestak antolatzea herriarekiko erantzukizun haundia da»

**IBAN BLANCO GARDE**  
Besten antolatzaileria

«Gazte inportatzaileak eta gauza aunitz egiteko gogoarekin» da Iban Blanco. Atarribian sortu bazen ere, «aita Urdazubikoa zen eta astebururo etortzen ginen hona. Lotura estua dut herriarekin».

Herriko bestak ere ongi ezagutzen ditu, «titikitan urtero etortzen ginen ortziraletik aitzinera, eta oroitzen arras politak ditut: bereziki aita ostatuan egiten zituen bestak eta Etxeberekin eszenatokia kantatzera igotzen nintzenean». Gaur egun, berriz, «paellada eta zikiroa» dira gehien gustuko dituen jarduerak.

Antolakuntzan ere aritzen da Blanco joan den urtetik; «lana da, baina bortz lagun garenez ardurak banatzen ditugu. Horrelako ekitaldiak antolatzea gustuko baduzu, niri gertatzen zaidan bezala, ez da hainbertzerako lana. Hala ere, herriarekiko erantzukizun haundia da».

### Besta eta lana

Baina antolakuntzaz gain, Montxo jate-txean lan egitea ere dagokio bestetan. Izan ere, duela bi urte hartu zuen familiako negozioaren lekukoa. «Asteazkeneko afaria hemen egiten dugu, besta hona ekarri. Ortzegunean plazan paella egiten dut, aitaren omenez. Ortziraletan lan egiten dugu eta zikiro egunean libre hartzen dugu».



Urdazubiko bestetan «haurrentzako jarduera gehiago» falta direla azaldu du Blancok. Hala ere, «besta bereziak dira niretako, gure herria delako eta eskualdean urteko lehenbizikoak direlako Irurritakoekin batera».

URBIA

Ongi pasa  
bestak!!

Jatetxea  
Karta

Ἰασηφά εἰς  
Ἱερουσαλὴμ



San Salvador 33, Urdazubi  
948 599 131

LA KOSKA  
JATETXEA



ongi pasa bestak!!

948 599 042  
URDAZUBI

Ongi pasaz  
bestak!

**JOSENEA**  
**ZONE AUTO**

**KALITATEZKO MANTENTZE-LANAK  
ERREGAI BANAKETA  
GARBIKETA ZENTROA**

**PREZIO  
ONEAN** 



[www.josenea.es](http://www.josenea.es)

☎ 948 599 090 - 948 599 236 📍 N-121-B errepidea • DANTXARINEA



ZURE IZENA

**OSTATU-JATETXEA**

MENUAK, KARTAK, MAHAI-OIHALAK,  
MUSUZAPIAK, BASO-AZPIKOAK...  
Zure diseinuarekin pertsonalizatuak



**HAUSTEN EZ DEN MENU OPIA**  
Menu hauetara erresistentzia handiko materialekin egina dago.  
Neurriak:  
14x30 cm | 15x21 cm | 15x42 cm |  
21x30 cm | 30x42 cm |  
Papera: 450 g. hauetara  
Aukeratu materia edo distiradura



MENU ZABALGARRIA



KRAFT MENU ZABALGARRIA



PLASTIKOZKO MAHAI-OIHALA



MENU KATALOGOA



MENU ENKAPSULATUA



KRAFT PAPEREZKO  
MAHAI-OIHALA



MAHAI-OIHAL HAUTSEZINA



PVCzko MAHAI-OIHALA

 **KULTURKARI**  
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Info +:  
Tel: 948 63 54 58  
kulturkari@tppi.eus  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

**ESKATU  
AURRE  
KONTUA**

# OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43  
www.oteizaarquitectos.com

oteizaarquitectos



Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)  
Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

# IRURITAKO BESTAK 2023

sukaDeco  
estudio cocina y baño



www.sukaDeco.com  
IRURITA - 948 580 666

# TXOKOA

Ile-apaindegia

Estitxu Mikelperizena  
644 94 11 55

Pedro M<sup>a</sup> Hualde, 38 behea | 31730 Irurita

Ongi pasa  
bestak!

# DOARQ

arkitektura bulegoa  
maite & idola dantbarrena daitezke  
T 9 4 8 1 4 0 8 0 6

ONGI PASA BESTAK

IRURITA

# Gureaut TAILERRAK

Mekanika, elektrizitatea,  
mantentze lanak...

Zaldubia Ind. IRURITA | T. 948 580 225  
M. 619 328 145 | gureauto2@gmail.com

## Egitaraua



### Maiatzak 17, asteazkena

12:00etan txupinazoa eta herriari buelta  
Baztango Gaiteroekin eta erraldoiekin.

15:30ean haurrentako jokoak.

17:30ean gazteen arteko herri kiol de-  
safioa.

18:00etan haurren VII. Trinkete Pilota  
txapelketaren finala.

18:30etik 20:30era dantzaldia plazan  
Beñat eta Fernandorekin.

20:00etan ezkila-jotzea.

21:00etan baztan zopak.

01:00etatik 04:00etara dantzaldia kar-  
pan Beñat eta Fernandorekin.

### Maiatzak 18, ortzeguna

09:30ean diana.

11:00etan meza nagusia.

12:00etan herriko dantzarien emanal-  
dia.

Ondotik luntx herrikoia.

16:45ean haurren pilota finaleko sari  
banaketa frontoian.

17:00etan Pilota Jaialdia herriko fron-  
toian:

Pilotan Elordi eta Tolosa vs.

P. Etxeberria eta Martija

Erremontean Sagaseta eta Mitxeo vs.

Iturregi eta Leatxe

19:00etan dantzaldia plazan Joselu  
Anaiekin.

21:00etan mutil dantzak.

00:30etik 04:30era dantzaldia plazan  
Joselu Anaiekin.

# Arotxa



Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18  
31730 IRURITA  
arotxa.taller@gmail.com  
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | **HORMANN** banatzaile ofiziala



TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza



Eguzkiaz  
babestu  
toldo batekin



ongi pasa bestak!

Carpinteria

Lizasoain, S.L.

Erreformak - Leiboak - Ateak - Eskoierak - Armairuak - Sekaldeak  
948452077 - Zaldubia ind. - 31730 IRURITA



### Maiatzak 19, ortziralea

09:00etan diana baserrietan eta herriko txistulariak heritik.

11:00etan haurrendako puzgarriak frontoian.

13:30ean haurren bazkaria karpan.

14:00etan jubilatuen bazkaria Olarin eta gazte bazkaria Jauregiarteetan.

15:00etan haurrendako puzgarriak frontoian.

18:30ean kalejira erraldoiekin.

20:00etan dantzaldia Biziraun taldearekin.

21:00etan mutil dantzak, gaita eta larra dantza.

22:00etatik 01:00era Sakatu elektrotxaranga.

Ondotik DJ J&J karpan.

00:30etik 03:30era dantzaldia Biziraun taldearekin.

### Maiatzak 20, larunbata

10:00etan diana Tuku-tuku txaranga-rekin.

12:00etan kalejira erraldoiekin.

14:00etan zikiroa txaranga alaiturik.

18:00etan herriari buelta Tuku-tuku txaranga-rekin.

20:00etan dantzaldia Gabezin taldearekin.

21:00etan mutil dantzak eta gaita.

22:00etatik 00:00era Tributo Barricada taldea karpan.

00:00etatik 04:00etara DJ Endara karpan eta dantzaldia Gabezin taldearekin plazan.

Ondotik DJ Aimar.

### Maiatzak 21, igandea

Goizean kalejira erraldoiekin.

17:30ean herri kirol desafioa frontoian: Arraioz, Basaburua, Sunbilla eta Araxes.

Ondotik Los Cazahuetes mariabiak.

Bestei akabaila emateko Gaixoak gu.



  
**MIGUELENE**  
OBRAS Y CONSTRUCCIONES - ERAIKUNTZAK

ongi pasa bestak!

IRURITA | T. 677 225 112



**ARKUPE**  
*Txokolaterak*  
-1984-

IRURITA  
Dak 29 plaza  
T. 948560059  
T. 948452021  
(Obredorea)

ELIZONDO  
Santiago kalea 19  
T. 948452393

[www.arkupegozotegia.com](http://www.arkupegozotegia.com)



Construcciones  
**URBALLO, S.L.**

hargin lanak erokorrean

Eskatu  
aurrekontua  
konpromiserik  
gabe!

- 30 urteko esperientzia
- Eraikuntza berriak eta zaharberritzeak
- Teilatuetan esperientzia handiko profesionalak
- Obra txikiak nahiz handiak: Etxebizitzak, nabeak, zangak, ur lanak, ukuiluak...



Luis Gaztelu, 6 | 31730 IRURITA  
T. 610 367 000 / 610 367 009  
[c.urballo@hotmail.com](mailto:c.urballo@hotmail.com)

## J.P. AGERREBERE

Karrozeria • Aroztegi Metalikoa



Zaldubi Ind. IRURITA • Tel.: 948 530 533 | 630 184 847



Ateak  
Parketak  
Tablerak  
Egur mota guztiak  
Bigak eta Soliboak  
Etab.

Zaldubia Industria - IRURITA  
T. 948580645 -  
M. 609436686 / 606442143 / 608 744 675  
maderaslegite@gmail.com  
www.maderaslegite.com



Erotulazioan eta diseinuan aritzen gara.  
Egin nahi duzun proiekturako hainbat  
proposamen ditugu eskaintzeko, eta hori  
gauzatzen lagunduko dizugu.

Kristalak tindatzea  
Autoak errotulatzeko  
Inprimatze digitala  
3Dko kartel argidunak  
Eranskailuak eta kartelak personalizatzea  
Lokalek errotulatzeko  
Kanpo seinaleak  
Publizitate-olanak  
Bisita-bartelak, albaranak, etab.

☎ 948 58 09 77 ☎ 647 00 63 36

Pol. Ind. Zaldubia, 1  
31730 Iurita (Nafarroa)



Berri orok puzi!!  
**Olari**  
RESTAURANTE



● info@restauranteolari.es  
☎ 948 45 22 54  
● @olari\_restaurante  
● @restauranteolari



## «Pozgarria da gure kultura transmititzea eta emaitza plazan ikustea»

**RUBEN GARATE OLONDRIZ**  
Iruritako dantzaria

«Lan haundiko egunak» dira bestak Ruben Garate iruritarrendako; «15 urterekin hasi nintzen asteburuetan lanean eta geroztik ez ditut udak bertze gazteek bezala disfrutatu. Baina bertze modu batera bizitzen ditut bestak, jendeak mahaietan disfrutatu dezan ahalegintzen».

Hala ere, ttikitako oroitzapen «arras politak» ditu, «bi zehazki: lehenbizikoa bezperan egiten genuen moztorroen dantza, lagun batekin moztortzen bainintzen beti, eta bigarrena Salbatore eguneko dantza erakustaldia. Dantzatera ateratzen ginen eta urduritasun aunitzekin bizitzen genuen».

Gaur egun, berriz, gustukoan duen momentua «bezperako ezkila-jotzea» da. «Niretako arras hunkigarria da, are gehiago jakinda aita eta osaba direla jotzen aritzen direnak».

### Ttikitak dantzan

Dantzarien taldeko kide da Garate 5 urte zituenetik. «Ikasketa eta lanengatik denboraldi batez utzi behar izan nuen, baina nire haurrak hasi zirenean berrartu nuen». Klaseak hartzeaz gain, eman ere egiten ditu: «bere garaian erakutsi zizkidaten dantzak irakasten dizkiet haurrei eta aunitz gustatzen zait. Pozgarria da gure kultura transmititzea eta honen emaitza herriko plazan ikustea».

Bestetako dantza ikuskizuneko azken prestaketak eginda, Salbatore egunean emanaldi ederra emateko prestatu dituzte gazteboenak: «egun kaotikoak dira; entseguak, arropa prestaketak, materiala... baina ongi moldatzen gara». Aurten, 5 eta 14 urte bitarteko 60 haurrek parte

hartuko dute ikuskizunean, «eta dena ongi antolatzeak denbora eskatzen du».

### Aspertzeko astirik ez

Baina dantzatzeko ez ezik, lan egiteko egunak dira Garaterendako, Olari jate-txea eramaten baitu. «Batzuetan zaila da bi gauzak aldi berean egitea, baina lantalde onarekin bi jardueretan, posible da». 23 urtez aritu da Olarin lanean, «eta bertze hainbertze izatea espero dut».

Bestetan «mugimendu handia» izaten da, «tabernan zein jate-txean: kuadrilla eta familien bazkariak, ezkondu aitzineko bestak... denek nahi dute disfrutatu». Gainera, jubilatuen bazkaria ere bertan egiten da urtero, «baina giroa aldatzen ari da, adinekoak faltatzen hasi dira eta ez da jubilatutako berriak sartzen. Ez dakit etorkizun handirik daukan bazkariak, denborak erranen du...».

Azkenik, «besta zorientsuak opa dizkizuet iruritar guzietan, zentzuz eta errespetuz disfruta ditzazuela. Plazan ikusiko dugu elkar ortzegunean eta Olarin gainerako egunetan!».



# Itziar Insaustik baso bainua sortu du Igantziko Irrisarrin

Stockholmeko Jasangarritasunaren 2050eko Agendaren metodologia erabiliz estatu espainiarrean egiten den lehena da eta Europako lehenbizikoetakoa



Itziar Insausti egilea, Irrisarri Landeko ordezkarien artean. UTZITAKOIA

## TTIPI-TTAPA IGANTZI

IrriSarri Land parkean Baso bainuaren ibilbidea sortu dute, «naturarekin oraindik eta gehiago konektatzeko». Itziar Insausti (Iruñea, 1977) antropologoa, hezitzaile artista eta bainu terapeutak diseinatu du baso bainua eta ura, lurra, airea eta sua elementuak aintzat hartuta garatu du. 75 minutuko ibilbidea da, eta naturan oinarritutako interbenztzioa izanik, «modu kontzientean batean naturari so egitea eta bertze begirada batekin begiratzea du helburu».

2050eko Jasangarritasun Agendaren metodologia aintzat hartuta sortu den Baso bainua da. Hala, estatu espainiarrean lehena da eta Europako lehenengoetakoa, horrela diseinatua eta garatu izan dena. Insaustiren erranetan «naturaren konexioa gure gizartearen hainbat esparrutan konektatzeko bide berriak sortzen dira. Baso bainu hau ere horretarako bidea da».

Baso-bainuek osasunean duten eragina argia da: bertzeak bertze, presio arteriala jaisten laguntzen dute, sistema immunologikoa indartzen dute, estresa murrizten dute, eta arreta eta oroimena ere hobetzen dituzte eta zorian-tasuna eragiten dute.

Baso bainuaren ibilbidea jarraitzeko Insaustiren aho-tsarekin grabatutako hainbat audio entzun daitezke euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Bakoitzak helburu zehatz bat du, baina guztiak natura entzun eta barneratze-ko gonbidapenak dira.



**1/6**

**Sinetsi berriro zure aurrezkietan. Eta hazaraz itzazu.**

**Nafarroako Rural Kutxa Gordailua**

Epe finkorako gordailua, **18 hilabete** ra, zure aurrezkiak gero eta gehiago saritzen dituena, **%1,926ko UTB** arekin, honela:

LEHEN SEIHILEKOA:	<b>ITN % 1,50</b>
BIGARREN SEIHILEKOA:	<b>ITN % 1,75</b>
HIRUGARREN SEIHILEKOA:	<b>ITN % 2,50</b>

**Epea: 18 hilabete**  
Interesak sei hilean behin likidatuko dira

**UTB % 1,926**

[www.cajaruraldenavarra.com](http://www.cajaruraldenavarra.com)

Proposamena 2023/12/31ra arte da baliagarria, 18 urteko edo gehiagoko pertsona fisikoentzat. Adibidea, 2023/05/01ean hasitako 100.000 euroko gordailu baterako: 2023/11/01ean 750 euroko interes gordinak likidatuko ditu, 2024/05/01ean 875 euroko interes gordinak, eta 2024/11/01ean 1.250 euroko interes gordinak gehi printzipalaren 100.000 euroak hartara, 2.875 euro gordinetako interesak ondanduko ditu guztira. Komisia aldez aurretik kitatzeagatik %1 da.



Udako tailerretan hartutako irudia. EUSKARA ZERBITZUAK UTZITAKOA

## Udako tailerretan eta haur txokoan apuntatzeko egunak

Tailerrek eta haur txokoa uztailearen 3tik 28ra izanen dira eta matrikula maiatzaren 19tik 26ra bitarte egin beharko da

### TTIPI-TTAPA

Udan etxean ez gelditzeko gonbidapena luzatuz, beste urte batez udako tailerrek eta haur txokoa antolatu dituzte Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Euskara Zerbitzuak, Leitzako Udalak eta Nafarroako Gobernuak.

Uztailearen 3tik 28ra izanen dira, eta lau txanda izanen dira aukeran: uztailearen 3tik 7ra, 10etik 14ra, 17tik 21era eta 24tik 28ra. Ikas mailaren arabera bi talde egingen dituzte: Haur Hezkuntzakoak alde batetik eta Lehen Hezkuntzakoak bestetik.

### Matrikula

Izena eman nahi dutenek maiatzaren 19tik 26ra egin beharko dute. Lehenbizi ordainketa egin beharko da eta ondoren, haur bakoitzari dagokion fitxa bete. [Iparmank.eus](http://Iparmank.eus) webgunean dago eskura.

Prezioei dagokienez, aste eta ordu kopuruaren arabera aldatuko da. Horrez gain, bi senide matrikulatuz gero % 12ko deskontua izanen dute eta hiru senide edo gehiago matrikulatuta % 30ekoa. Hiru orduko (10:00etatik 13:00etara) edo

lauko (09:00etatik 13:00etara) saioak izanen dira aukeran. Ordu kopuruaren arabera, aste baterako apuntatuz gero 38 euro (hiru ordu) edo 46 euro (lau ordu) ordaindu beharko dira; bi astetarako apuntatuta 68 euro edo 84 euro; hiru astetarako izena ematen dutenek 95 euro edo 119 euro eta lau asteak hartuz gero 114 edo 143 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero, gizarte zerbitzuetara (948 51 08 40 edo 681 26 51 89 edo [prebentzioa@lagagizartezerbitzua.org](mailto:prebentzioa@lagagizartezerbitzua.org)) edo euskara zerbitzura (948 51 08 14 edo [лага@iparmank.eus](mailto:лага@iparmank.eus)) jo daiteke.

### Denboraldiko azken film emanaldiak Herri Aretoan

Iragarri bezala asteburu honetan bukatuko da ikasturte honetako zinema denboraldia. Maiatzaren 20an eta 21ean 16:30eko saioan *No somos nada* dokumentala ikusteko aukera izanen da eta 19:00etako saioan *Amsterdam*. Sarrerak [www.leitza.eus](http://www.leitza.eus) atarian eros daitezke.

## HAUTESKUNDEAK



EH BILDU  
David  
ANAUTE  
PEÑA



UPN  
Silvestre  
ZUBITUR  
GOÑI  
(Independentea)

2. Maider Amantegi Urdalleta. 3. Xabier Gartzia Azpirotz. 4. Itxaro Zabaleta Telleria. 5. Victoriano Lizarraga Lazkano. 6. Aintzane Arraiza Begiristain. 7. Iñaki Zabalobetelu. 8. Xabat Illarregi Marzol. 9. Mikel Zabaleta Aramendia. 10. Saioa Sagastibeltza Ganboa. 11. Nahikari Uriarte Intxaurrenondo.

2. Fermin Azpirotz Martinikorena. 3. Eradio Ezpeleta Iturralde. 4. Marga Pamplona Cenzano. 5. Isabel Barros Andion. 6. Iciar Cebrian Tardio. 7. Xabier Bengoa Muñoa (Indep.). 8. Juana Sagastibeltza Zabaleta. 9. M<sup>a</sup> Pilar Iturralde Muruzabal. 10. Francisco Zestau Zubitur. 11. Javier Esparza Abaurrea.



Aurrera elkarteko zuzendaritzako lehengo eta oraingo kideak. UTZITAKO ARGAZKIA

## Julian Zabaletak hartu du Aurrera elkarteko lehendakari kargua

### TTIPI-TTAPA

Aldaketak egin dituzte Aurrera Kirol Elkarteko zuzendaritza batzordean eta aurpegi berriak bildu dira lantaldean. Orain arte zuzendaritza izan direnen artean, Julian Zabaleta da segitzen duen bakarra. Orain arte lehendakariorde lanetan aritu da eta orain, urte luzez lehen-

dakari izan den Karlos Agirrerren lekukoa hartu du, eta, gaur egun Aurrerako lehendakaria Zabaleta da. Bestalde, Amaia Azpirozek eta Oihana Saezek ere zuzendaritza utzi dute. Eta beraien ordez Mikel Astibia (lehendakariordea), Ainara Saralegi (diruzaina) eta Nekane Garrido (idazkaria) sartu dira.

### Aralar Musika Eskolakoentzertuak

Larunbat honetan, maiatzaren 20an, Aralar eta Lekeitioko Musika eskolako kideek kontzertua emanen dute Herri Aretoan, 12:00etan. Hilaren 26an, berriz, *Munduberri baten bila* kontzertua egingen dute Aralar Musika Eskolakoek Herri Aretoan, 17:30ean.

### Sormen egonaldia egin du Unai Gaztelumendik

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak beka lortuta, sormen egonaldia egin du berriki Unai Gaztelumendi marrazkilaria Leitzan eta Berastegin. Egonaldi horretatik tiraka komikia osatzea izanen da bere helburua eta irailera arteko epea izanen du horretarako.

# Eskulangileen azokan ehoziri topaketa egingen dute

Igande honetan, XLIV. Eskulangintza Azoka egingen dute eta tartean Liñu-putzuren XXV. urteurrena gogoratuko dute

## JUAN MARI BARRIOLA

Alke kultur taldeak antolatuta-ko Kultur Aroak aurrera jarraitzen du, eta igande honetan, maiatzaren 21ean, egutegian ongi finkatua den hitzorduak hartuko du lekukoa: XLIV. Eskulangintza Azokak.

Hainbat lanbidetan ari diren 30 bat artisau bilduko dira plazan 10:00etatik 14:00etara. Horrez gain, Liñu-putzuren XXV. urteurrena gogoan, ehoziri topaketa egingen dute. Ehun bat lagun espero dituzte plazan ehoziri lanean. Saralegitarren taloek ere ez dute hutsik egingen,


bide batez, antolatzaileei laguntza bikaina emanez.

## Aste honetan gehiago

Kultur Aroaren barrenean, *Nafarroako mendebaldearen konkista* hitzaldia eta *Gasteiz 1200* komikiaren aurkezpena egitekoak zituzten asteartean eta sendabelarrei buruzko ikastaroa asteazkenean. Ostegunean, hilaren 18an, *Federiko Krutwig eta gaurko ekonomia* liburua aurkeztuko dute 19:30ean Aurrera elkartearen. Oskar Aranzabal eta Baleren Bakaikoa bertan izanen dira.

## Joanes Olaizola garaile izan da Arronizen

Aurrera txirrindulari elkarteko Joanes Olaizola herritarrek garaipena lortu zuen maiatzaren 6an Arronizko XXVI. Borja Osés Memorialean, kadete mailako txirrindulariei zuzendutako proban. Zorionak!



AMAIA IPARRAGIRRE

## Leitza 1954ko 'National Geographic' aldizkarian

Ba al zenekien 1954ko otsaileko *National Geographic* aldizkarian Leitza agertu zela? Euskal Herriari buruzko erreportaje batean egin zioten Leitza-ri tokia. Eta orain, liburutegiko erabiltzaile batek orduko aldizkari bat oparitu dio liburutegiari herritarren eskura utziz.

## Irakurle Taldearen ikasturte honetako azken hitzordua

Ikasturte honetako azken hitzordua ekainaren 7an egingen dute Irakurle Taldeko kideek. Olga Tokarczuken *Erabili goldea hilen hezurren gainetik* hartuko dute esku artean. Gainera, Euskara Zerbitzuak liburu hori euskaratu duen Amaia Apalauza itzultzailea gonbidatuko du.

## Mingaño Saltsan sarietako finala ostiralean Torrean

### TTIPI-TTAPA

Mingaño Saltsan bertso sarietako hiru kanporaketa jokatuta, horietako bakoitzean aurreneko eta bigarren postuan gelditu diren sei bertsolarik jokatuko dute ostiral honetan, maiatzaren 19an, final handia Torrean: Etxahun Lekue,

Aratz Igartzabal *Potto*, Millan Telleria, Onintza Enbeita, Eneko Araiztegi *Korta* eta Agin Laburu ariko dira.

### Finalerako sarrerak

Sarrerak lortzeko 617 26 93 22 zenbakira idatzi edo deitu behar da.

## Hamasei bikotek eman dute izena Plazako Binakako Pilota Txapelketan

### TTIPI-TTAPA

Abian da aurten 30. edizioa beteko duen Plazako Binakako Pilota Txapelketa. Maiatzaren aurreneko asteburuan hasi zen lehia, eta hemendik aurrera ligaxka faseko zazpi jardunaldi jokatuko dituzte uztaile arte. Uztailearen 15ean final laurdenak jokatzea aurreikusi dute; uztailearen 29an finalerdiak eta abuztuaren 5ean final handia.

Hamasei bikotek eman dute izena, iaz baino bi gehiagok, eta bi multzotan ari dira. A multzoan hauek daude: Imanol Urkiola-Xabi Jaunarena, Mikel

Martinez-Eñaut Goikoetxea, Julen Ezkurdi-Aitor Arraras, Hegoi Txoperena-Luken Casares, Andoni Zabaleta-Arkaitz Olano, Ander Alduntzin-Anton Abruza, Jon Iparragirre-Markel Barriola eta Oier Goikoetxea-Xabat Illarregi. Eta B multzoan: Ioanes Ceballos-Mikel Iriarte, J.J. Zubillaga-Iñigo De Carlos, Mikel Zabaleta-Jon Beloki, Jon Mikel Agirre-Ander Garro, Miel Olano-Iñigo Alduntzin, Iñaki Alduntzin-Unai Olano, Janitz Sagastibeltza-Ibai Bengoetxea eta Mikel Sagastibeltza-Mikel Sagastibeltza.



ATEKABELTZ HERRIGUNEAK

## Atekatu arrakastatsua izan da

Atekabeltz Herriguneak antolatuta, aurten bigarren bezala Atekatu ekimena egingo dute. Egun handia maiatzaren 6an izan zuten. Goizean azken hamarkadetan herrian izandako lau borrokaren inguruan bisita-poteo-gidatua egingo zuten. Eguerdian 50 lagun bildu ziren bazkaltzeko eta kontzertuetan ehun lagunetik gora.

## Mendi lasterkarien bilgune izanen da larunbatean herria

Aurten, zortzigarren urtez, Goizutrail Mendi Lasterketa egingen dute larunbat honetan. Hiru modalitate izanen dira aukeran

### TTIPI-TTAPA

Azken orduko prestaketetan murgilduta, VIII. Goizutrail Mendi Lasterketa hartzeko prest da herria. Larunbat honetan, maiatzaren 20an, izanen da.

Lehia 09:00etan hasiko da plazan, eta hiru modalitate izanen dira: laburra 10,6 kilometrokoa; luzea 25,2 kilometrokoa eta erreleboka: bikoteko par-taide batek lehenbiziko hamar kilometroak egingen ditu eta bigarrenak hurrengo hamabostak. Ibilbide motza luzearen lehenbiziko zatia izanen da.

Plazatik abiatuta Aitasemegi auzora igoko dira lasterkariak xenda estu batetik. Lau kilometroren ondotik, Eneko Elorriko bizkarrera (680 m) igoko dira eta berriz herrira jaitsiko dira Espideko sorotik. Ibilbide motza egin behar dutenek hor bukatuko dute proba eta biko-

teka egingen dutenek bikoteari errelebo eman beharko diote. Hortik aurrera, Mandoegira igo beharko dute (1.045m) eta Errekalekun barrena, plazara jaitsi.

Ibilbide luzea irabazten dutenek, emakumezkoetan eta gizonezkoetan, txapela eta 125 euro hartuko dituzte; bigarrenak 75 euro eta hirugarrenak 50 euro. Beteranoetan aurrenekoak herriko produktuen saskia hartuko du eta lehenbiziko goizuetarrak 75 euro. Ibilbide motzean, irabazleak txapela hartuko du eta bigarrenak eta hirugarrenak garaikurra. Aurreneko beteranoak herriko produktuen saskia hartuko du, eta errelebo probaren irabazleek baserriko oilaskoa eta botila ardoa. Bestalde, dortsalak maiatzaren 19an estantokan (18:00-20:00) eta lasterketaren egunean (07:30etik aurrera) plazan banatuko dituzte.



EIDER ETA MIKEL

### 'Txinoko fiestak' giro ederrean

Zubiondo tabernak antolatuta, maiatzeko lehenbiziko asteburuan *Txinoko fiestak* ospatu zituzten herritarrek. Egitarauaren barne, besteak beste, Joanes Illarregiren eta Maddalen Arzallusen bertsoez gozatzeko aukera izan zuten eta ordukoa da argazkia.

### Rokodromoa paratu dute beheko frontoian

Koloreka banatuta eta zailtasun mailararen arabera, eskalatzeko lau biderekin rokodromoa estreinatu dute beheko frontoian. Paretaren ezkerretik hasita eskuekin kolore berdineko presak hartuta eskuinera ailegatzera da helburua.

### HAUTESKUNDEAK



EH BILDU  
Unai  
MIRANDA  
BERROETA

2. Maialen Uitzu Uitzu. 3. Uxuri Perurena Perurena. 4. Igor Elizegi Erbiti. 5. Mertxe Uitzu Anton. 6. Eider Zugarramurdi Osa. 7. Olatz Zubiri Goizueta.



IGOR ELIZEGI

### Elizegi eta Apezetxea txapeldun

Mendialdeko Binakako Pilota Txapelketako finalak maiatzaren 7an Leitzan jokatu zituzten, eta bi herritarrek lortu zuten txapela: Egoitz Elizegik gazteen mailan eta Beñat Apezetxeak nagusien lehenbiziko mailan. Kuadrillakoen animo faltarik ez zuten izan finalean. Zorionak!



MAIXE AIZPURUA

### Mingaño Saltsan sariketa

Mingaño Saltsan bertso-afari sariketako kanporaketa jokatu zuten maiatzaren 5ean Umore Ona elkarteak. Mahaiaren bueltan, Arrate Illaro, Agin Laburu, Ekhiñe Zapiain, Diego Riaño, Maialen Akizu eta Eneko Araiztegi *Kortaren* bertsoez gozatzeko aukera izan zuten bildutakoek.

## Ez da udalerako hautagaitzarik aurkeztu

Horrenbestez, gaur egungo udalak beste sei hilabetez segi beharko du

**ENERITZ IRAOLA** ARESO  
Maiatzaren 28ko hauteskundeetan aresoarrek ez dute udalerako hautagairik bozkatzeko aukerarik izango. Hainbat herritarrek taldea osatzeko eginahalak egin dituzten arren, azkenean ez da zerrendarik aurkeztu.

Horren ondorioz, azken agintaldi honetan udala osatu duten ordezkariak segi beharko dute datozen sei hilabeteetan jardunean. Tarte hori izango da zerrenda berriak aurkezteko, orduan udal hauteskundeen bigarren deialdi bat egingo baita.

## Jolas eta soinu tailerra antolatu dute ekainaren 5erako eta 12rako

**E. IRAOLA** ARESO  
Haizea Loira Matxiñenaren eskutik, 3 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako jolas eta soinu saioak izango dira ekainaren 5ean eta 12an, astelehena. Bi saioak 16:30ean hasiko dira eta bakoitza ordu betekoa izango da. Gizarte zerbitzuek

antolatu dute eta dohainikizango dira. Jakinarazi dutenez, izen ematea maiatzaren 29an irekiko dute eta ekainaren 5era arte izanen da zabalik. Musika eta jolasa bateratuta, ederki pasatzeaz gain balioak ikasi, trebetasunak barneratu eta jarrerak garatzeko aukera izango dute.



NAZABAL ESKOLA

## Literaturaz gozatzeko eguna

Liburuaren Nazioarteko Egunean ospakizun berezia izan zuten Nazabal eskolan. Ipuin kontalari aritu ziren ikasleak eta eguna borobiltzeko Itziar Olaizola irakasleak idatzitako Kristiñeren ibilerak, bertso eguna liburua irakurri zuten, Ander Itturri bertsolariak gitarraz lagunduta.

## HAUTESKUNDEAK ARANON

### HERRI AIERRIZ

1. Joxan Ruiz Miner. 2. Xabier Cueto Martin. 3. Xabier Legarreta Etxarri. 4. Jon Mari Beasain Irausta. 5. Kontxi Claver Oiarbide.

### UPN

1. Roberto Lekunberri Eusa. 2. Fco. Javier Marquez Alegre. 3. M<sup>a</sup> Jesus Abaurrea Urniza. 4. Armando Jimenez Garrido. 5. Dolores Calero Lopez.



Sagastibeltza, Zubillaga, Goikoetxea eta Sotil. UTZITAKOAK

## Sagastibeltza, Zubillaga eta Goikoetxea txapelkun mendialdeko txapelketan

### TTIPI-TTAPA LEITZA

Leitzako Aurrera Pilota Elkarreko pilotariak fin ibili dira Mendialdeko Binakako Pilota Txapelketan. Finalak maiatzaren 7an jokatu zituzten Amazabal pilotalekuan eta hainbat txapel gelditu ziren etxean, Aurrerako pilotarientzat. Lehen mailako kadeteetan, esaterako,

bi bikote finalistak Aurrerakoak izan ziren. Azkenean, Sagastibeltza eta Zubillagarentzat izan da txapela, Bidart eta Telletxeari irabazita.

Bigarren mailako nagusien kategorian, beste txapel bat eskuratu zuen Aurrerako Goikoetxeak, Larraungo Sotilekin bikotea osatuz.



**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidad  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

**Olanak, Roll-up PVC**  
Zuloekin izkinetan, errefortzu bikoitza, formatu handiak, mikroperforatuak...







## «Alkatetzarako talde anitza eta arras ona sortu dugu Arraiozen»

ARITZ ALUNDA PAIN ARRAIOZKO ALKATEA

Urte hasmentan herriko alkatetza hartu zuen Aritz Alunda arraioztar gazteak, eta orain arte egindakoaz eta etorkizuneko asmoez aritu da TTIPI-TTAPArekin

### R. OSKARIZ ARRAIOZ

31 urteko baztandar gaztea da Aritz Alunda Pain. Sei urtez Arraiozko alkatetza taldean ibili ondok, taldeak alkatetza hartzeko proposamena egin zion aurtengo agintaldian, «eta ez nuen zalantzarik eduki». Hautaketa erraza izan zen, batzarrean ez baitzen inor gehiago aurkeztu.

#### Gogotsu hartu duzu kargua?


Bai, Arraioz giro oneko herria da eta orokorrean herritarrekin harreman ona dut. Nire uste-tan, gogoia faktore garrantzitsuena da kargua hartzerakoan. Betitik herrigintzan parte hartu izan dut eta egia erran noiz-bait alkatetza izatea aurreikusten nuen.

#### Zein dira alkatearen ardurak?

Alkatea herriaren kudeaketaz arduratzen da orokorrean mintzatuz: batzarrak antolatu eta aurkezteaz, auzolanak antolatzeaz, herritarren kezkek edo eskaerak entzun eta irtenbideren bat bilatzeaz (posible den heinean), etab. Herriarren eta udalaren arteko bitartekaria da. Uraren aferak ere hor daude, eta nahiz eta talde bat osatu, komisio horren lehendakaria alkatea ere bada. Gainera, alkatea Baztango Batzar Nagusiko kide da eta urtean lau aldiz egiten den bileretan parte hartzen du, herri lurren kudeaketari buruz erabakiak hartzeko eta bozkatzeko.

#### Erraza da aurpegia ematea?

Daramadan denbora gutti honetan ez dut aurpegia au-



Arraiozko alkatea izanen da Aritz Alunda bi urtetarako. UTZITAKOIA

nitzetan eman behar izan, eta erran bezala, giro oneko herrian gauzak errazago kudeatzen dira.

#### Hala ere, lan talde bat duzu gibelean, ezta?

Bai, alkatetza hartu eta talde berria osatu dugu. Bost pertsoneri luzatu nien proposamena eta bortzak baiezkotzea eman zidaten. Hauek dira: Urki Etxandi, Nerea Mortalena, Aitor Zubigarai, Xabier Maritorea eta Miren Urtizberrea. Talde anitza eta arras ona. Momentuz hilabetean behin biltzen gara.

#### Ardurak zuen artean banatzen dituzue?

Ez ditugu norberaren lanak nahi eta nahi ez definitu, baina baliteke denborarekin ba-

koitzak ardura zehatz batzuk hartzea. Bileretan gai aunitzetaz solastatzen gara eta kargudunek gai bakoitzari buruz bere ekarpena egiten dute.

#### Nolako esperientzia izaten ari da?

Orain arte ez zait deus konplikaturik tokatu, baina talde honekin eta herriarekin orokorrean arras gustura nago. Egunerokoan beti badira gauza xume batzuk egin beharrekoak, gehienetan lan admi-

«GIRO ONEKO HERRIAN GAUZAK ERRAZAGO KUDEATZEN DIRA»

nistratiboak, baina orokorrean erraz eramaten ahal den kargu bat da.

#### Erdizko meategiarekin azken agintaldian alkateek izandako arazoak ez zaituzte beldurtu?

Azken agintaldian alkate gehienek Erdizko meategiaren inguruan izan duten jarrera txalotzekoa da eta herritarren iritzia biltzeko egin dituzten ahaleginak aunitz eskertze-koak. Erdizko meategiaren, Aroztegiko proiektuaren edo edozein erasoren aurrean nire jarrera tinkoa izanen da eta astakeria horien aitzinean eramanez diren borroketa parte hartuko dut. Nire izatea ez dut aldatuko eta Arraiozko herritarrek hori badakite.

#### Herriari dagokionez, zein hobekuntza egin dira azken urtean?

Arraiozen azken urte hauetan ez dira inbertsio handirik egin, baina azpimarratzeagatik eskola haunditzearen hobekuntza erranen nuke. Nahiz eta obrak ez hasi proiektua baieztatua dago eta hori aitzineko agintaldiaren lorpen bat izan da. Bertzalde, zubia konpondu da eta gaineko biribilgunean abuztu aldean moldaketa lanak eginen dira aparkaleku bat sortuz. Azken urte hauetako ur eskasia dela eta, Zokoako ur sorburutik ura herriko ur depositura lotu dugu eta hori ere hobekuntza handi bat izan da herriarentzat.

#### Eta zein behar ikusten dituzu?

Herriko frontoiaren egoera hobetu beharko liriteke eta horretan gabiltza udalarekin. Bertzalde, haurren aisialdi toki hobea behar dugu eta herritik autoen abiadura murrizteko neurriak hartu behar ditugu. Etxebizitzaren kezka ere hor dago; Baztanen oro har etxebizitza duin bat aurkitzea arras zaila da eta Arraioz horren barne dago. Lanketa sakon bat eskatzen du gai honek, baztandarrok Baztanen bizi ahal izateko.

#### Zein da zuen helburu nagusia aurtent?

Eskolaren obrak ahalik eta fiten hastea nahiko genuke.



Gaur egun, zorionez, haur aunitz daude herrian eta eskolaren tamaina ez da nahikoa. Espazio haundiagoa eta duintzagoa merezi dute ikasle zein irakasleek.

### Eta kultura aldetik nola ikusten duzu herriko eskaintza?

Arraiozen, bertze herri baztuetan bezala, guraso elkar-teak eta gazteak dira herriko kultur ekitaldi gehienak antolatzen dituztenak. Hor ditugu, herriko bestak, inauteriak, Orakunde, Eguberrien inguruan antolatzen diren ekintzak, etab. Horrez gain, apiriletik aitzinera asteburu-ro laxoa partidak ikusteko aukera izaten da Arraiozko belarrezko plazan. Ezin aipatu gabe utzi herrian dagoen mus zaletasuna; Arizti elkar-tean urtero ospatzen den mus txapelketan herritar andanak parte hartzen du.

### Nahiko ttikia da Arraioz, nola ikusten duzu herriaren etorkizuna?

Etorkizun ona ikusten diot herriari. Lehen aipatu bezala, haur dezente bada herrian, eta hori etorkizunaren parte handi bat da. Nik uste gaur egungo herritarren arteko lotura eta inplikazioa atxikitzen bada, herria ongi moldatuko dela etorkizunean.

### Zerbait gehitu nahi duzu?

Tartetxo hau probestu nahiko nuke orain arteko agintaldian alkatetza taldean egon direnei eta orokorrean herriaren alde lan egin duten guzietan esker-tzeko. Segi horretan!

# Giro ederra izan dute Izpegiko V. igoeran

Jendetza hurbildu zen autoak ikustera eta sari banaketara, eta Jon Oskozi omenaldia egin zioten



Irabazleak podiumean, autoak igoeran eta Jon Oskozen familia. PELI AVM

### TTIPI-TTAPA

DRS Razing taldeak eta Nafarroako Automobilismo Federazioak Izpegiko V. igoera antolatu zuen maiatzaren 6an. Eguerdian hasi zen igoera eta hainbat taldeko 41 ibilgailuk parte hartu zuten. Eguraldia lagun, giro ederra izan zuten gidariek eta ikuskizuna ikustera hurbildu ziren motorzaleek. Partaide guztiak ibili ondotik, sari banaketa egin zuten arratsaldean. Hauek izan ziren kategoria bakoitzeko irabazleak eta haien ibilgailuak:

### Turismoak

1. Bruno Scherer - Porsche 911
2. Andoitz Garmendia - BMW M3
3. Iñaki Zozaia - Porsche 911

### Monoplazak

1. Andoni Blas - Speed Car GT
2. Abel Lombardo - Dallara F3
3. Iker Palacios - BRC B52

### Omenaldia Jon Oskozi

Sari banaketaren ondotik, omenaldia egin zioten Elizondoko Jon Oskozi, rallyetan eta igoeretan ibiltzen zen motorzalea izan zenari. DRS taldeak oroigarriak eman zizkion familiari, eta Jonen irudiak ikusi zituzten bideo batean. Antolatzaileek adierazi dutenez, «ekitaldi hunkigarria» izan zen.

## EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOA

Proiektu, baimen eta diru laguntzen gestioa  
Amortizazio planen azterketa



# ELEK BERRI

INSTALAZIO  
ELEKTRIKOAK

646854825 / 616898065 · [elekberri@gmail.com](mailto:elekberri@gmail.com) · Elizondo (Baztan)



Amaiurren egin zuten itzulia iaz. BAZTANGO MENDIGOIZALEAK

# Baztango XXVIII. Mendi Itzulia maiatzaren 28an

Izen ematea irekia dago eta luzera desberdineko bi ibilbide egiteko aukera izanen da

## TTIPI-TTAPA

Baztango Mendigoizaleak taldeak aurtengo mendi itzulia antolatu du, maiatzaren 28an Iruritan egingen dena. Bi ibilbide izanen dira: A ibilbidea (motza) eta B ibilbidea (luzea). Itzulia 07:00/07:30ean abiatuko da eta kontrol postuak izanen dira bide guztian zehar.

**A ibilbidea** 21 kilometroko luzera eta 1.300 metroko desnibela izanen du. Ariztegitik Urkiztiera (690 m) joanen da, Bailei pasatu eta Arbizuko errekatik Meakara (636 m) joanen da eta Kalañen bordatik beheiti herrira bueltatuko da.

**B ibilbidea** 30 kilometroko luzera eta 2.000 metroko desnibela izanen du. Bidea Baileira igoko da, eta Kintoko bidetik Dendaiteko bordara joanen da (945 m). Azaldegitik Astabizkarrera joanen da (1.128 m) eta handik Meakara jaitsiko da Kalañen bordatik herrira bueltatzeko.

## Izen ematea

Izena [mendizmendi.com](http://mendizmendi.com) webgunean eman daiteke 26ra arte, edo egunean bertan Iruritan 06:15etik aitzinera. Parte hartzeko 12 euro ordaindu beharko dira, federatuek 10.

## HAUTESKUNDEAK



EH BILDU  
**Fernando ANBUSTEGI GOÑI**



GEROA BAI  
**Lander SANTAMARIA ALCOGER**

2. Lorea Lizarreta Insausti. 3. Maria-no Iribarren Irigoien. 4. Alaitz Arretxea Etxeberria. 5. Jose Luis Retegi Ilturbide. 6. Gorka Urtasun Saldias. 7. Izargi Zumarraga Etxandi. 8. Ainara Unanua Arizmendi. 9. Josebaa Arrijuria Landa. 10. Maider Azkarate Tomassone. 11. Xabier Maia Etxeberria. 12. Elisa Almandoz Irigoien. 13. Joseba Otondo Bikondoa.

2. Mikel Garbalena Goñi. 3. Izaskun Goñi Errazkin. 4. M<sup>a</sup> Jose Pagazaurtundua Ibart. 5. Carlos Garaikoetxea Etxenike. 6. Fco. Javier Etxenike Urroz. 7. Javier Zabaleta Andresena. 8. Laura Igantzi Mitxelena. 9. Eva Sorbet Pezonaga. 10. M<sup>a</sup> Antonia Arana Seguin. 11. Jose Ignacio Aranburu Gonzalez. 12. Jose De Carlos Irigibel. 13. Ana Olo Hualde.



INDEPENDENTEAK  
**Pello SARRATEA SANZBERRO**



UPN  
**Anastasio NAGORE GARRALDA**

2. Andoni Irigoien Maritorea. 3. Mattari Altzuarte Gaztelu. 4. Beatriz Etxeberria Valcarlos. 5. Mirentxu Garbiñe Fernandez Aretxabala. 6. Luis Miguel Mortalena Saldias. 7. M<sup>a</sup> Pilar Iturregi Bikondoa. 8. Santiago Urrutia Juanikotena. 9. M<sup>a</sup> Rosario Bergara Mihura. 10. Francisco Bengoetxea Felipe. 11. Patrizia Leiza Arraztoa. 12. Martin Antonio Arriada Mitxelena. 13. Miren Vera Rodriguez.

2. M<sup>a</sup> Carmen Iribarren Iribarren. 3. Ignacio Agerrea Almenar. 4. Consolacion Agerrebere Zelaieta. 5. Marco Molina Irtzoki. 6. M<sup>a</sup> José Saldias Saldias. 7. Jose M<sup>a</sup> Garmendia Arizmendi. 8. Isabel Olabe Ballarena. 9. Carlos Idoate Ezkieta. 10. M<sup>a</sup> Carmen Irigoien Sarratea. 11. Fco. Villarejo Prieto. 12. Jesus Miguel Egurrola Iraola. 13. M<sup>a</sup> Nieves Ballarena Erramuzpe.



ZUREKIN  
BAZTAN  
**Florentino GOÑI TELLETXEA**

2. Iñigo Iturralde Elizetxe. 3. Joseba Moreno Bidegain. 4. Nerea Frias Iturria. 5. M<sup>a</sup> Resurrecion Elizagoien Etxegarai. 6. Aitor Baztarrika Zelaieta. 7. Miren Oposa Bikondoa. 8. M<sup>a</sup> Lourdes Oharriz Martikorena. 9. Miguel Angel Aleman Sarratea. 10. M<sup>a</sup> Teresa Iturbide Lucas. 11. Aitor Jaen Braña. 12. Nestor Arturo Charanchi Saavedra. 13. M<sup>a</sup> Isabel Mikelarena Domec.

**CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE**  
**abokatua**

Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818  
Santiago, 59 2C ELIZONDO

**TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN**

Jarrai gaitzazu!

facebook  
[www.facebook.com/ttipi.ttapa](http://www.facebook.com/ttipi.ttapa)

**JOSEPHINE'S**  
20 ENGLISH 13

BAZTAN

Pedro Avular karrila, 2 Elizondo

**BERTAKO IRAKASLEA**

Lehen hezkuntza  
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com



Aitor Ripa, Izar Inbuluzketa eta Eneko Irazoki txistulariak. ONDIKOL

## Baztango txistulari gaztetxoaren maila saritu dute

Euskal Herriko Txistulari Gazteen Txapelketan garaile izan dira bertako txistulariak

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat txistulari gaztetxoaren bilgune izan zen apirilaren 29an Bilboko BBK Aretoa, Euskal Herriko Txistulari Gazteen Txapelketan. 22 bakarlarik parte hartu zuten eta horien artean ziren saria eskuratuta etxeratu ziren Aitor Ripa Eritze, Izar Inbuluzketa Arroabarren eta Eneko Irazoki Viela.

Aitor Ripa Eritze iruritarrak A kategorian parte hartu zuen, hau da, 12 urtez azpikoetan. Parte hartu ez ezik, epai-mahaiak lehendabiziko saria

eman zion eta hala, beretako izan ziren 250 euro, garaikurra eta txapela.

B kategorian, berriz, 13 eta 16 urtekoen kategorian, lehendabiziko bi postuak Baztanen gelditu ziren. Sari nagusia (300 euro, garaikurra eta txapela) Izar Inbuluzketa Arroabarrenendako izan zen. Berez Orkoiengo bada ere, gurasoak Elizondokoak ditu Inbuluzketak.

Bigarren postua Eneko Irazoki Viela iruritarrarendako izan zen eta 250 euro eta garaikurra hartu zituen saritzat.

## Zigako eskolako ikasleen bisita TTIPI-TTAPAra

Zigako eskolakoak TTIPI-TTAPA bisitatu zuten maiatzaren 2an. Ondotik, Olentzeroren ginkana egin zuten Lesakan, goiz-pasa. Maren, Ainara, Inar, June, Aroa, Oier, Hegoi eta Anek adi aditu zituzten azalpenak, Maite eta Izaskun irakasleekin batera. Milesker bisitagatik!



TTIPI-TTAPA



ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLA

## Lanbide Eskolako ikasleak Anberesen

'Ostatu eta garbiketa arloko laguntzailea' graduko ikasle eta irakasleak Anberesen (Belgikan) egon ziren 10 egunez. Bertako bi ikastetxerekin elkarlanean aritu ziren, «ikasleak praktikak egiten dituzten leku eta enpresak ikusi eta bertako kultura, hizkuntza, ohitura eta lagun berriak ezagutzeko».



**ANZABAL**  
Inmobiliaria

- Inmobiliaria  
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharritz Auzoa z/g - LEKAROZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com



EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



# Arrakastatsua izan da Iruritako III. Mendi Duatloia

Eguraldia lagun, 44 bikote eta bakarkako 11 partaide izan zituen lasterketak

## TTIPI-TTAPA IRURITA

Iruritako III. Mendi Duatloia jokatu zen maiatzaren 7ko goizean eta 44 bikotek eta bakarkako 11 partaidek parte hartu zuten lasterketan. Antolatzaileek azaldu dutenez, «eguraldiak lagunduta jendetza bildu zen, ikaragarriko giroa sortu zen herrian eta ibilbide guztian zehar ere jende pila bat izan zen kirolariak animatzen. Herriko jendearen erantzuna bikaina izan zen, auzolan erraldoi bat bilakatu zen eta antolakuntzatik esker hitzak bertzerik ez ditugu».

## Emaitzak

Bakarkako proban, Eneko Gurrutxaga Ugarte izan zen garaile 01:38.26 denborarekin, Iñigo Aseginolaza Garmendia bigarren 01:42:11 emaitzarekin eta Mikel Urtxegi hirugarren 01:47:33 denborarekin. Unai Plaza Arnal lekaroztarrak podiumera igotzea lortu zuen ia, hiru segundoko aldeagatik.

Binakako proban, gizonetakoetan Hodei Aleman eta Unai Barazabalek irabazi zuten 01:30:14 denborarekin, Koldo

Herrera eta Iñigo Arrieta izan ziren bigarren 01:31:34 denbora lortuta eta Enaitz Bertiz eta Ekaitz Bertiz hirugarren 01:32:59 emaitzarekin.

Binakako emakumezkoetan, Josune Berho eta Maria Azpiroz izan ziren txapeldun 02:12:15 denborarekin, eta Sarai Maritorea eta Mikele Etxekolonea bigarren 02:18:55 denbora lortuz.

Bikote mistoetan Aitor Begino eta Amaia Jorajuria izan ziren garaile 01:45:54 denborarekin, Asier Biurrarena eta Ainhoa Etxegarai bigarren 01:47:50 denborarekin eta Ainhoa Retegi eta Beñardo Petrikorena hirugarrenak 01:51:35 emaitzarekin.

Honez gain, lasterka eta bizikletan azkarren ibili ziren lehiakideak saritu zituzten. Korrika Eneko Esparza eta Noemi Martiarena izan ziren nagusi, eta bizikletan Koldo Herrera eta Josune Berho. Iruritarrei dagokienez, Julen Loiarate eta Ainhoa Retegi izan ziren herriko lasterkari azkarrenak, eta bizikletan Hodei Alemanek lortu zuen saria.



Lasterkariak 8,5 kilometroko ibilbidea egin zuten korrika. MIKEL HUALDE



Txirrindulariak helmugara ailegatzen Iruritan. ONDIKOL



Irabazleen taldeko argazkia herriko plazan. ONDIKOL



647 77 31 33

**Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean**




# 'Libre' ikuskizuna Iruritako Dantzari eta Koro Ttikirekin

Herriko pilotalekua gainezka, emanaldi berritzailea egin zuten dantzari eta abeslariak maiatzaren 6an Iruritan

## TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Iruritako Dantzariak, Koro Ttikirekin elkarlanean, kanta eta dantza uztartu dituzte ikuskizun batean. Maiatzaren 6ko arratsaldean Iruritako pilotalekuan aurkeztu zuten *Libre*, eta jendetza hurbildu zen

musikaz eta dantzez gozatzera.

Dantza tradizionala ardatz bazuten ere, musika, soinu eta erritmo berriak erabili zituzten emanaldi berritzailea egiteko, eta jantzi eta dekorazioarekin batera ikuskizun ederra eman zuten.



Irudi ederrak utzi zituen ikuskizunak. JAIME VIGURIA

## Lanbide Eskolak eta Gizarte Zerbitzuek sukaldaritza ikastaroa antolatu dute

### TTIPI-TTAPA

Ostalaritza eta turismoko laguntzaile zikloko ikasleek sukaldaritza ikastaroa antolatu zuten apirilean, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Gizarte Zerbitzuekin batera.

Gu Irakasle proiektuaren barnean antolatu dute; zazpi ikasle irakasle lanetan aritu dira, eta kanpoko 12 laguni bertako platerak egiten irakatsi diete. Hiru saiotan banatu dute tailerra eta azkenekoan partaideek haien lurraldeko plater tipikoak prestatu zituzten.



Ikastaroko partaideak. GIZARTE ZERBITZUAK

Antolatzaileen erranetan, «interesgarria izan da ikasleak irakasle bihurtzea, baita erronka bat ere. Bertze lurraldeetako platerak ezagutzea aberasgarria izan da».



GIZARTE ZERBITZUAK

## 66 ikasle Gaztetik Gaztera jardunaldian

Baztan, Bidasoa eta Malerreka enplegu mahaiak Gaztetik Gaztera jardunaldia antolatu zuen apirilaren 28an Arizkunenean. Eskualdeko 66 ikasle parte hartu zuten. Taldeka, komertzioen belaunaldi erreleboaren erronka landu zuten lehiaketa formatuan, aurkeztutako lanbideetan hautagai posibleak bilatuz.



**instalazioak**  
**IGOGAILUAK**



**PROFESIONALAK**  
**KALITATE-BERMEA**  
**IRISGARRITASUNA**  
**MANTENTZE LANAK**

**EZ ZAITEZTE KEZKATU!** Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

**Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999**  
[suteia@suteiazaldain.com](mailto:suteia@suteiazaldain.com)

- 1**

**KANPOKO IGOGAILUAK**  
Kanpoko fatxadak gutxi integratuak, portal berrak sarbidea, inguru eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.



- 2**

**BARRUKO IGOGAILUAK**  
Eskualdeko tartean integratuak. Sarbidea portal berrak, inongo estropak gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpi-aulkian daudenentzako egokitasun.



- 3**

**IRISGARRITASUNA**  
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpi-aulkian daudenentzako portalentzako sarbidea egokitzten dugu. Azkar egin ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.




## Berroetako bestak maiatzaren 26tik 29ra ospatuko dituzte

### TTIPI-TTAPA BERROETA

Maiatzaren 26tik 29ra ospatuko dituzte aurten Berroetako bestak, eta egitarau zabala prestatu dute.

**Maiatzak 26, ortziralea, bezpera.** 17:30ean Jabi magoa. 19:00etan altxaferoak eta trikitilariak herritik. 19:30ean txopo goratzea egingen dute eta ondotik mutildantzak dantzatuko dituzte. 21:00etan baztan-zopak izanen dituzte eta ondotik dantzaldia Triki-dantzen eskutik. Gantorri autobus zerbitzua izanen da.

**Maiatzak 27, larunbata, haur eta gazte eguna.** Puzgarriak izanen dira herrian egun osoan. 14:00etan herri bazkaria. 17:30ean txokolatada. 18:00etan Tukutuku txaranga. 19:00etan paella eta postre txapelketa izanen da eta 21:00etan herri afaria. Eguna akitzeko, dantzaldia izanen da Bizpahiru pelau taldearen eskutik.

**Maiatzak 28, igandea, Mendekoste eguna.** 10:00etan erraldoi eta gaiteroak herritik barna eta 11:00etan meza nagusia eta luntxa izanen da plazan. Eguerdian, Txaruta elkartearekin pilota partidak. 18:30ean, *Komediaren berpizkundea* monologoak, Antton Telleria, Iker Plazaola, Julen Portillo eta Mirari Martiaren eskutik. 19:30ean Andoni akordeolaria eta 21:00etan zingar jatea egingen dute kantuzaharrek.

**Maiatzak 29, astelehena, zikiro eguna.** 11:00etan Berroetako 49. Bizikleta Itzulia egingen da. 12:00etan mus eta partxis txapelketa. 14:00etan zikiro jatea izanen dute Beñatek alaiturik eta 19:00etan herri-tarren arteko jokoak. 21:00etan zingar jatea eta kantzak izanen dituzte eta bestak akitzeko 00:00etan Gaixoa ni.

# ZUGARRAMURDI



Ura edangarri egiteko planta azarorako finitu behar da. ARTXIBOKOA

## Ura potabilizatzekeo planta egiteko dirulaguntza hartu da

Lanak 116.271 euroko kostua izanen du, baina 67.471 euroko dirulaguntza hartuko da eta azarorako finitu beharko da

### MARIFA ETA KORRO

Seguraski uraren kudeaketa izanen da udaletxe gehienen buru hauste haundiena, eta beti dirulaguntzen zain egon behar izaten da. Bada, honen kontura badugu berri on bat herrian: aspaldixkotik ura potabilizatzekeo planta bat egin behar zen eta hondarrean hori egiteko dirulaguntza hartu da. Lanak 116.271,04 euroko kostua du, baina 67.471,47 euroko dirulaguntza hartuko da.

Zorionez ere, deposituaren gaineko aldean herri lurra badago eta han paratuko da. Bertze gisa, desjabetzea egin

behar izanez gero, kostea handituko zen.

Azkeneko desafioa, azarorako lana finitua behar duela da, eta hori ere gatazka polita izaten da: nork egingen duen, denboraz akitzea... Hala ez bada egiten, dirulaguntza galduko baita.

### Hauteskundeetan bi zerrenda

Ondoko zutabearen agerienez, bi zerrenden arteko lehia izanen dugu udal hauteskundeetan. Behin bakarrik gertatu da hori. Seinale ona da, herriaren alde lan egiteko gogoia dagoela erran nahi baitu.

## HAUTESKUNDEAK

### AKELARRE

1. Evaristo Mentaberri Mihura. 2. Manuel Soto Rodriguez. 3. Juan Miguel Ariztegi Etxenike. 4. Gerardo Eseberri De Carlos.

### AUZOLANEAN

1. Julene Arburua Fagoaga. 2. Mikel Pedro Mitxelena Etxebeste. 3. Jean Michel Olaiola Barberena. 4. Iñigo Arburua Apeztegia. 5. Argitxu Agerre Olaiola.

## Eguneko erizainik gabe gelditu dira Urdazubin eta Zugarramurdi

Eskualdeko berrantolaketak direla eta, Urdazubin eta Zugarramurdi eguneko erizainik gabe gelditu dira, hau da, medikuarekin kontsultak pasatzen zituen erizainaren postua kendu dute. Jendearren jarraipen zuzena egiteko, seguraski hobe izanen zen beti erizain bera izatea, orain arte ezagutu dugun bezala, baina maiatzetik aitzinera kontsultak, larrialdiak eta oporrak hiru erizainen artean txandatu dituzte. Hala ere, segur gaude Maria, Uxuak eta Lurdesek bere lana ederki egingen dutela.

Aldi berean, milesker eta aio erran Amaia eta Laurari, eta animo berdinarekin segitu dezala Bene gure medikuak.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Drogeria - Garbiketa produktuak  
 Ferretaria - Sukaldeko tresnak  
 Mozorroak - Papertegia  
 Kiroleko eta mendiko jantziak  
 Moda - Oinetakoak  
 Laneko arropa - Bitxiak  
 Lurrin-denda  
 Kosmetika, Elektronika  
 Telefonoak - Poltsak eta maletak  
 Etab.

T. 608 016 052  
San Andres, 66 - NARBARTE  
(Sarrera Legasatiki)

**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

Kanltonberri, 1 | BERA  
 T. 948 631 218  
 joxemi@kateabike.com  
 www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO  
 BERGAMONT BH coluer LOOK  
 MIBISSI MERIDA

## Dena prest dago aste honetan herriko bestak ospatzeko

Plazako txozna martxan jartzeaz gain, berriz ere zapi gorriak salgai eman dituzte aurten

### ARANTXA ETA IRAIA

Bestetarako prestaketak duela hilabete andana hasi bazi-  
ren ere, azken momentura arte izan da zer egin herrian eta horretan burubelarri ibili dira herriko gazteak. Kartel edo afixen banaketa, boletoen salmenta edo plazako txosna martxan jartzea izan dira lan horietako batzuk. Horrez gain, aurten bestetako otorduetako sarrerak besten aitzinetik saldu ziren. Maiatzaren 6an eta 7an asteazkeneko herri afariko, paella jateko eta zikiroko sarrerak erosteko aukera izan



Zapi gorriak berriz ere salgai.

zen herriko plazan. Berrikuntza gisa, duela urte batzuk ateratako zapi gorriak berriz ere salmentan eman ziren herritar guzientzat.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Alzuyet aita-alabak kenpo-kain abilak

Iñaki Alzuyet eta Aiora eta Nahia Alzuyet aita alabak jo ta su ari dira Kenpo Kai-n hobetu nahirik. Beran maiatzaren 6an jokatutako Nafarroako txapelketan hainbat sari lortu zituzten eta irailean hitzordu garrantzitsuagoa izanen dute, Tunisian jokatuko den Munduko txapelketara joanen baitira.

## HAUTESKUNDEAK



AZKAR  
Iñaki  
ARIZTIA  
URRIZA



PP  
Silvia  
OLAIZOLA  
BIDART

2. Cristobal Alzuiet Martin. 3. Jose Luis Gomez Sierra. 4. Pedro Lanau Alonso. 5. Javier Diaz Ramos. 6. Txomin Iribarren Larralde. 7. Santiago Villares Otegi.

2. Jose Carmelo Muñoz Rodrigo. 3. Yolanda Bello Prada. 4. Antonio Fernandez Menendez. 5. Maria Carmen Prada Villagroi. 6. Victoria Pilar Gartzia Bakero. 7. Javier Arenas Bocanegra.

## 'Bikote bila. Zenbat komeri' bakarrizketa

Ugarana elkartek, udalaren laguntzarekin antolatuta, *Bikote bila. Zenbat komeri* bakarrizketa eskaini zuen Alazne Etxeberria aktoreak herriko kultur etxean maiatzaren 12an. Jende andana bertaratu zen bakarrizketa ikustera eta ondotik antolatu zen afarira.

## Herriko futbolzaleak Osasuna animatzera Sevillara joan ziren

Denen ahotan ibili da Osasunaren Errege Kopako finala. Herrian hainbat bandera eta kamiseta gorri ikusi ziren Nafarroako taldea animatzeko. Gainera, zenbait futbolzale Sevillarat joan ziren Osasuna animatu eta, nahiz eta galdu, asteburu ederra pasatzeko.

**Giltzak eta aginteak**  
**AUTOA - MOTOA - KAMIOIA**  
Giltzak galdu badituzu, guk lagunduko dizugu

**IBARGOYEN**  
SUMINISTROS CARROCEROS

**www.ibargoyen.net**    **943 616 587**  
Molino Errepidea, 21 - 20305 - IRUN



Eskolako neska-mutikoak, Pontx pailazoarekin. GANEX

## Eskolan euskara erakasten hasi zirela 40 urte bete dira

Urteurrena ospatzeko, Pontx pailazoen eta haurren kantuez gain, hainbat agintari izan dira apirilaren 26ko ekitaldian

### GANEX

Sarako eskola publikoak antolatu zuen 1983an, duela berrogei urte, lehenbiziko aldiz eskolan euskara erakustea haurrei. Karia hortara, apirilaren 26an, asteazkenez, ekitaldi jendetsua egin zuten. Pontx pailazoak emanaldia egin zuen. Izugarri kontent ziren denak, partikulazki haurrak. Nagusien mintzaldiaren aitzinetik, haurrek eman dituzte bi kantu, handienek *Ikasi nahi dut* eta *ttipiek Behin betikotz*.

Battite Laborde auzapezak, denei ongi etorria egin zien eta izugarri kontent ageri zen, «eskola publikoan ere euskara haurrek egiten dutela eta agian ainitz urtez». Ondotik Saint-Pee senadorea, departamenduko ordezkaria, Eskoletako buruzagia, Ikas bi-ko lehendakaria eta bertze batzuk mintzatu ziren.

### 80 hur orduan, 50 bat orain

1983an antolatua izan zelarik Paul Milhet zen zuzendaria eta 80 bat hur baziren orduan eskolan euskara ikasten. Gerortik ttikituz joan da, orai 50



Pontx pailazoaren emanaldiari adi.



Agintariak eskolaren atarian.

bat dira bakarrik, baina erran behar da, lehen ez zela ikastolarik Saran eta horregatik eskola publikoan haur guttiago ari dira euskara ikasten, zeren ikastolarat joan baitira aunitz, osorik euskaraz ikastera. Elkarretaratze hori bukatzeko zintzur bustitzea pintxoekin izan dute.



Kanporaketan parte hartu zuten bertsolariak, tartean Aizpurua anai-arrebak.

## Haira eta Unax Aizpurua Ibargarai Eskolarteko Bertso txapelketako finalera

### TTIPI-TTAPA SARA

Maiatzaren 6an jokatu zituzten Azkaineko Biltoki gelan Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoko Eskolarteko Bertsolari Gazteen Txapelketako bi kanporaketak, eta dagoeneko erabakia da zein sei bertsolarik kantatuko duten Itsasuko finalean. Tartean dira Haira eta Unax Aizpurua Ibargarai saratarak.

Bi horiekin batera, Haize Lekuona Blanco, Ibai Lekuona Darceles, Oihan Perez Harispe eta Aiantze Lannes Butron bertsolariak ariko dira kantuan finalean.

Finala Itsasuko Sanoki gelan jokatu dute maiatzaren 28an. Bertan zortziko handian bina bertso osatu beharko dituzte ofiziotan, zortziko txikian bi bertso kantatu beharko dituzte ofiziotan, puntu bat erantzun beharko dute, eta ondotik, bakarka gaia emanda gehienez bost puntuko bertso bat osatu beharko dute.

Final horretan txapeldun eta txapeldunorde suertatzen direnek, Euskal Herri osoko finalean parte hartuko dute ekainaren 3an Iurretan (Bizkaia), bertze herrialdeetako ordezkariekin batera.



GANEX

## Eskolako gurasoen selauru hustea

Apirilaren 30ean egin zen kiroldegian eskola publikoko haurren burasoek antolatutako selauru hustea. Baziren 35 saltzaile, eta denak kontent ziren, salgai gehienak saldu baitzituzten. Ostatuak ere izan zuen arrakasta eta kafe, pastiza eta ogitarteko aunitz saldu zituzten.



## Hatsaren Poesiaren 25. liburua argitaratu dute

Apirilaren 16an Amotzeko Larraldean egindako Poesia Egunean aurkeztu dute 126 olerkilarien lana

### JL BESSONART

Amotz-Larraldean iragan da apirilaren 16an Hatsaren Poesia Eguna. 40 lagun bildu dira eta 25. liburua molde ederrean ospatua izan da. Aurtengo liburua sekulan baino gotorragoa da (368 orrialde) eta Euskal Herri osoko 126 olerkarik parte hartu dute. Auxtin Zamora, ekitaldi honen zuzendariaren 80 urteak alaiki ospatu dituzte. Andoni Iturrioz ere eskertu dute, bere etxea euskararen zerbitzurako bihotz onez uzteagatik. Egunak segitu du bazkari partekatuarekin, olerki irakurketarekin, musika eta kantuekin.

### Kanita Urrats Salbatozez

Kanita Urratsen hirugarren edizioa iraganen da, maiatzaren 18an (09:00-18:00), pilota plazan, Arbaso elkarte eta



Hatsaren Poesia Eguna. UTZITAKOIA

herriko etxeak antolatutik. Hamabortz ganibet-egile, beraien eskuz eginiko obrak aurkeztuko dituzte. Hauekin batera, inguruko ekoizle leku-ko produktu anitzekin baita eskulangile andana bat, zinezko artisau eta artistak direlakoan zernahi gauza sortzen dituzte, zenbait materiala baliatuz. Animaziorik politena, baita olaren inguruko lana ikusgai, ahantzi gabe betiko janari-edariak lekuan bertan.



JL BESSONART

## Amaiur Jauregi txapeldunorde

Federazioaren pilota txapelketan, buruz-buruka Baionako trinketean, B mailako amateurren kondu ari zaigun herritarrek, Amaiur Jauregik, partida parekatu baten ondorioz, amore eman zuen final lehiatuan Mauleko Queheille pilotariaren kontra (35-40).

## Herriko Etxeko informazioa eskuratzeko 'Panneau Pocket' aplikazioa aktibatua

### JL BESSONART

Herriko informazioa edo argibideak eskuratzekotan, aplikazio berezi bat aktibatua da *Panneau Pocket* izendatua, bakoitzak bere mugikorrarekin balia dezakeena. Frogatuz geroz, aitortzekoa da ongi baliagarri dela. Bertzalde, *Sen-*

*peren Ibiliz* delakoak bolondresak xerkatzen ditu. 2022ko hastapenean, Dominique Idiarten ekimenez, xofur talde bat osatu zen eta geroztik lan asko egin da. Zerbitzu hori beharrezkoa bilakatu da zombait adineko jendeendako. 65 urte goitikoeri zabaldua da.



UR IKARA/ARNAUD LEGUE

## Ur-Ikara aintziran

Batteleku lehiaketa antolatu zuen Ur-Ikara elkarteak apirilaren 29an aintziran. Dozena bat eskifaiek parte hartu dute. Usaian itsasoan ibiltzen dira, baina lorietan etortzen dira aintzirara. Joan den urteko irabazle bera ukan dugu, Mattin battelekua, Hergarai eta Marttaren aitzinean.



JL BESSONART

## Goienetxe eta Oronoz ere finalean

Trinketean, Euskal Herriko ligako palako finalean ere galdu egin zuten SPU Ceko Marie Goienetxek eta Ania Oronozek. Sekulako partida egin zuten eta tanto bakarragatik (39-40) galdu zuten gaur egun titulu gehien duten Maritxu Chapelet-Housset eta Amaia Etxelekuren kontra. Ez dira urrun!



Mendialdeko pilota txapelketako finalistak sari banaketaren ondotik. UTZITAKOIA

## Mendialdeko pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Maila nagusian, Beñat Apezetxea goizuetarra txapeldun suertatu da, Pagazpeko Urruzolarekin batera

### TTIPI-TTAPA LEITZA

Leitzako Aurrera, Goizuetako Umore Ona, Larraun eta Araxes pilota elkarteek antolatutako Mendialdeko eskuz binakako laugarren pilota txapelketako azken finalak jokatu zituzten maiatzaren 7an Leitzako Amazabal pilotalekuan. Nagusietan, Apezetxea goizuetarrak lehen mailan eta Goikoetxea leitzarrak bigarren mailan txapela jantzi dute, baita Elizegi goizuetarrak gaztetan ere.

**2. mailako kadeteak:** Ijurko eta Ijurko (Larraun), 9 – Laso eta Otamendi (Larraun), 22

**Lehen mailako kadeteak:** Sagastibeltza eta Zubillaga (Aurrera), 22 – Bidart eta Telletxea (Aurrera), 9

**Gazteak:** Zestau (Gazteleku) eta Elizegi (Umore Ona), 22 – Sarasibar (Oberena) eta Galarza (Larraun), 20

**Bigarren mailako nagusiak:** Goikoetxea (Aurrera) eta Sotil (Larraun), 22 – De la Torre (Lagunak) eta Olaz (Paz Ziganda), 14

**Lehen mailako nagusiak:** Apezetxea (Erreka) eta Urruzola (Pagazpe), 22 – Astiz (Larraun) eta Peñalver (Paz Ziganda), 18



Baztango Udaberriko pilota txapelketako finalistak. UTZITAKOIA

## Txarutaren Baztango Udaberriko txapelketak ere baditu txapeldunak

### TTIPI-TTAPA BAZTAN

Txaruta elkarteak antolatutako 32. Udaberriko txapelketako finalak apirilaren 30ean jokatu zituzten Elizondoko Baztan Udal pilotalekuan eta Irurritako Aranabia pilotalekuan.

Elizondon, **Umeak A** mailan, Barañaingo Iker Bengoetxea eta Iruñeko Aritz Mauleonek 18-10 irabazi zieten Bortzirietako Aimar Almandoz eta Beñat Goñiri. **Kimuak A** mailan, Bortzirietako Urko Telletxea eta Jon Lazkanotegik 18-15 irabazi zieten Bortzirietako Ioritz Iguzkiagirre eta Erik Igoari. **Haurrak A** mailan, Malerrekako Mattin Leiza eta Iker Anzizarrek 18-4 irabazi zieten Malerrekako Hegoi Fagoaga eta Zuhaitz Barbarini. **Kadete A** mailan, Amaiurko Arkaitz Goienetxe eta Bañosko Angel Mitok 18-16 irabazi

zieten. Oartzungo Manex Olaiz eta Unai Zelaraini. **Gazte mailan**, azkenik, Oartzungo Oier Zabaletak eta Goizuetako Egoitz Elizegik 22-20 irabazi zieten Mikel Leonet eta Aitz Aranburu oartzuarrei.

Iruritan, **Umeak B:** Berroetako Aieko Migeltorena eta Irurritako Oihan Etxenik 18-17 irabazi zieten Urdazubiko Ekhi Jaurena eta Irurritako Mikel Agerralderi. **Kimuak B:** Iruñeko Jon Goñi eta Mikel Iñarreak 18-9 irabazi zieten Iruñeko Jon Ander Okiñena eta Oihan Hualderi. **Haurrak B:** Larraungo Aitor Balda eta Unai Otamendik 18-8 irabazi zieten Villabonako Xumar Iparragirre eta Beñat Larrarteri. **Kadete B:** Iruñeko Marcos Crespo eta Julen Gelbentzuk 18-6 irabazi zieten Oartzungo Gexan Martinez eta Aitor Etxeberriari.

## 32. Josetxo Ezkurra Memorialeko txapelak banatu dituzte Donezteben

### TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

32. Josetxo Ezkurra txapelketako finalak maiatzaren 6an jokatu zituzten Ezkurra pilotalekuan. **Benjamin:** Mauleon (Oberena), 18 – Eñaut Zubieta (Bortziriak), 7. **Alebin:** Erik Igoa (Bortziriak), 16 – Ibai Arrieta (Lagunak), 18. **Neska infantil:**

Lopez (Ataun), 18 – Aranburu (Lapke), 15. **Infantil:** Etxaniz (Oteiza), 9 – Antimasberes (Lagunak), 18. **Kadete:** Okiñena (Oberena), 12 – Nazabal (Oberena), 18. **Jubenil:** Zabaleta (Oiarpe), 18 – Olaiola (Abantzu), 9. **Senior:** Okamika (Lea-Ibarra), 18 – Larrañaga (Ilunpe), 11



Finalistak, antolatzaile eta sari-emaleekin. UTZITAKOIA



Ibai Meoki Anaitasunaren eraso jokaldi batean. ANAITASUNA

## Ibai Meokik eskubaloia utziko du denboraldi bukaeran

Errekan hasi zuen ibilbidea eta gaur egungo Asobal ligako Helvetia Anaitasuna taldeko kapitaina da doneztebarra

### TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Ibai Meoki Etxebeste, 34 urteko jokalaria doneztebarrak eskubaloia utziko du denboraldi bukaeran.

Hamar urterekin hasi zen Errekan eta jubenilak bitarte Doneztebeko taldean aritu zen. Hamazazpi urterekin Iruñeko TID San Antonio tal-

dean hasi zen, garai hartan maila nagusian aritzen Portland San Antonio taldeko harrobiko taldean, hain zuzen. Bi urte eta erdi beranduago, lehen aldiz Anaitasunan aritu zen, utzita, Ohorezko B mailan. Urte eta erdi beranduago berri ere San Antoniora itzuli zen, lehen taldean aritzeko,

Asobal ligan. Bi urte eman zituen San Antonion eta berriz ere Anaitasunara itzuli zen, hiru urtez Asobal ligan aritzeko. Orduan hasi zuen Alemaniako bere ibilbidea, Bundesliga bigarren mailan, bi urtez HG Saarlouis taldean eta bat ThSV Eisenach taldean. Azkenik, Nafarroara itzuli eta 2018-19 denboralditik honat Anaitasunarekin aritu da. Denora, 300 bat partida jokatu ditu Meokik Asobal liga, horietatik 220 baino gehiago Anaitasunarekin. Hamabi denboralditan ia 400 gol egin ditu. Alemanian 67 partida jokatu zituen HG Saarlouis taldean (175 gol) eta 30 partida ThSV Eisenach taldean (49 gol).

Maiatzaren 3an egindako agerraldian iragarri zuen agurra eta alboan izan zituen taldekideak, entrenatzaileak eta Anaitasunako zuzendaritza batzordeko kideak. Denek hitz onak bertzerik ez zituzten izan Doneztebekoarentzat, «pistaren barrenean eta kanpoan eman duen guztiarengatik».

Ibai Meokik, bere aldetik, Errekako hasiera atzendu gabe, Anaitasuna bere bigarren etxea izan dela eta dela azpimarratu zuen.

## Zelaieta futbol txapelketa solidarioa larunbatean Beran

### TTIPI-TTAPA BERA

Guztiok elkartearen aldeko dirua biltzeko eta, aldi berean, Genaro eta Unai Zelaieta gogora ekartzeko helburua duen Zelaieta Futbol Txapelketa solidarioa antolatu du bigarren urtez Berako Gure Txokoa elkartek. Genaro Zelaieta bi liga irabazi zituen Real Sociedad taldeko jokalaria izan zen eta Unai bere semea ere Donostiako taldeko jubenilekin aritu zen. Maiatzaren 20an, larunbatean 16:00etan hasiko da Matzada futbol zelaian eta infantil mailako Osasuna, Real Sociedad, Alaves eta Baztan Bidasoko selekzio batek parte hartuko dute. Lortuko den diru guztia, Bortziritako Guztiok elkartearen alde izanen da. Guztiok elkartea, Bortziritako behar bereziak edo/eta desgaitasuna duten umeen familiek duten osasun arloko gabeziei aurre egiteko sortu zen. Elkarrekin honek, ekitaldi honetan lagundu duten guztiei eskertu nahi die.



UTZITAKOA

## Felix Errandonea Memoriala Beran

Felix Errandonearen omenez, junior mailako txirrindularitza lasterketaren 45. edizioa antolatu zuen maiatzaren 7an Berako Gure Txokoak. Adur Tapia (Viveros San Anton) nagusitu zen, Mikel Regilen (Sakana Group) aitzinetik. Lander Ochoa de Aspuru (Aranako) osatu zuen podiuma.

## Nafarroako 4x4 sokatira txapelketako azken tiraldiak larunbatean Elizondon

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako launakako sokatira txapelketako azken txapelak maiatzaren 20an, larunbatean erabakiko dira Elizondon. Gizonen eta emakumeen pisu arinetako txapelketetako bigarren eta hondarreko jardunaldia jokatu da, baita kadete eta 20 urtez behekoen hondarreko jardunaldia ere. Orain artean banatu diren hiru txapelak (gizonen 320 kilokoa eta emakumeen 255 kilokoa eta mistoa) Beti Gaztek eskuratu ditu. Azkenekoa mistoa izan zen, maiatzaren 6an Be-



Txapelketa mistoko podiuma.

rriozarren. Etxeko taldeak eta Lesakakoak berdindu zuten, baina Beti Gaztekoak pisu arinagoak zirelako eraman zuten txapela. Amaiurrek osatu zuen podiuma.

## MAIATZAK 18 - EKAINAK 1

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



FELIX LOIARTE

### GOIZUETA VIII. Goizutrail Mendi Lasterketa

Hiru modalitate: laburra (10,6 kilometrokoa), luzea (25,2 kilometrokoa) eta erreleboka (bikoteka).

Plazatik, maiatzaren 20an, 09:00etan. Dorsalak maiatzaren 19an estankoan 18:00etatik 20:00etara eta lasterketaren egunean 07:30ean plazan.

### BESTAK

#### URDAZUBI

##### Salbatore bestak

Maiatzaren 17tik 21era.

#### IRURITA

##### Salbatore bestak

Maiatzaren 17tik 21era.

#### BERROETA

##### Mendekoste bestak

Maiatzaren 26tik 29ra.

### JARDUNALDIAK

#### LESAKA

##### Lesakako Zerbitzuen Elkartearen eguna

Maiatzaren 20an.

#### SUNBILLA

##### Osasunaren eguna

Maiatzaren 27an.

#### BERA

##### Berako Gazte eguna

Maiatzaren 27an.

### MUSIKA

#### LESAKA

##### Lesakako Musika Eskolaren kontzertua

Alondegiko arkupeetan, maiatzaren 19an, 19:00etan.

#### LEITZA

##### Aralar eta Musikaia musika eskolen kontzertua

Herri Aretoan, maiatzaren 20an, 12:00etan.

##### 'Mundu berri baten mapa' kontzertua

Aralar Musika Eskola.  
Herri Aretoan, maiatzaren 26an, 17:30ean.

#### BERA

##### Bera Kantari

Illekuetan, maiatzaren 20an, 19:00etan.

##### Arima taldearen kontzertua

Katakun, maiatzaren 21ean, 18:00etan.

#### Musika emanaldi tikiak

Musika Eskolan, maiatzaren 22tik 26ra.

#### Ganbara talde tikiak

Toki Onako aterpean, maiatzaren 23an.

#### Elizondoko Koro Ttikiren kontzertua

Kultur etxean, maiatzaren 31n, 18:30ean.

#### ARRAIOZ

##### Baztan Kantuz

Laxoko plazan, maiatzaren 21ean, 12:00etan.

#### ARANTZA

##### Mutxikoak

Plazan, maiatzaren 27an, 18:00etan. Eguraldi txarra eginez gero frontoian.

#### ELIZONDO

##### La buena vibra taldearen kontzertua

Txokoton, maiatzaren 28an, 19:30ean.

### KIROLAK

#### ZUBIETA

##### Ados Pilotaren bertso-pilota txapelketa

Pilotalekuan, maiatzaren 20an, 18:00etan. Ondotik bertso-afaria Aitor Sarriegi eta Maialen Akizurekin.

#### GOIZUETA

##### VIII. Goizutrail Mendi Lasterketa

Plazatik, maiatzaren 20an, 09:00etan.

#### BERA

##### Guztiok taldearen aldeko futbol txapelketa solidarioa

Matzadan, maiatzaren 20an.

#### Berako XV. Mendi Itzulia

Agerra Mendi Taldearen egoitzatik, maiatzaren 21ean, 07:30ean.

#### IRURITA

##### Baztango XXVIII. Mendi Itzulia

Maiatzaren 28an, 07:30ean.

## BERTSOAK

## LEITZA

**Mingañe Saltsan sariketako finala**

Torrean, maiatzaren 19an.  
Sarrerak 617 26 93 22  
telefonoan.

## ITUREN

**Nafarroako Bertso Eskolen eguna**

Maiatzaren 21ean.

## BERA

**Baztan Bidasoko Bertso paper lehiaketako sari banaketa**

Kultur etxean, maiatzaren 26an,  
17:00etan.

## SOLASALDIK

## LEITZA

**'Federiko Krutwig eta gaurko ekonomia' liburuaren aurkezpena**

Oskar Aranzabal eta Baleren  
Bakaikoarekin.  
Aurrera elkartean, maiatzaren  
18an, 19:30ean.

## ARANTZA

**Arantza Bizirik taldearen batzar irekia**

Plazan, maiatzaren 20an,  
12:00etan.

## PROIEKZIOAK

## LEITZA

**Zinema**

Herri Aretoan, maiatzaren 20an  
eta 21ean. 16:30ean 'No somos  
nada' eta 19:00etan  
'Amsterdam'. Sarrerak salgai  
leitza.eus-en.

## LESAKA

**Zinema euskaraz**

Harriondoan, maiatzaren 28an,  
goizez.

## IKUSKIZUNAK

## LESAKA

**'Creepy crawly' dantza garaikideak**

Led Silhouette taldearen eskutik.  
Harriondoan, maiatzaren 20an,  
19:00etan. Sarrerak 6 eurotan  
lesaka.eus-en.

## ETXALAR

**'Bihotz, bi hotz, bi txotx' bakarriketa**

Pello Apezetxea kultur etxean,  
maiatzaren 26an, 19:00etan.

## AZOKAK

## SENPERE

**III. Kanita Urrats**

Pilota plazan, maiatzaren 18an,  
09:00etatik 18:00etara.

## ELIZONDO

**Baztango Artisauen eta Nekazarien azoka**

Plazan, maiatzaren 20an eta  
27an, goizez.

## LEITZA

**XLIV. Eskulangintza Azoka**

Plazan, maiatzaren 21ean,  
10:00etatik 14:00etara.

## LESAKA

**Merkatu ttikia eta Azoka kulturala**

Beheko Plazan eta Plaza  
Zaharrean, maiatzaren 27an,  
10:00etatik 14:30era.

## NIRE AUKERA

**«Aitaxiren kantak eta 70eko hamarkadako musikak inspiratu nau»**

PEIO ERRAMOUSPE SARAKO MUSIKARIA



34 urteko musikari saratarra da Peio Erramouspe. «Sintetizadorea eta kantua» ditu gustuko, «jendearekin proiektu berriak muntatzea edo hauetan parte hartzea. Kantatzea eta musikan aritzea edonon, edonoiz eta edonorekin».

**Ttikititik musikari**

Etiket datorkio musika zaletasuna; «betitik aritu izan gara kantuan familian. Aitarekin atabala jotzen nuen bera gaitarekin aritzen zelarik. *Ttantta* Maitek Casio piano bat oparitu zidan ttipitan eta atabalarekin batera jostatzen nintzen».

Geroztik, ez du inoiz musika alde batera utzi. «15 urtez gaztetxeetan eta Moï Moï kolektiboan ibili naiz. Bateria jo nuen Polygon eta Radiator taldeetan eta baxua Daudane eta Fusiblerekin. Paxkal Irigoyenek bere Kontsumo orkestrara gonbidatu ninduen eta lehen aldiz euskaraz kantatzen zen talde batera sartu nintzen sintetizadorearekin».

Musika tresna aunitz jotzen ditu; «pixka bat denetarik, baina deus ere ongi». Orain sintetizadorea da gehien erabiltzen duena: «Lumi taldeko Manu Matthysek anitz irakatsi zidan sintetizadoreei buruz eta bakarkako elektronika proiektu bat sortu dut».

**Haira proiektua**

Bere ibilbidean musika progresiboa, rocka eta elektronikoa landu izan ditu, eta orain kanta zaharrak eta sintetizadorea nahasten ditu, duela bi urte abiatutako proiektu berrian. «Sintetizadorearekin jolasten, inprobisatzen hasi nintzen gure Aldudeko aitaxiren kantak kantatzen».

*Laupabortz Aire Ttipi* diskoa kaleratu berri du, aita- txik eta 70eko hamarkadako musika alemaniar alternatiboak inspiratutako lana. «Ez dut definitzea lortu, lan intimoa da, ene ganbaran garatu dudana. Nire burua lasaitzeko, agian».

Etorkizunera begira, asmo bakarra dauka: «jo eta jo».

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI



**LANDAK.** Azur herriko kanpin txiki batean dagoen 'mobile home' bat salgai. Kanpoan terraza bat eta barreranean egongela, sukalde hornitua, bi logela. Horietako bat 140 x 190 cm-ko ohearekin eta bestea 90 x 190 cm-ko bi oherekin eta 80x190 cm-ko beste birekin eta komuna. **610 62 70 59.**

**BERA.** Kanttonberri karrikan 81m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. Prezioa: 148.000 euro. **619 63 98 78.**

#### EROSI

**LESKA.** Herrigunean etxea edo apartamentua erosi nahi dute. Logela bat edo bikoa, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. 130.000 euro inguruan ordaintzeko prest. **679 42 36 07.**

#### ERRENTAN HARTZEKO

**LESKA.** Bikote bat pisu bila. **640 65 04 22 / 644 38 41 04.**

#### ERRENTAN EMATEKO

**ITUREN.** Etxe bat errentan emateko. Bi logela eta bi bainugelarekin. **620 25 42 03.**

### GARAJEAK/LOKALAK

#### SALGAI

**DONEZTEBE.** 200 m<sup>2</sup>ko bajera salgai. **608 97 82 10.**

### LANAK

#### ESKAINTZAK

**IBARDIN.** Benta Gorrian eguerdiko zerbitzuan sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dute. Curriculumak bidali ([bentagorria@hotmail.com](mailto:bentagorria@hotmail.com)) edo deitu. **618 00 27 31.**

**BERA.** Ansonea jatetxean zerbitzaria eta sukaldaria behar dituzte lanaldi osoan aritzeko. **649 33 77 23.**

**ZUGARRAMURDI.** Kattalin jatetxean zerbitzari aritzeko langilea behar dute. Frantsesa pixka bat jakitea beharrezkoa da. **948 59 90 09 / 948 59 91 46.**

**IGANTZI.** Irrisarri Landen garbiketako hiru langile, harrerako bi langile eta mantentze lanetarako berte bi behar dituzte. Sukaldari eta zer-

## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 63 54 58

[www.erran.eus](http://www.erran.eus)

744 48 43 61

[info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

bitzari bila ere ari dira. Bidali curriculumak [rrhh@irrisarriland.com](mailto:rrhh@irrisarriland.com) helbidera edo deitu. **948 92 89 22.**

**LESKA.** Lidera hortz klinikan higienista behar dute. Bidali curriculumak: [infolidera@hortzklina.es](mailto:infolidera@hortzklina.es).

**LESKA.** Iturbena kafetegian asteburuetan lanean aritzeko zerbitzaria behar dute. Interesatuak bertatik pasatu edo telefonoz deitu. **620 70 09 64.**

**ELIZONDO.** Esarte harategian langile bat behar dute lanaldi erdian aritzeko, banaketa egiteko. **948 58 19 07.**

**DONEZTEBE.** Janari denda traspasatzen da jubilazioagatik. **629 00 78 67.**

**LESKA.** San Fermin Ostatuan zerbitzaria behar dute, sei orduko lanaldian aritzeko. **690 23 38 54.**

**URDAZUBI.** Montxo jatetxean zerbitzariak behar dituzte lanaldi osoan aritzeko. **848 85 00 21 / 630 22 12 08.**

**ARRAIOZ.** Harategirako langilea behar dute. Aestero txandakatzten da. Lan astearen arabera egun bat edo bi jai. Bidali curriculumak: [nfm.laboral@gmail.com](mailto:nfm.laboral@gmail.com).

**URDAZUBI.** Fagoa Etxean lan egiteko bi pertsona behar dituzte. Ostetuko lanak eta bizikleta alokairuak egiteko. **600 83 84 48.**

**IBARDIN.** Mendiko sagardotegian zerbitzaria behar dute 6 orduko lanaldian aritzeko. **948 63 03 02 / 670 36 50 11.**

#### ESKARIAK

Irakasle ikasketak egiten ari den neska gaztea ikasten ari den bitartean lanean aritzeko prest. Ikaskekin lotuta, umeak zaintzen aritzea

gustatuko litzaiokie. Astez lan egiteko moldatzeko prest, eta asteburuetan eta oporretan libre izanen litzateke. **677 24 85 00.**

**ELIZONDO**ko 15 urteko neska udan haurrak zaintzeko prest. **623 16 54 14.**

Adinekoak zaintzen esperientzia duen emakumea zaintza lanetan ariko litzateke uztailetik aitzinera. **666 19 96 14.**

Ekain osoan eta uztailean eta abuztuan arratsaldez haurrak zaintzeko lan bila ari den neska. Irakasle ikasketak eginak. Orduen eta egunen inguruan solastatzeko prest. **722 25 10 83.**

**ELIZONDO**ko 18 urteko mutikoa udan haurrak zaintzen ariko litzateke. Bi urtez Dindaia fundazioak antolatutako udalekuetan, Elizondon, begirale aritutakoa. **629 46 66 62 (Iñaki).**

**SARA ETA INGURUAN** (Ezpeleta eta Kanbora arte) emakume bat garbiketara edo adinekoak zaintzen ariko litzateke. Jarri harremanetan WhatsApp bidez. **0034 643 51 37 80.**

## ZERBITZUAK

### ZURGIN LANAK

**ARANTZA ZURGINDEGIA**  
Klase guzietako zurgin lanak  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe  
Jose Miguel Errandonea - ARANTZA  
**647 810 144 - 626 093 181**

### ANIMALIAK

#### OPARITZEKO

**ETXALAR.** Zakurkumeak oparitzeko. **686 67 31 05.**

### DENETARIK

#### SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lureko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. **690 08 56 65.**

Egur idorra salgai, pagoa eta haritz amerikarra. Sutarako prest. Etxera eramateko zerbitzua eskaintzen da, lote osoa nahi izanez gero ere zerbitzu bera. **634 70 33 10.**

## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,34
- 1.koa 5,22
- 2.koa 5,10

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,45
- 1.koa 5,31
- 2.koa 5,20

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

#### Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

#### Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

#### Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

#### ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,40/5,50
- Zaldi-behorrak 2,52/2,69

#### ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,80/8,90
- 8-10 kilokoak: 6,90/7,60


#### ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 114 €

Zerri gizona 2,025 €

Zerramak 1,410€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua apirilaren 28tik maiatzaren 5era bitarteko prezioak)



Errepideko bizikleta salgai. Mendiz Rs3 karbono monocasco bizikleta salgai. Neurria M. Shimano 105, 50/34-11/32. ☎618 41 11 14.

## MOTORRAK

### TAILERRAK



## URTEBETETZEAK



Lekarozko **Oinatz Sarratea Arretxeak** zazpi urte beteko ditu maiatzaren 27an. Zorionak Oinatz!!! 7 urte beteko dituzu jada. Arras ongi pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu erraldoi bat familiaren partetik, baina bereziki zure anaia Julenen partetik.

## Aunitz urtez!

**Zoriondu zure senideak eta lagunak!**

**Internetez:** <http://erran.eus/zorionagurrak>,  
TTIPI-TTAPAREN **bulegora** etorrita edo **postaz** (Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA) edo **Whatsapez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

## EZKONTZAK

• **Bruno Lasserre** eta **Anne Larzabal**, apirilaren 29an Saran.

## SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus) helbidera edo Whatsapez 744 48 43 61 telefonora idatzi beharko du.

URTEURRENA

**Felisa  
MAYA VERGARA**  
1926/01/17-2022-05-27  
**I. urteurrena**

*Pilotegin jaio ta  
Premosan bizia,  
etxeokak hezitzen  
sortuz familia.  
Baserría izanik,  
gu denon kabía,  
betirako gurekin  
dugu zure argia.*

**Matte zattugu amabxi!**



OROIGARRIA

**Jose  
IRAZOKI ETXENIKE**  
Zugarramurdi, 2023ko apirilaren 29an,  
87 urte zituela

*Beti irribarrea zenuen lagun min  
gauza denen gainetik aitzinerat ekin  
bizitzari helduaz gogo guziarekin  
indar hau utzi duzu betiko gurekin  
maite izan zaitugun familiarekin.*



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Maite  
IPARRAGIRRE IPARRAGIRRE**  
Etxalarren, 2021eko maiatzaren 22an,  
45 urte zituela  
**II. URTEURRENA**

*Beti irribarrea zenuen lagunmin  
gauza denen gainetik aitzinerat ekin  
bizitzari helduaz gogo guziekin  
indar hau utzi duzu betiko gurekin  
maite izan zaitugun familiarekin.*



ZURE FAMILIA

**IRACHE**  
tanatorioak

**Nafarroako familien zerbitzura 1976tik**

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

## HILBERRIAK

- **Maria Salaberria Salaberria**, Goizuetakoa apirilaren 24an, 94 urte zituela.
- **Martina Etxenike Barberena**, Berakoa, apirilaren 25ean, 95 urte zituela.
- **Milagros Goizueta Altamira**, Goizuetakoa, apirilaren 26an, 80 urte zituela.
- **Jose Irazoki Etxenike**, Zugarramurdikoa, apirilaren 29an, 87 urte zituela.
- **Maria Paz Trantxe Etxeberria**, Igantzikoa, apirilaren 30ean, 99 urte zituela.
- **Manuel Goñi Telletxea**, Doneztebekoa, maiatzaren 1ean, 83 urte zituela.
- **Felix Irigoien Agerrebere**, Amaiurkoa, maiatzaren 1ean, 71 urte zituela.
- **Carmen Telletxea Elizondo**, Igantzikoa, maiatzaren 2an, 98 urte zituela.
- **Luis Mari Lizarza Baraibar**, Leitzakoa, maiatzaren 6an, 92 urte zituela.
- **Josefa Agirre Irazoki**, Berakoa, maiatzaren 8an, 96 urte zituela.
- **Irene Arretxea Berruetau**, Lesakakoa, maiatzaren 8an, 80 urte zituela.
- **Lutxi Lasa Iribarren**, Elizondokoa, maiatzaren 9an, 91 urte zituela.
- **Angel Zubitur Zestau**, Leitzakoa, maiatzaren 9an.

  
**IZARRA**  
HERRI, ZURE ONDOAN  
ANIMA ETZAN

Gure harra,  
gure jendea,  
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

  
**BAZTAN  
BIDASOA**  
Heriotza Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3

web: [funerariabaztanbidasoa.com](http://funerariabaztanbidasoa.com)

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

**24 ORDU | 948 48 95 50**  
365 EGUN | [info@funerariabaztanbidasoa.com](mailto:info@funerariabaztanbidasoa.com)

*Betiko taldea zu laguntzeko*



## KONTATU KONTUAK



MARI JOSE GAZTELUMENDI

**Txistulari gaztetxoak Peru Harrin.** Nafarroako hainbat musika eskoletako txistulari gaztetxoek kontzertua ederra egin zuten maiatzaren 6an Leitzako Peru Harri museoan Txistulari gazteak elkar ezagutzeko eta elkarlanean aritzeko antolatu zuten topaketa.



MAITE GOIENETXE

**Lurritziederreko bestak Etxalarren.** Ohiturarekin segituz, Lurritziederra auzokoak maiatzeko lehenbiziko igandean elkartu ziren auzoko bestak ospatzeko. Eguraldi ederra lagun, 52 lagunek bazkaria egin zuten Landaburuko Bordan.



IGANTZIKO ESKOLA

**Kanpaldiz kanpaldi.** Maiatzaren 3tik 5era, adibidez, Arantzako, Etxalarko, Igantziko eta Lesakako eskoletako 5. eta 6. mailakoak Zuhatzara joan ziren. Maiatzaren 11n eta 12an Arantzako, Etxalarko eta Igantziko Haur Hezkuntzako ikasleak Zugarramurdiko aterpera joatekoak ziren. Hiru eskoletako lehenbiziko eta bigarren mailakoak llandaingo baserri eskolara joanen dira maiatzaren 23an eta 24an eta hirugarren eta laugarren mailakoak Iratxe kanpinera.



RICARDO BAROJA ESKOLA

**Berako Ricardo Baroja eskolakoak zahar etxeoekin.** Azken hilabeteetan Berako Ricardo Baroja eskolako 3. zikloko ikasleak hainbat aldiz San Jose Zahar Etxera joan dira bisitan, han bizi direnen bizimodua ezagutu nahian. Kontatu dutenez, «hagitz hartu-eman polita sortu da haurren eta zaharren artean». Azkeneko asteetan, gainera, eskolara hamaiketakoak jatera ere gonbidatu dituzte.



ESTIBALIZ AGIRRE

**Toki Ona institutuko ikasleak Inkesten eta Esperimentuen Kabia lehiaketan.** Inkesten eta Esperimentuen Kabia izeneko lehiaketa Nafarroa mailan matematikaren inguruan antolatzen duten lehiaketa da. Eta aurten, Berako Toki Ona institutuko DBH 1eko Ixaro Elgorriaga, Ander Larburu eta Asier Telletxea ikasleek aurkeztutako Inklusioa proiektua finalera ailegatu da. Joan den apirilaren 27an egin zuten finala Iruñean eta aurkezpen bikaina eginda, lehenbiziko hiruren artean gelditu ziren. Zorionak hirukote!



TOKI ONA INSTITUTUA

**Xabier Ortego txapeldun Matematika Olinpiadan.** Maiatzaren 6an DBH 2ko ikasleei bideratutako Matematika Olinpiada jokatu zuten San Adriango institutuan. Nafarroako 150 bat ikasleren artean, Toki Ona institutuko Xabier Ortego eta Oier Barcenillak parte hartu zuten. Bi orduko lanaren ondotik, Xabier Ortego eta berarekin aritu zen Mattin Oiartzun txapeldun izendatu zituzten. Hala, ekainaren 23tik 26ra Tenerifen eginen duten estatu mailako olinpiadetarako txartela lortu dute eta Ane Cedronekin (txapeldunordea) Nafarroa ordezkatzeko dute. Zorionak!

**ZORIONAK!**  
**ARANE OTERMIN ORTEGA!**

829. aleko irabazlea zara!

# PLAZAN BAZAN



## MEZU GORDEA

Hizki-marrazki alfabetoa erabiliz, eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta gure lagunek zer dioten asmatuko duzu.

Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiuurri)



Laguntzailerak:  
**ibaizabal**

**Plazan bazan egiteak BADU SARIA!**

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin maiztaren 9a baino lehenago, Ttipi-Ttapako Whatsappera:  
 (0034) 774 48 43 61 zure izen abizenak jarrita.  
 Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!

## ITZALA

Ai, gaixoa Pelloziri. Usapal batek kaka egin dio leihoan eta garbitu beharra dauka. Piura harrigarria du, ezta? Baina lasai, ez da leihotik eroriko, eta eroriko balitz ere, ez litzateke larria izango, lurretik metro erdi eskasera baitago. Beno, beno, utz ditzagun azalpenak eta harira: zein da bere itzal zuzena? Bide batez, irudia MARGOTU.



## SUDOKUA

Bete itzazu sudoku honetako hutsuneak, LEIHOA hitza osatzen duten hizkiak (L, E, I, H, O eta A) dagokien tokian jarri. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



**INTERNETEN ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eus/>

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

**Ttipi Txartela**arekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSU-TRUK  
-%80 ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61  
info@ttipi.eus | erran.eus  
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

**829** zenbakiko irabazleak >



**ZOZKETAK**

**Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**  
Rufina Aldaia Indakoetxea | ERATSUN  
**Buatxabal - Kamiseta bat**  
M<sup>a</sup> Carmen Arregi Zabaleta | LEITZA  
**Zugarramurdiko lezeak - Sarrera bat**  
Juan Jose Petrirena Irazoki | IRUNEA  
**Irrisarri Land - Sarrera bat**  
Juan Jose Gortari Garaikoetxea | ARRAIOZ  
**WOW Park - Sarrera bat**  
Mikelita Aintziart | ZUGARRAMURDI  
**La Rhune - Sarrera bat**  
Marta Petrirena | ORDNOZ-MUGAIRI  
**Salting iruñea - Bi sarrera**  
Irina Villanueva Negrete | BERA  
**Anikote - Sarrera bikoitza igerilekurako**  
Kontxi Lezea Huitzi | ARESO  
**Txalaparta - Bi liburu**  
Izaskun Dtxoteko Irastorza | LESAKA

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
www.aquariums.com



Bi sarrera

**ONDOO TA PUNTO**  
www.ondootapunto.com



Kamiseta bat

**EZKEXA**  
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

**BKZ ABENTURA**  
www.navarraaventura.com



Sarrera bat

**WOW PARK**  
www.wowpark.fr



Sarrera bat

**MENDUKILO**  
www.mendukilo.com



Bi sarrera

**MUGARKI**  
www.mugarki.com/eu



Sarrera bikoitza

**GARBI**  
Huarite gotzaina, 19 - Leitza



Saski bat

**Sartu**

[ttipi.eus/ttipi-txartela](http://ttipi.eus/ttipi-txartela)

webgunean  
eta ikusi  
abantaila guztiak!

DESKONTUAK  
ZOZKETAK  
ELKARRIZKETAK  
LAGUNTZAILEAK  
ARGITALETAK



Aprobetxa itzazu Ttipi Txartelak  
eskaintzen dizkizun  
abantailak, Ttipi Txartela  
onartzen duten denda eta  
zerbitzuetan erosiz.

**MUSIKA**

Lau CD



Deskontuak eta zozketa: Ttipi-Ttapa aldizkari  
guztietan Ttipi Txartelaren informazioa argitaratzen  
da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun  
deskontuak oroitaraziz!

**baga-biga**  
BAGAJA BERRA

www.baga-biga.eus